

Esta publicación ha recibido financiación de aLankidetzta - Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo.
Argitalpen honek eLankidetzta - Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren finantziazioa jaso du.



Máster Oficial en Globalización y Desarrollo / Globalizazioa eta Garapena Master Ofiziala

Trabajo Fin de Máster / Master Amaierako Lana
Curso 2022/2023 Ikasturtea

Tokiko ikuspuntua txertatzea bake eraikuntzan
Sierra Leonako Egiaren eta Adiskidetzaren Batzordearen kasua Irene Jiménez Zumalde

Tutoría / Tutorea: iker zirion landaluze
Hegoa. Trabajos Fin de Máster, n.º 106 / Master Amaierako Lanak, 106 zkia.

Fecha de publicación: diciembre de 2023
Argitalpen data: 2023ko abendua



Hegoa
Instituto de Estudios sobre Desarrollo y Cooperación Internacional
Nazioarteko Lankidetzta eta Garapenari buruzko Ikasketa Institutua

www.hegoa.ehu.eus
hegoa@ehu.eus

UPV/EHU. Edificio Zubiria Etxea
Lehendakari Agirre Etorbidea, 81
48015 Bilbao
Tel.: (34) 94 601 70 91

UPV/EHU. Biblioteca del Campus de Álava / Arabako Kampuseko Liburutegia
Nieves Cano, 33
01006 Vitoria-Gasteiz
Tel.: (34) 945 01 42 87

UPV/EHU. Carlos Santamaría Zentroa
Plaza Elhuyar, 2
20018 Donostia-San Sebastián
Tel.: (34) 943 01 74 64



Esta obra está bajo una Licencia Creative Commons Reconocimiento-NoComercial-CompartirIgual 4.0 Internacional (CC BY-NC-SA 4.0)

Agiri hau Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin 4.0 Nazioartekoa (CC BY-NC-SA 4.0)
Creative Commons-en lizentziapean dago.

Aurkibidea

1.	Sarrera.....	2
2.	Bake eraikuntzaren garapena: bake liberaletik, tokiko bakera.....	4
2.1	Bake liberala: krisialdian dagoen bake eraikuntza eredua	4
2.2	Tokiko eta genero ikuspegia dituen bake eraikuntza eredu berria	8
2.3	Bakearen ikuspegi bakoitzari kritikak eta erantzunak.....	13
3.	Sierra Leonako gatazka armatua eta horren ondoko bake eraikuntza prozesua.....	15
3.1	Sierra Leonako gerra zibilaren garapena	16
3.2	Sierra Leonako bake eraikuntza prozesua.....	20
3.2.1	Ekintza eta dinamika instituzionalak	20
3.2.2	Tokiko ikuspegidun bakearen eraikuntzarako ekintzak.....	24
4.	Sierra Leonako justizia eremuko bake eraikuntza.....	27
5.	Egiaren eta Adiskidetzaren Batzordearen tokiko ikuspegiaren txertaketa.....	32
5.1	Egiaren eta Adiskidetzaren Batzordea, tokiko ahotsen bozgoragailu	33
5.2	Batzordearen ondorioak gizartearen ikuspuntutik	36
5.3	Batzordearen azterketa instituzionala	39
5.4	Nazioartekoaren eta nazionalaren arteko frikzioak.....	43
5.5	Batzordearen ondorioak eta haien garapena.....	46
6.	Ondorioak	48
7.	Bibliografia	52

1. Sarrera¹

Sierra Leonak gatazka armatu oso bortitza bizi zuen 1991etik 2003ra arte eta honetan giza eskubideen bortxaketa handiak eman ziren. Izan ere, gatazka horrek gizartean ondorio oso latzak izan zituen; herrialdea gatazkak aurretik jada pobrezia maila altuak bazituen ere, gatazkak egoera hori handitu zuen. Ondorio ekonomikoak handiak izan baziren ere, indarkeria mailak ere ondorio oso latzak izan zituen gizartearengain. 50.000 pertsona hil ziren gatazkaren indarkeriaren ondorioz eta 2.5 milioi pertsona bere etxeetatik kanporatuak izan ziren. Ondorioak populazio osoaren eremuan eman baziren ere, kalte handiena emakume, ume eta gazteek (mutilak eta neskak) jasan zituzten. Giza eskubideen bortxaketak gainditzeko eta gatazka egoerari amaiera emateko, ekintza ezberdinak aurrera eraman ziren gatazka ondoko testuinguruan, bake eraikuntza prozesu baten bidez.

Ekintza horiek mota askotakoak izan ziren. Ekintza ofizial gehienak Nazio Batuen Erakundearen (NB) eremuan eman ziren, eta estatu demokratiko liberala eraikitzeke helburua zeukaten, hau da, bake eraikuntzako tradizio liberalaren eremuan kokatzen ziren. Tokiko tradizioan oinarritutako ekintzak ere aurrera eraman ziren, baina horiek, gehien bat, eremu instituzionaletik kanpo geratu ziren, gizarte zibilak aurrera eraman zituelako. Emakumeek ere garrantzi handia zeukaten azken ekintza horietan, horien sustatzaile nagusiak izan zirelako. Bi motatako ekintza horiek (Nazio Batuenak eta tradizioetan oinarritutakoak) modu desberdinetan bete nahi zituzten eta horren ondorioz, haien arteko sinergiak urriak izan ziren. Izan ere, NBen eremuan bake liberalak indar handia zeukan eta horrek estatuaren berreraikuntzaren aldeko jarduerak nagusitzea ekarri zuen. Bestetik, tokiko ekimenaren eremuko ekintzek behetik gorako bake eraikuntza zeukaten oinarri, eta estatuaren berreraikuntza baino tokiko beharrak asetzea zuten helburu.

Hori horrela izanda, bake eraikuntzaren eremuan ikuspegi berri hori txertatzeko saiakerak egin zituzten, eta saiakera horietako bat Sierra Leonako bake eraikuntza prozesuan sortu zen organo bat daukagu. Organo hori Sierra Leonako Egiaren eta Adiskidetzaren Batzordea izan zen, gatazkan emandako ekintzen kontakizun bakarra egitea helburu zuena, eta, baita gizartearen partaideen arteko adiskidetzak sustatzea, eta gizartearen beharrak ezagutzea. Hau da, estatuaren eraikuntza baino bestelako helburuak ere bazituen, tokiko ikuspegi ahalik eta handienarekin batera. Azken helburu hori bete zuen edo ez ezagutzeko azterketa egingo da lan honetan, hau da, Sierra Leonako Egiaren eta Adiskidetzaren Batzordeak tokiko ikuspegia benetan txertatzea lortu zuen edo ez ikusteko.

Batzordea 1999ko Lomé Akordioaren ondorioz osatu egin zen, gatazka bukatzeko neurrien artean zegoena. Organo horrek tokiko biztanleek adierazitako egia biltzeko mandatua zuen, eta tokiko biztanleria entzuna izan behar zen mandatu hori bete ahal

¹ Hitz kopurua: 20.025

izateko. Egi hori ezagutzeak, gatazka sortarazi zuten arrazoiak edo egoerak ezagutzea zekarren, eta horrekin batera, gizartean adiskidetzatza bultzatzea.

Bake eraikuntzaren eremuan azken aldian tokiko ikuspegiaren txertaketaren alde egiten da eta hori bake eraikuntzaren prozesuan tokiko gizartean nagusitzen den tradizioa eta kultura barneratzean datza. Aurreko mendearen bukaeran gatazka bat gainditzeko aurreraeraman ziren nazioarteko bake eraikuntza prozesuetan bake liberalaren eraikuntzaren aldegin zen, eta kasu askotan prozesu horiek ez zuten bake iraunkorra eraikitzea lortu. Izan ere, egondako porrotek bake liberala krisian sartzea ekarri zuten, eta, horren aurrean bestelako teoriak garatzen hasi ziren eremu horretako autore garrantzitsuenak. Teoria berri horien artean indar handia izan du tokiko ikuspegia txertatzearen alde dagoena. Horien bidez, behetik gorako bake eraikuntza prozesuak aurrera eramane nahi dira, zeina iraunkorra izango den eta aurretik nagusi zen bake liberalaren paradigma gaindituko duen.

Beraz, lanak Sierra Leonako Egiaren eta Adiskidetzaren Batzordeak tokiko ikuspuntua nola txertatu duen galderari erantzuna eman nahi dio. Galdera hori erantzuteko, aurretik bestelako galderak erantzun beharko dira. Hasteko, bake eraikuntzan tokiko ikuspuntuaren txertaketa zer den. Gero, Sierra Leonako gerra zibilaren ondoko bake eraikuntza nola bideratu zen ere aztertuko da; zehazki, prozesu horretan tokiko ikuspegia nola txertatu zen. Eta, azkenik, Batzordearen jardueran, partehartzailetan, osieran eta bestelako osagaietan tokiko ikuspegiaren txertaketa nolakoa izan zen ere ezagutu nahi da.

Gizarte batek aurrera egin dezan bakea beharrezko elementu bat da eta bake hori ez da bakarrik gatazka armaturik ez egotea. Horrekin batera, gizarteak egonkortasuna izan behar du aurrera egiteko. Beraz, gatazka bat bizi izan duten gizarteetan bake eraikuntza prozesuek garrantzi berezia dute, egonkortasun hori lortzeko. Sierra Leonako kasuan herrialdeak ez du berriro gatazka handirik izan bere bake prozesua bizi ondoren. Prozesua bere osotasunean aztertzen denean, zenbait hutsune izan dituen arren, horiek txikiak izan direla ikusi daiteke, eta horregatik, kasu horren azterketa garrantzitsua da, etorkizunean egon daitezken bake eraikuntza prozesuen oinarri izateko. Izan ere, kasu horren arrakastaren zergatiak aztertu behar dira, eta horien artean tokiko ikuspegiaren txertaketak zein eragin izan zuen ezagutzea oso garrantzitsua da.

Bake eraikuntza kontzeptua ikasturte honetan entzun nuen lehenengo aldiz. Horren inguruan gehiago ikasteko gogoak izan nituen hasieratik. Prozesu horien inguruan irakurtzen hasi nintzenean, Sierra Leonako kasua interesgarri egin zitzaidan eremu askotako ekintzak barneratzen zituelako. Hala ere, ekintzak mota askotakoak zirenez, eremu batera mugatu behar izan nintzen, eta horrek trantsiziozko justiziaren eremura jotzera eramane ninduen. Nazioarteko zuzenbide publikoa asko gustatzen zaidan gaia da eta horrek eremu honetako organo baten alde egitera bultzatu ninduen. Eremu horretan, zentsu handiagoa zuen Sierra Leonako Auzitegi Bereziaren azterketa aurrera eramatea, baina horretan tokiko ikuspuntuaren azterketa oso mugatua izango zen, nazioarteko zuzenbidearen arabeko organo bat delako, eta horregatik erabaki nuen Batzordearen azterketa egitea.

Horretarako, azterketa bibliografikoa egin da, batez ere, bigarren mailako iturrietara jo da eta horien ahalik eta gehien aztertu dira. Gehien bat artikulu zientifikoak erabili dira, baita gai honi buruzko liburuen kapituluak ere, baina kasu batzuetan nazioarteko ebazpenetara eta arauetara zein nazioarteko erakunde eta gobernuz kanpoko erakundeek egindako txostenetara ere jo da. Autore asko Ipar Globalekoak izan arren, tokiko autoreen lanak ere barneratzea bilatu da; hala ere, Sierra Leona kanpoko autoreak izan dira nagusi.

Lanaren egitura ikerketa galderen arabera izan da. Sarreraren ondoren, bigarren atalean, bake eraikuntzaren atzean dauden bi kontzeptu gako aztertuko dira, bake liberala eta tokiko ikuspuntua duen bakea. Hasteko, bi horiek bakoitza bere aldetik aztertuko dira, eta jarraian, bi paradigma horiei egindako kritika nagusiak aztertuko dira. Hurrengo atalean, hirugarrenean, Sierra Leonako gerra zibila eta horren ondorengo bake eraikuntza prozesua aztertuko dira. Laugarren atalean, Sierra Leonako bake eraikuntza prozesuan trantsiziozko justizia eremuan egondako organo garrantzitsuenak aztertuko dira. Geroago, bosgarren atalean, Sierra Leonako Egiaren eta Adiskidetzaren Batzordea sakonki aztertuko da, organoan tokiko ikuspegia txertatzea lortu den edo ez ikusteko. Lanarekin bukatzeko, ondorioen atalean, aurretik aipatutako ikerketa galderei erantzunak bilduko dira, bestelako ondorioekin batera.

2. Bake eraikuntzaren garapena: bake liberaletik, tokiko bakera

Bake eraikuntzak gatazka baten ondoren bakea berrezartzeko aurrera eramaten diren ekintzak barne hartzen ditu. Bake eraikuntza prozesuen inguruan, teoria ezberdinak eraiki dira. Atal honetan garapen handia izan duten bake eraikuntzaren inguruko bi teoria aztertuko dira: bake liberala eta tokiko ikuspuntua duen bakea. Azterketa hori egiteko, batoren eta besteren ezaugarri nagusiak bilduko dira, eta, ondoren, bakoitzari egindako kritika nagusiak eta horiei emandako erantzunak adieraziko dira. Teoria nagusiak aztertzen diren heinean, genero ikuspegiaren txertaketaren azterketa ere egingo da, lanaren elementu transbertsal bat delako.

2.1 Bake liberala: krisialdian dagoen bake eraikuntza eredua

Bake eraikuntza kontzeptuaren definizioa Nazio Batuen (NB) Idazkari Nagusi izandako Boutros Boutros-Ghalik eman zuen 1992ko “Bakearen Agenda” izeneko dokumentuan: “gatazka berpiztu ez dadin, bakea sendotzeko eta indartzeko balio duten egiturak identifikatzera eta horien jarduera laguntzera bideratuta dagoen egitea da” (Nazio Batuak, 1992: 32). Ekintza horiek gatazka baten amaierako faseetan ematen dira, indarkeria bukatu denean eta nazioarteko agenteak laguntza ematera sartu direnean. Izan ere, honen bidez, gatazkaren sorreran aurkitzen diren zergatiak ezagutu nahi dira, horiei erantzuna emateko, eta gatazka berpiztu ez dadin neurriak hartzen dira. Haatik, gatazka jasan duen estatuaren egonkortzea, berreraikitzea eta instituzio indartsuen eraikuntza bultzatzen da, bakearen eraikuntzarako ezinbesteko baldintzat hartzen direlako.

Aurreko definizioak ez du zehatz mehatz adierazten zer sartzen den bake eraikuntzaren barruan; izan ere, momentuaren arabera, bake eraikuntza ekintzak aldatu dira. Lehenengo, belaunaldiko bake eraikuntzan indar militarri lotutako ekintzak ematen ziren bereziki, su eteteen kontrola eta Estatuaren arteko harremanen kontrola, adibidez (Newman et al., 2009: 7). Bigarren belaunaldian, Gerra Hotzaren ondorengoan, ordea, bake liberala ezartzeko ekintzak sustatu ziren bereziki. Bake liberalak demokrazia, giza eskubideen babesa, legearen inperioa, segurtasuna eta gizarte zibila indartzea bilatzen du (Richmond, 2012: 357). Garai hartan agertu ziren bi egoerek azaldu zuten bake eraikuntzak jasandako aldaketa: alde batetik, liberalismo politiko eta ekonomikoa munduan zeuden arazo nagusiei aurre egiteko bidea zelako ustea nagusitu zelako (Paris, 2010: 340), eta, bestetik, nazioarteko esku-hartzeak gatazka berpizteko arriskua gutxitzen zuelako ideia zabaldu zelako (Felix eta Karlsrud, 2012: 55). XXI. mendean, aurreko ekimenek izandako eraginkortasun mugatuaren aurrean, bakearen inguruan ikuspuntu berriak agertu dira, zeintzuek indarkeria gelditzeaz gain, bestelako ekintzak bultzatzen dituzten (Newman, 2010: 318).

Bake liberalaren arabera, bakea demokrazia liberalaren eta merkatu ekonomiaren bidez baino ezin daiteke lortu. Bi egitura horien ezartzea lortzeko, ekintza sorta bat ezarri behar da, hala, gobernatze egokia lortu dadin gatazkak ukitutako lurraldeetan. Bake eraikuntza ekintza sorta moduan adierazten direnean, prozesu burokratiko baten bidez, bakea lortu daitekeela dirudi, eta, ondorioz, goitik beherako ikuspegia nagusitzen da prozesu hauetan (Felix eta Karlsrud, 2012: 53). Gainera, gatazkaren atzean dauden egoerak jorratu beharrean, ekintza horiek estatuaren egonkortzea baino ez dute bilatzen, egonkortze faltak nazioartean izan dezakeen kaltea ekiditeko (Newman, 2010: 313).

Eredu liberalak demokrazia liberala, merkatu ekonomiaren ezartzea eta estatu modernoetako instituzioen eraikuntza dauka oinarri (Newman et al., 2009: 4). Alde batetik, demokrazia liberalek zenbait estatu egonkortzea lortu duten arren, baldintza horiek errepikatzea ez da nahikoa benetako bakea eraikitzeko (Trantidis, 2022: 14-15). Aitzitik, kasu bakoitzean ematen diren kanpo faktoreen eragina ezberdina izan daiteke, zeinak baldintza berdinek ondorio ezberdinak izatea dakar. Azken batean, kanpo faktoreak oso ugariak dira eta nazioarteko eskuhartzeak jada konplexua den egoera bati konplexutasun handiagoa txertatzen dio. Bestetik, merkatu ekonomiaren ezartzeak ere muga handiak ditu, oinarrian dauden disparekotasunak jorratu beharrean, kasu askotan horiek handitzen dituelako (Paris, 2010: 341). Izan ere, neurri ekonomikoen artean, pribatizazio prozesuak oso garrantzitsuak dira bake eredu horretan, eta, horien ondorioz, gerra garaiko merkatu beltzak jarraitzen du eta muturreko taldeak aberasten dira. Azkenik, mendebaldeko instituzioen artean, garrantzi handikoa da bake eraikuntzan legearen inperioa, baina horrek arazo handiak dakartza baita ere, egitura atzerritar bat delako eta harreman ekonomiko-sozial disfuntzionalak dakartzalako.

Bake liberalaren garapen teorikoa aztertu denean, bertan emakumearen paperaren inguruan ez dela aipamenik egiten ikusi daiteke. Horren aurrean, feminismoek emakumeen papera bake eraikuntzan duen garrantzia aztertu izan dute, eta gatazka eta

bakearen genero rol tradizionalen² papera aztertu dute (Prügl et al., 2021: 7-8). Rol horiek biologiaren eta gizartean eraikitako espektatiba batzuen ondorio baino ez dira, eta feminismoek rol horietan aldaketa bilatzen dute. Gatazka eremuan egitura patriarkalek rol zehatzak ezartzen dizkiete emakume eta gizonei, eta hauek orokortzean feminitate eta maskulinitate ereduak sortzen dira. Gatazka askoren kasuan, maskulinitate menderatzaileak eta feminitate menderatuak gailendu diren arren, beste gatazka eta gatazka ondoko egoera askotan identitate horiek deseraiki eta bestelako identitateak eraiki dira (O'Reilly, 2018: 51). Hala ere, kasu askotan genero disparekotasunak mantendu dira. Beste zenbait kasutan, gerlari izandako emakumeek gatazka ondoren aurretik zituzten rola ez dituzte berriro onartzen, eta horrek genero rolen aldaketa posible dela adierazten du (Prügl et al., 2021: 12).

Genero disparekotasunak bestelako disparekotasunekin batera ematen dira bake eraikuntza prozesuetan, eta horiek guztiek bilatzen den bakean eragin handia daukate, mendekotasunean oinarritutako botere harremanak dakartzatelako (Swaine et al., 2019: 6). Zapalkuntza hori argi ikusten da prozesu horietan nork eta nola parte hartzen duen aztertzen denean (Prügl et al., 2021: 11). Normalean, emakumeak desagerraraziak izan diren taldearen barruan aurkitzen dira, eta parte hartzekotan, bigarren mailako eremuetara mugatzen dira, emakumeak baztertzeko eta erabakietatik kanpo geratzen direlako. Bazterketa hori emakumeen beharrak nola erantzun izan diren aztertzerakoan ere ikusi daiteke, bake eraikuntza prozesua behar praktikoak erantzutera mugatzen delako, ekintza eta interes estrategikoak kontuan hartu gabe (O'Reilly, 2018: 42).

Emakumeen bazterketa handien aurrean, 2000. urtean NBen Segurtasun Kontseiluak bakearen eremuan emakumeen parte hartzea sustatzeko ebazpen bat onartu zuen, 1325(2000) Ebazpena³, hain zuzen. Ebazpen horretan, NBen eremuan aurrera eramaten diren ekintzetan emakumearen parte hartzea sustatu behar dela adierazten da. Ebazpen horren ondoren, ebazpen gehiago onartu dira eremu horretan emakumearen rola sustatzeko (Pierson, 2019: 60). Alde batetik, emakumeen lidergoa eta parte hartzea bake eraikuntzan sustatzen dituzten ebazpenak daude; eta, bestetik, gatazken prebentzioa eta indarkeria sexualaren prebentzioa eta aurre egitea jorratzen dutenak daude. 2000. urtetik aurrera emakumearen papera indartzeko ekintzak asko izan diren arren, ebazpenak kritika handiak jaso ditu.

Hasteko, ebazpenean erabiltzen den hizkuntzak genero rol tradizionalak islatzen ditu (Ibidem: 61). Ebazpenak emakumea bakearekin lotzen du edota biktima rola ezartzen dio. Bakea feminitate eta maskulinitate rol horietan definitzeak, bake eraikuntzan nor eta nola jardun behar duen asko mugatzen du. Gainera, emakumeak biktima moduan baino ez

² Emakumea bakearekin eta gizona indarkeriarekin lotu izan dira (Prügl et al., 2021: 8).

³ Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren 1325(2000) Ebazpena, *women and peace and security*, 2000ko urriaren 31koa.

tratatzeak, bestelako rola izan dituzten emakumeak kanpoan geratzea dakar. Bestalde, ebazpenak ez du gizonak eremu honetan izan behar duen rola definitzen, eta, ondorioz, aurretik egiten zuena egitera mugatzea gerta daiteke, hau da, emakumearen parte hartzea gizonek definitutako prozesuaren arabera izaten jarraitzea ekar dezake.

Aurrekoarekin batera, ebazpenaren eremuan aurrera eraman diren politikak gatazkatik kanpo dauden emakumeek egin dituztela, izaera deskriptiboa baino ez dutela edota benetako aplikaziorik ez dutela ere kritikatu zaio ebazpenari (Tryggestad, 2009: 541). Claire Pierson (2019: 61) bezalako autoreek ebazpenak sustatzen dituen ekintzak eremu zehatzetara mugatzen direla kritikatu dute. Ebazpenak bake eraikuntza liberala eta indarkeria sexuala baino ez dutela jorratzen da egiten zaion beste kritika bat. Azkenik, bake eraikuntzaren eremuan emakumeen parte hartzearen sustapenera mugatzen dira eta ez dute aztertzen zein ekarpen egin ditzaketen eremu horretan emakumeek (Mbabazi et al., 2020: 136-137). Beraz, ebazpenak emakumeak bake eraikuntzaren eremura ekarri dituen arren, ebazpen honen eraginkortasuna oso mugatua izan dela onartu behar da.

Nazio Batuen ebazpenak emakumeen parte hartzea bake eraikuntzaren eremuan garrantzia handikoa dela adierazten du. Hala ere, eremu honetan egindako azterketak erakutsi duenez, ebazpenaren ondorioak beste politikek mugatu dira, eta, horren aurrean, errealitatearen gain eragina izango duten ekintzak ere diseinatu behar dira (Pierson, 2019: 62). Horretarako, aurrera eraman ahal diren plan praktikoa diseinatu behar dira eta eremu politikoa baino hedapen handiagoa duten ekintzak diseinatu ere.

Izan ere, emakumeak erabaki eremutik kanpo geratzen direnean, haien eskubideen bermea eta haiek jasandako indarkeria ez dira bake eraikuntzan kontuan hartzen (O'Reilly, 2018: 42). Gainera, agentzia eredu ezberdinak onartu diren arren, emakumeak kasu askotan zapalkuntza ekintza ezberdinei aurre egin behar diete eta arduren ugaritzeak haien parte hartzea mugatzen du. Emakumeek bestelako ardurak dituztenez, eraldaketa sustatzeko aukeraz baliatzeko zailtasunak dituzte. Are gehiago, komunitateetan aurrera eramandako adiskidetzak prozesuetan parte hartu duten arren, oro har, bake negoziaketetatik kanpo geratu dira (George, 2018a: 1334). Eremu formaletik at ematen diren ekintzetan emakumeak asko izan arren, eremu formalean maskulinitatean oinarritutako taldeak baino ez dira aritzen. Emakumeen ikuspegia beraz, esfera instituzionaletik kanpo geratzen da.

Orokorrean, bake eraikuntza liberaleko prozesu guztiek estatuen egonkortzea lortu dutenez, positibotzat hartu dira (Newman et al., 2009: 4). Hala ere, guztiz eraginkorrak izan direnik ezin da onartu. Eraginkortasun falta hori gatazkaren oinarrian dauden arazoei erantzuna eman ez zaielako gertatu da, eta horrek zenbait kasutan indarkeriaren berpiztea ekarri du, Ruandan eta Angolan, esaterako (Paris, 2010: 341). Hutsune horri aurre egiteko, "tokiko jabetzearen" beharra adierazi dute zenbait autorek, tokiko gizartearen parte hartzea ekarriko zuelakoan (Newman et al., 2009: 4). Tokiko jabetzak prozesuari zilegitasuna gehituko lioke eta eraginkortasuna lortzeko beharrezkoa den behetik gorako ikuspegia ezartzea lortuko luke. Gainera, genero ikuspegia ere txertatu ez dutenez, zenbait

arazo prozesu hauetatik kanpo geratzen dira, emakumeen eremuko arazoak ez direlako kontuan hartu.

2.2 Tokiko eta genero ikuspegia dituen bake eraikuntza eredu berria

Bakea eraikitzeke ekintzak teknokratikoak bilakatu dira, eta tokiko gizartearekiko errespeturik ez dute erakusten. Aurrekoa eremu horretan dagoen dikotomiaren ondorio da, nazioarteko ezagutza eta tokiko bizipenak oso ezberdinak direlako. Hortaz, tokiko ezaugarriak barneratzen dituen ekimenak beharrezkoak dira (Trantidis, 2022: 7). Aldaketa horren beharra gauza berria ez den arren, gaur egun, nazioarteak tokiko ikuspegiaren txertatzearen beharra antzeman duenez, ikuspuntu horren garrantzia handitu du (Mac Ginty eta Richmond, 2013: 773). Bake eraikuntza aztertzen denean, tokiko ezaugarriak era oso mugatua barneratu direla ikusi daiteke, horiek era abstraktuan barneratzen baitira. Izan ere, tokiko ezagutza nazioartekoaren mailan ez dagoelako gertatzen da, “adituak” kulturaren jabe diren gizon txuri europarrak izan direlako. Nolanahi ere, azken aldian bestelako ezagutzak indarra irabazten ari dira eta horrek bestelako ikuspegiak txertatzea ekarri du. Antzeko egoera bizi dute emakumeek, haien egoera ere kasu askotan ezkututzen delako, aurrerago aztertuko denez.

Aurretik azertu denez, emakumeen parte hartzea bake eraikuntzaren eremuan oso mugatua izan da. Gatazka bizi duten gizarteetan emakumeak eremu politikoan parte hartzea era naturalean ez delako ikusten, eta, horregatik, ez da haien parte hartzea sustatzen bake eraikuntza prozesuetan (Paffenholz et al., 2016: 18). Beraz, emakumeek beraiek haien parte hartzea sustatu behar izan dute, zenbaitetan nazioarteko laguntzarekin batera. Dena dela, parte hartzea posible izan denean ere, genero ikuspegiaren barneratzea ez da benetan lortu. Gainera, emakumeen parte hartzea sustatzeko politikak aurrera eramatean, hauetan genero ikuspuntua ez barneratzeak, politikak eraginik gabe uste ditu (George, 2018a: 1347-1348). Ez hori bakarrik, horrekin batera bilatzen ziren ondorioa ez diren beste ondorioak eman ahal dira, zeintzuek emakumeak ere kaltetu ditzaketan. Izan ere, emakumeen parte hartzea beharrezkoa da genero ikuspegia txertatzeko eta hori bermatzeko emakumeen ahalduntze ekonomiko, sozial eta politikoa beharrezkoa da. Beraz, emakumeen parte hartzea eta genero ikuspegiaren txertatzea batera eman behar dira benetan eraginkorrak izan daitezen.

Emakumeek gatazkan zehar bizi dutenaren ondorioz, bestelako bake eraikuntza prozesuetan falta izan diren egoerak eta ikuspuntuak barneratzeko aukera eman du emakumeen parte hartzeak. Hasteko, emakumeak gehienetan aktibismo zibilean aritzen dira gatazka garaian, eta horrek indarkeria ez den bestelako bideen alde egiten dutela bake eraikuntzarako adierazten du (Mbabazi et al., 2020: 136). Izan ere, emakumeek bide alternatiboak proposatzeaz gain, bake eraikuntzan elementu berriak barneratzen dituzte; zaintza edo interkonektibitatea, esaterako. Emakumeen eragina hiru jardueretan ikusi da, bereziki: bake prozesuen jarraipena eta akordioen sinadura sustatzen, emakumeen parte hartzea sustatzen eta genero ikuspegiaren txertaketan (Paffenholtz et al., 2016: 25). Era berean, emakumeek prozesuan funtzio ezberdinak izan dituenean, akordioak denbora

luzeagoa iraun du. Genero ikuspegiaren barneratzeak justizia soziala, berdintasuna eta giza eskubideen bermea bake eraikuntzan barneratzea ahalbidetu du (Swaine et al., 2019: 7). Beraz, bake iraunkorra lortzeko genero ikuspegia barneratu eta patriarkatuarekin amaitu behar da, harreman hierarkikorik eta indarkeriarik ez duen gizartea eraikitzeko.

Horren aurrean, tokiko ikuspegia barneratzeko bide alternatiboak eraikitzen hasi dira. Bide horiek, orokorrean, tokiko populazioaren agentziaren garrantzia azpimarratzen dute, eta bereziki isilduak izan diren pertsonen agentzia sustatzeko neurriak barneratzen ditu (Randazzo, 2016: 1353). Agentzia horren bidez, nazioarteko eta tokiko elementuak harremanetan jarriko dira, biak maila berean arituko direlarik. Horrela, egitura liberala gaituko da eta tokiko agenteak indartuko dira; era horretan, bakea tokiko kontzeptuaren arabera eraikiko da. Horrenbestez, gaur egun nagusitzen den nazioartekoaren eta tokikoaren arteko dikotomia gaituko da. Era berean, prozesuek izan ohi duten eredu lineala gaituko da, gatazka ondoko egoera konplexu eta aldakorraren aurrean aritzea erraztuko duena. Aurrekoak, bestelako ikuspuntuen barneratzea beharrezkoa dela argi erakusten du (Leonardsson eta Rudd, 2015: 832). Ikuspuntu berri horiek ez dute bakarrik tokiko agentzia hori eraikitzea ahalbidetuko, horrekin batera, gizartearen oinarrian dauden arazoak konpontzeko aukera emango du (Brigg eta George, 2020: 411, 416-417). Era horretan tokiko beharrak erantzungo dira, eta ez da aurreko bake liberalak bilatzen zuen estatuaren berreraikuntza sustatuko. Ikuspegi horren bidez, egoera makroa ezagutu ahal da, eta egoera mikroa konpontzera bideratzen diren ekintzak baino, egoera oso kontuan hartzen duten jarduerak diseinatu ahal dira. Beraz, tokiko ikuspuntuak bake eraikuntzan tokiko eragileak barneratzeari erreferentzia egiten dio, nazioarteak sustatuta edo ez (Mac Ginty eta Richmond, 2013: 769). Era horretan, aurretik beti lortzen ez zen zilegitasun lortu ahalko da.

Dena dela, aurrekoarekin batera, bake eraikuntza prozesuan ordezkari moduan aritzeko nortzuk aukeratzen diren ere aztertu behar da, beti ez direlako tokiko gizartearen ordezkari zilegi edo egokiak bertan aritzen (Van Leeuwen et al., 2020: 282). Dilema horizontalaren ondorio da aurrekoa, hau da, testuinguru zehatz bakoitzean nork parte hartu duen erabaki behar da, eta normalean erabaki hori hartzean tokiko eliteen alde egiten da (Leonardsson eta Rudd, 2015: 829-830). Izan ere, tokikoa zer den, jada ezin daiteke irizpide geografikoaren arabera definitu; horren ordez, irizpide kulturala kontuan hartu behar da (Van Leeuwen et al, 2020: 283).

Lise Phillipsenen (2022: 1933-1934) arabera, tokiko kultura hiru elementuren arabera definitzen da: gizarte zibila, tokiko larritasunak eta aukerak, eta legatu historikoa. Gizarte zibila baztertua edo zapaldua izan den gizarteari erreferentzia egiten dio, hezkuntzaren bidez indartu behar dena. Tokiko larritasunek eta aukerek eliteen ikuspegiaren arabera errealitatea baino, tokiko gizarte osoaren ikuspegiaren arabera konplexutasun handiko errealitatea eraikitzeari erreferentzia egiten dio. Azkenik, legatu historikoak bake eraikuntza prozesuetan ikasten denari erreferentzia egiten dio; hau da, normalean parte hartu ez duten gizarte taldeen ordezkariak irakasten dutena. Hortaz, tokiko ikuspegia ez da eremu guztietan berdina izango eta askotan mendebaldeko pentsamenduaren oso

ezberdina da. Horren ondorioz, mendebaldean normalean aurkitzen diren egiturak baino beste batzuk erabili behar dira prozesu horietan benetan tokiko egiturekin batera aritzeko.

Tokiko ikuspegiaren barneratzeak elkarrizketa horizontala ahalbidetuko du, gizartearen oinarrian dauden arazoei erantzuna ematea ahalbidetzen duelako eta, ondorioz, zilegitasuna gehituko dio prozesuari (Rodríguez eta Rosen, 2022: 91). Haatik, gaur egun izaera horretako jarduerak aztertzen direnean, gizarte zibilaren agentzia sustatu baino, estatuaren boterea handitzen dutela kritikatzeko da. Hortaz, gizartearen ikuspegiaren araberrako bakea eraikitzeke agenda bat osatu behar da. Agendak eguneroko bizitza oinarri izan behar du, eta gizartean dauden etnia eta erlijio ezberdineko taldeak batera jardun behar dute “bestearen” kontzeptua gainditzeko (Mac Ginty eta Richmond, 2013: 769). Era berean, masa kritikoa osatu behar da, bake akordioa iraunkorra izan dadin (VanLeeuwen et al., 2020: 289).

Tokiko ikuspuntuarekin batera, genero ikuspegia ere barneratu behar da, emakumearen eremuan ematen diren arazo asko bake eraikuntzaren prozesutik kanpo geratu ez daitezkeen (George, 2018b: 268-269). Genero ikuspegiaren barneratzea eman dadin, bake eraikuntzaren eremu formalean zein informalean aurrera eramaten diren ekintzak aztertu behar dira. Bake eraikuntzarako ekimen informalak, esfera formaletik kanpo ematen diren ekintzak dira. Ekintza horietan partehartzaile ez elitistak aritzea bilatzen da, hau da, herritar arruntek bakearen eraikuntzan aritzea bilatzen dute, horiek bake eraikuntzan eragin handia izan dezaketelako. Emakumeen eta gazteen egoera hobetu daiteke era horretan, talde horiek ahaldundu daitezkeelako. Ekimen formalek bakea eraiki dezaketen arren, gizartean dauden beharrak ez ditu erantzuten, estatuaren berreraikuntzan zentratzen direlako. Era horretan, tokiko ikuspegiaren eta genero ikuspegiaren txertaketaren bidez, behar horiek ezagutu ahal dira.

Tokiko ikuspegiaren bidez, gizartean dauden talde bakoitzak duen bakearen kontzeptua ezagutu ahal dira, eta genero ikuspegia ere kontuan hartzen denean, emakumeena ezagutu ahal da. Emakumeek, bake eraikuntzan aritu direnean, bakea indarkeria falta baino zerbait gehiago dela adierazi dute (Bulduk et al., 2022: 60-61). Izan ere, emakumeek aurrekoarekin batera, harreman sozialen garrantzia azpimarratzen dute bakearen eraikuntzan. Beraz, tokiko ikuspuntua genero ikuspegiarekin batera aritu behar dira, eta, horretarako, gizarte zibilaren ekimenak kontuan hartu behar dira. Nazioarteko ekimenak oraindik garrantzia handia daukatenez, bake eraikuntzan, gizarte zibileko ekintza horien arabera hasi dira prozesuak diseinatzen tokiko ikuspegia barneratzeko.

Talde horietan emakumeak eta gazteak barneratzea beharrezkoa da, beste bake eraikuntza prozesuetan jorratu ez diren egoerak eta arazoak barneratzea posible izan dadin. Emakumeek eta gazteek gatazketan egoera kaltegarrienak bizi izan ohi dituztenez, egoera eta arazo berriak azaleratu ditzakete. Izan ere, emakumeek eta gizonek gatazkan zehar bizitzen dituzten egoerak oso ezberdinak dira. Esperientzia berezi horiek aurretik aipatutako bake kontzeptuan eragiteaz gain, agente bakoitzaren segurtasun kontzeptuan ere eragiten dute (George, 2018a: 1347). Emakumeek iraunkortasun kutsu handiagoa

duten kontzeptuak eraiki dituzten bake eraikuntzaren eremuan eta horien adibide dira bakea eta segurtasuna. Beraz, emakumeen parte hartzearekin iraunkortasun handiagoa duen bakea eraikitze gaitasuna handituko da.

Emakumeak ez dira bakarrik biktima gatazkan, horrekin batera borrokalari rolak eta bestelakoak ere bete izan dituzte (McNamee, 2021: 388). Gatazkan rol oso ezberdinak izan dituzten arren, emakumeek bake eraikuntza prozesuetan oso parte hartze mugatua izan dute. Emakumeen jarduerak, kasu gehienetan eremu informalerara mugatu dira eta bertan garrantzia handikoak izan diren ekintzak aurrera eramane dituzte, izan ere, gizonen aurrera eramane dituzten funtzioen berdinekoak edo garrantzia berdinekoak bete dituzte. Hala ere, gizarte patriarkaletan ematen diren botere harremanek eta genero rolek, emakumeak gizonen azpitik mantendu dute. Horrekin batera, beste kasu batzuetan bake eraikuntzak genero rolak aldatzeko bide moduan ez dira onartu, aldaketa horiek jokaera tradizionalarekin talka egiten zutelako (Mueller-Hirth, 2019: 16). Gainera, gizarte eredu patriarkalak mantentzen diren bitartean, emakumearen aurkako indarkeria mantenduko da eta gizonen eta emakumeen arteko disparekotasunak mantendu edo handituko dira (Ibidem: 26).

Emakumeen parte hartzea, tokiko ikuspegi handiena duten ekintzetan eman da, gizonen bete ez dituzten funtzioak bete dituztelako (McNamee, 2021: 388). Haien funtzioek ere behar ezberdinak izatearen ondorio da, bakoitzak bake eraikuntzarako behar ezberdinak adierazten dituelako (Bulduk et al., 2022: 61). Gizonen lan merkatuaren indartzea eskatzen dute, baina emakumeek hori baino horretan genero ikuspegia txertatzea eskatzen dute. Genero ikuspegiak bakoitzaren beharrak ezagutzeaz gain, gizartean dauden rol ezberdinak, botere harremanak eta espektatibak ere ezagutzea ahalbidetzen du. Era horretan, genero ulermen bitarra gainditu ahal da, eta generoaren ulermen ezberdina duten politikak diseinatzea lortuko da.

Aurreko paragrafoetan ikusi denez, bake iraunkorra eraiki ahal izateko, tokiko ikuspegia eta genero ikuspegia prozesu osoan zehar barneratu behar dira, eta, horretarako, ikuspegi estatuzentrikoa alde batera utzi (Jackson eta Albrecht, 2018:40). Izan ere, tokiko gizartea ordezkatua izan ez denean, prozesuaren aurka agertu dira eta bake iraunkorraren eraikuntza ez da lortu. Bestalde, prozesu horietan tokiko gizartearen parte hartzerik gabe, gizartean dauden aldaketa etengabeak ezingo dira ezagutu, eta are gutxiago aldaketa horietara prozesua egokitu. Helburu horiek lortzeko erabili izan den eredu hibridazioarena izan da, eta horretan, nazioarteko egiturak, tokiko tradizioarekin batera aritzen dira (Johnson eta Hutchinson, 2012: 40).

Bakea eraikitze prozesu hibridoetan atzerriko eta tokiko agenteak, arauak, interesak, egiturak eta ekintzak batera aritzen dira gatazka ondoren egonkortasuna eta bakea lortzeko (Ibidem: 41). Hibridazioak nazioartean ez zilegi moduan ikusten diren elementuen txertaketa dakarren arren, prozesuari sarbidea, gardentasuna eta aurreikusteko gaitasuna txertatzen die. Tokiko ikuspegia barneratzeko, maila guztietako gizartea ordezkatu behar da prozesuaren diseinuan, eta nazioarteko zein tokiko

elementuen errespetua bermatzen duten plataformak eraiki, eta era horretan, prozesuaren zilegitasuna bermatu.

Orokorrean, gatazka armatua “estatu porrotarekin” lotzen da, baina hibridazioak bestelako elementuak gehitu dizkio gatazkaren analisiari, tokiko ikuspegiak aurretik kontuan hartzen ez ziren elementu kulturalak eta baloreak analisisian barneratu dituelako. Eraldaketa hori lortzeko, hiru hibridazio eman behar dira: egiturazkoa, publikoa eta ezkutukoa (Visoka, 2012: 26-30). Lehenengoa, tokiko egiturak nazioartekoekin batera aritzea da; bigarrena, prozesuan tokiko taldeen parte hartzearen bidez lortzen da; eta, azkenak, prozesutik kanpo dauden, baina prozesuan eragina duten ekintzei erreferentzia egiten die. Hiru hibridazio horien bidez lortuko da tokiko ikuspegiaren barneratzea.

Beraz, hibridazioa nazioartetik datozen egitura unibertsalak gainditzeko bidetzat hartzen da. Horri esker, tokiko gizarteak nazioarteko esku-hartzeari aurre egiteko aukera izango du eta politika neoliberalen ondoriozko disparekotasunak ez dira emango. Era berean, estatuaren ikuspegia abiapuntu hartuta egiten diren analisiak alde batera utziko dira, eta bestelako analisisien alde egingo da. Aurrerago aztertuko denez, ikuspegi horrek nazioartekoaren eta tokikoaren ulermen bitarra gaindituko du, eta biak batera jardutea ahalbidetuko du (Mac Ginty, 2010: 397). Hibridazioan, nazioarteko agenteek prozesuaren diseinua egiteaz gain, horren betetzea bermatu dezake indarrezko zein limurtze tresnak erabiliz, eta tokiko gizarteak ekintza autonomia sustatu dezake, beste izaerako ekintzen eta prozesu alternatiboen bidez.

Tokiko dimentsioaren barruan zein elementu dauden ere kontuz aztertu behar da hibridazioan. Tokikoaren eremuan jada aztertutako arazoak emateaz gain, hibridazioaren kasuan, tokiko gizarteak bizi izan duen aurrehibridazioa ere aztertu behar da. Aurrehibridazioak bake eraikuntza prozesuaren aurretik jada tokiko gizarteak nazioartetik bizi izan duen hibridazio prozesuari erreferentzia egiten dio (Poplewell, 2019: 131). Eragin horien ondorioz, lurralde bakoitzean dauden egoerak ezberdinak dira, eta, horregatik, prozesuan parte hartzen dutenen zilegitasuna era ezberdinean antzematen da (Johnson eta Hutchison, 2012: 42). Beraz zilegitasun politikoaren eraikuntzan hibridazioaren azterketak garrantzia handia dauka.

Atal honen lehenengo azpiatalean, aurreko mendearen amaieran bake eraikuntza prozesuek bizitako porroten ondorioz, prozesuak aldatzeko beharra aztertu da. Beharrezkoak ziren aldaketa horiek egiteko akademiaren zati batek tokiko ikuspegiaren txertaketaren alde egin zuen. Ikuspegi horrek tokiko kulturaren, balioen eta beharren araberrako bake prozesu bat diseinatu ahalko zen. Horrek gatazkaren sorrera ekarri zuten egoerak aldatzea ahalbidetuko luke, bake iraunkorragoa eraikitzeko. Tokiko ikuspegiaren txertatzea lortzeko hibridazioa izan da garatu den bide nagusia. Hibridazioak nazioarteko eta tokiko elementuak batera emateari erreferentzia egiten diote, nazioarteko baliabideak, tokiko beharretara egokitzeko aukerari, hain zuzen. Tokiko ikuspegiaren bidez, ez da bakarrik tokiko beharrei erantzuna ematea lortuko, horrekin batera, emakumeek bake

eraikuntzan egindako lana prozesu formaletan barneratu ahalko da eta bake iraunkorra eraikitzekeo beharrezkoa den genero ikuspegia gehituko da.

2.3 Bakearen ikuspegi bakoitzari kritikak eta erantzunak

Atal honetan aurrekoetan aztertu diren bakearen inguruko bi ikuspuntu nagusiei egindako kritika nagusiak aztertuko dira. Bake liberalaren eremuan jada hutsune asko ikusi direnez, atalarekin bukatzeko aurretik aipatu ez diren baina interesgarriak diren bi kritika aipatuko dira: eredu kolonialen jarraipena dela eta indarraren erabilera bultzatzen duela. Tokiko ikuspegiari egiten zaizkion kritika gehiago aztertuko dira, lan honetan ikuspuntu honen inguruan arituko garelako. Hasteko, tokiko ikuspegiaren ereduetan tokiko eta nazioarteko tipoen planteamenduari, hauen artean ezartzen diren harremanei eta agente bakoitzaren definizioari egindako kritikak aztertuko dira. Ondoren, tokiko ikuspegia barneratzen duten ekintzei egindako kritikak jorratuko dira eta emantzipazioaren inguruko kritiketan sakonduko da. Azkenik, tokiko ikuspuntuak muga epistemologiko nabarmena dutela dioten kritikak jorratuko dira.

Tokiko ikuspegiaren aldeko teoriagile nagusien hitzak aztertzen direnean, nazioarteko eta tokiko agenteen eredu idealak erabiltzen dituztela kritikatu diete bestelako korronteen teorigileak (Heathershaw, 2013: 277). Alde batetik, tokiko-indigena tipoa dago eta, bestetik, nazioarte-liberala. Horrek bi agente ezberdin eta aurkakoak direlako ideia mantentzea dakar. Kritika horren aurrean, erdiko hirugarren agente bat ere badagoela diote ikuspuntu berriaren aldekoek. Era berean, eredu horietaz baliatuta estatuek haien boterea hedatu dutela kritikatu zaie (Paffenholz, 2015: 862). Nolanahi ere, tokiko ikuspegiaren alde egiten dutenek bien arteko dinamikek eta elkargunek bata bestearen kontrola posible egiten dutela babesten dute, aurretik azaldu den moduan. Hibridazioak nazioartetik datozen prozesuen mugak gainditzea ahalbidetzen du eta tokiko beharrei erantzun egokia ematea posible egin du (Girelli, 2017a: 186). Izan ere, nazioarteko egiturak estatuko mailakoak dira; ondorioz, toki bakoitzeko egoera berezietara egokitzeko zailtasunak dituzte eta zailtasun hori tokiko ikuspegiaren bidez gainditu ahal da.

Bien arteko dinamika badaudela aztertu izan den arren, bake liberalaren aldeko doktrinaren barruan, tokiko ikuspegiaren teorietan nazioarteko eta tokiko agenteen arteko dikotomia mantentzen dela adierazi dute adituek (Heathershaw, 2013: 279-280). Beraz, bi agenteak batera ematea ezinezkoa dela diote (Sabaratnam, 2013: 268). Horren aurrean, Rowan Popplewellen hitzetan (2019: 132), nazioarteko eta tokikoaren arteko mugak ez dira argiak eta, ondorioz, egitura bakoitza ezberdintzea ez da posible. Azken batean, talde bakoitzak bestearen ezaugarri batzuk barneratu ditu, hau da, bi taldeen arteko konbinazioak beti eman izan dira eta hori aurrehibridazioaren ondorio da (Ibídem: 133; Mac Ginty, 2010: 398). Horrela nazioartearen eta tokikoaren arteko konbinazioak amaigabeak direla ukazina da.

Ondoren, nazioarteko eta tokikoaren barnean zer barneratzen den inguruan ere kritikak eman izan dira. Tokikoa eta nazioartekoa aztertzen direnean, talde bakoitzaren barnean errealitate bakar bat balira bezala definitzen dira eta, ordea, horietan interes ezberdinak

daudela kontuan hartu behar da (Jackson eta Albrecht, 2018: 45-46). Thania Paffenholz autorearen arabera (2015: 864), tokiko errealitatea bakar bat balitz moduan definitzeak, tokiko eliteek gizarte osoa ordezkatzeko dakar. Nazioarteko agenteen kasuan horien parte hartzerako arrazoiak ere aztertu behar dira, agente bakoitzaren arrazoiak eta interesak ezberdinak direlako. Izan ere, interes eta arrazoi horiek kontuan ez hartzeak prozesuaren eraginkortasuna ere zalantzan jarri dezake. Horrela, gatazkaren eta bake eraikuntzaren atzean dauden arrazoi eta interes guztiak aztertu behar dira prozesuaren eraginkortasuna bermatzeko. Hibridazioaren bidez, aurrekoa posible da (Jackson eta Albrecht, 2018: 45-46). Tokiko ikuspegiaren bidez, agente bakoitzak bere interesak ordezkatu ahalko ditu eta ez da tokiko autoritatearen eskuetan edo nazioarteko interesen eskuetan utziko norik parte hartuko duen eta zein ekintza aurrera eramango diren erabakitzea (Kochanski, 2020: 38).

Meera Sabaratnam autoreak (2013: 269-270) tokiko ikuspegiaren eremuan zein ekintza sartu behar diren ez dagoela zehaztuta kritikatu du. Horren harira, eredu horrek bake liberalaren alternatibak eraikitzeke gaitasuna ez dutela ere kritikatu da. Alternatiba horiek eredu liberalen esferan ematen direla eta horrek ereduaren aldaketak ez dakartzala ere adierazi dute bake liberalaren aldekoek (Paris, 2010: 339). Horren aurrean, Oliver Richmond autoreak (2022: 135), tokiko ikuspegiak tokiko gizartearen erdian jartzen duela eta botere harremanak aldatzen dituen ereduak eraikitzen dituztela esan du. Era berean, bake liberala gaintzen dituzten ekintzak proposatu dituzte: behetik gorako ikuspegia duten ekimenak, eraldaketa justiziaren sustapena eta pluralismo legalaren babesa (Kochanski, 2020: 29). Eredu liberala guztiz gaintu ez den arren, alternatibak eraikitzea lortu da, zeintzuek bakerako bestelako ereduentzako oinarriak zehaztu dituzte.

Eredu berri horietan, tokiko gizartearen emantzipazioa sustatu nahi da (Richmond, 2022: 125), baina toki bakoitzeko agenteen interesak ezberdinak direnez, emantzipazio definizio bakarra ez da lortu (Rodríguez eta Rosen, 2022: 93-94). Emantzipazioa definitzeko bake eraikuntza prozesuan parte hartzen duten agenteak kontuan hartu behar dira eta, ondorioz, emantzipaziorako marko bakarra ezin da osatu. Horrenbestez, eredu normatibo baten faltak, emantzipaziorako bidea ezin diseinatzea dakar. Edonola ere, Oliver Richmond (2022: 141) emantzipazioa justizia globalaren bidez lortuko dela adierazi du, nahiz eta eredu bakarra diseinatzeko zailtasunak daudela ere onartu. Haren arabera, justizia globalak bake iraunkorraren elementuen identifikazioa ahalbidetuko du, eta botere harreman zapaltzaileak eraldatuko ditu. Are gehiago, emantzipazioa eredu iraultzaileekin lotu da, zeinak emantzipazioa egoera berezi bakoitzera egokitzea ahalbidetzen duen (Pogodda, 2020: 359). Horrenbestez, justizia globala eta soziala emantzipaziorako beharrezkoak diren gutxienezko elementu moduan zehaztu dira.

Tokiko bakeari egindako kritikekin bukatzeko, eredu horrek kutsu eurozentrismoa duela kritikatu zaio. Kritika horien arabera, kutsu horrek tokiko bake horren eremua asko mugatzen du (Sabaratnam, 2013: 260). Hala ere, tokiko bakearen aldeko autoreek gaur egun prozesuetan parte hartzen duten agenteak ugaritu direla adierazi dute (Chandler, 2022: 345). Agente berri horiek tokiko ezagutzaren garrantzia gero eta handiagoa izatearen ondorio da eta, ondorioz, ikuspegi eta ezagutza ezberdina duten taldeen

ordezkariak parte hartzea lortu da. Ezagutza berri horrek bestelako eredu epistemologikoak eta emantzipaziorako bide berriak eraikitzea ahalbidetu du. Izan ere, eurozentrismoa gainditzea lortu ez den arren, ezagutza berriak txertatzea lortu da.

Bake liberalaren eremuko prozesuei ere antzeko kritika bat egin zaio: eredu liberalen jarraipena izatea. Eredu liberal horiek egitura kolonialen jarraipena dakarte, harreman globalen izaera hierarkikoa mantentzea dakartelako (Richmond, 2022: 136). Roland Parisek (2010: 350) bake liberalaren babesle denak, izaera horretako kritikak ereduaren zilegitasuna zalantzan jartzeko helburua dutela adierazi du, eta, era berean, harreman kolonial horien jarraipena ukatzen du. Edonola ere, zenbait ekintzetan kutsu inperialista badagoela onartu du, baina horren aurrean ekintza guztiei izaera inperialista bera txertatzea baino, ekintza bakoitzaren izaera inperialista ezagutu behar dela adierazi du. Horren aurrean, nazioarteak boterea eta autoritatea mantentzen duela eredu liberalak adierazi da, eta horrek ereduaren izaera inperialista argi usten duela gehitu ere (Richmond, 2012: 371). Gainera, eredu liberala eredu egokiena delako uste daukanez atzean, bestelako alternatibak eraikitzea ez du ahalbidetzen. Liberalismoaren egokitasuna zalantzan ez jartzeak eta tokiko ikuspuntua garatzen ez usteak, joera kolonialen jarraipenadakar.

Horrekin batera, tokiko alternatibek proposatzen dituzten ekintza baketsuak ez onartzearen eta indarraren alde egitearen kritika dago (Bendaña, 2005: 6-7). Indarraren alde egite horrek, gatazkaren oinarrian dauden egoerak ezagutzea zaildu egiten du, eta estatu eraikuntzaren eremura mugatzen du bake eraikuntza. Horren aurrean, liberalismoaren aldekoek, beti indarra erabili ez dela aipatzen dute (Paris, 2010: 347). Hala ere, prozesu horietan sekuritizazio prozesua eman dela ukaezina da (Newman, 2010: 306). Sekuritizazioak bakearen eraikuntzarako estatuen egonkortzea beharrezko moduan aurkeztu du, eta kanpoan geratzen dira justizia soziala eta gizartearen eraldaketa bezalako kontzeptuak. Hau da, tokiko ikuspegiaren oinarrian dauden elementu asko kanpoan geratzen dira bake liberalaren ereduaren.

Azpiatal honetan bake eraikuntzaren oinarrian dauden bi teoria nagusi aztertu dira eta bietan hutsuneak daudela ikusi da. Hala ere, hutsune horiek gainditzeko proposamenak badaudela ere aztertu da. Azterketa hori bukatzerakoan, tokiko ikuspegiaren txertaketak bake iraunkorra eraikitzeak aukera handiagoak dituela ikusi da, teoria honek lekuko baldintza eta egoeretara egokitzeko bideak barneratu dituelako.

3. Sierra Leonako gatazka armatua eta horren ondoko bake eraikuntza prozesua

Behin bake eraikuntzaren azalpen teorikoa egin dela, atal honetan zehar, atal praktikokoan egingo den analisisa ulertzeko ezagutu behar diren bi egoera azalduko dira. Alde batetik, Sierra Leonako gerra zibila, eta, bestetik, herrialde hartan aurrera eramandako bake eraikuntza prozesua eta horretan emandako jarduerak eta dinamikak.

3.1 Sierra Leonako gerra zibilaren garapena

Sierra Leonako gerra zibila ulertzeko, aurretik Liberiako gerra zibila aipatu behar da, azken horrek izan zuen eragina handia izan zelako alboko herrialdean (Richards, 1996: 2). Izan ere, Liberiako gatazka 1989an Liberiako Fronte Patriotiko Nazionalaren burua zen Samuel Kanyon Doek aurrera eramandako estatu kolpearekin hasi zen, eta bertan emandako dinamika asko Sierra Leonan errepikatu ziren; umeak gerlari moduan erabiltzea, bortizkeria maila, emakumeen bortxaketa masiboak eta armada irregularren osaera, esaterako. Bien arteko lotura ere handia izan zen, Sierra Leonan aktore izan zen Fronte Iraultzaile Bateratua (RUF, bere siglak ingelesez) taldeko kide asko Liberian ere aritu zirelako; izan ere, talde horren sorrera Liberian eman zen. Sierra Leonako gerra zibila 1991eko martxoan hasi zen, RUFeko kideek Liberiaren eta Sierra Leonaren arteko mugan erasoak aurrera eraman zituztenean. Momentu hartan RUFak kide gutxi zituen eta horietako asko Liberiako eta Burkina Fasoko mertzenarioak ziren (Ibídem: 5).

Ume gudariak kontzeptua gatazka horren ezaugarrietako bat izan zen, bederatzi urteetarainoko umeak ere erabili zituzten gatazkan aritzeko (Zack-Williams, 1999: 154). Umeek indarkeriaren sozializazioa bizi ondoren izaera askotako funtzio militarrek bete zituzten. Sozializazio garai horietan umeei indarkeria handiko ekintzak egitera behartzen zituzten. Umeen erabilera gatazkako bi alderdiek egin zuten horiek ekintza horietan parte hartzera behartuak izan ziren indarkeriaren bidez (Ibídem, 2013: 86). Gainera, umeak ez ziren bakarrik ekintza militarrek aurrera eramateko erabili; horretaz gain, diamanteak eskuratzeko ere erabiltzen zituzten. Umeak oso erabilgarriak ziren helduekiko zuten errespetuagatik eta aginduak zorroztasunez betetzen zituztelako. Horrekin batera, erantzukizunik ez zutenez, haien heriotzak ez zuen horrenbesteko garrantzirik eta arrisku handiko ekintzak aurrera eraman zitzaizkien. Gainera, haien ezaugarri fisikoek zenbait ekintza aurrera eramateko aproposak egiten zituen: inteligentzia biltzeko eta espioi gisa aritzeko (Ibídem, 1999: 152).

Aurreko guztia batez ere mutilekin eman zen, baina neskatxoak ere erabili zituzten, beste hainbat funtzio bete zitezkeen. Izan ere, gatazkak aritu ziren 6.774 umeen artean, 513 neskek ziren (Ibídem, 2013: 86). Gudari ez izandako baina alderdiek bahitutako neska kopurua askoz handiagoa izan zen. Izan ere, neskek gudariekin ezkondu zitezkeen bahitzen zituzten. Gainera, behin gatazka bukatuta, neskatoak gudari ez izateak birgizarteratze programetatik kanpo utzi zituen eta, horrela, gerra ondoren, objektu sexualak izaten jarraitu zuten. Neskak biktima handiak izan baziren ere, emakumeek ere egoera latzak bizi zituzten, azken aldiko guda gehienetan gertatzen den bezala, bortxaketa arma moduan ere erabili zutelako Sierra Leonan.

Bortxaketak ohikoak izan ziren gerra zibil osoan zehar, baina 1990ko hamarkadaren amaieran pilatu ziren gehien bat (Cohen, 2013a: 396). Izan ere, momentu hartan bortxaketen %70a eman ziren, gehiengoa RUFeko kideek egindakoak. Beste arrazoien artean, hori taldeko bortxaketak soldaduen arteko lehialtasuna sustatzen zuelako gertatu zen. Kideek ez zuten aurreko harremanik eta era horretan zintzotasuna lortu nahi zuten

taldeko buruek. Aurrekoarekin batera, ekintza horiek umeek bizitako bahiketaren ondorioak gainditzea zuten helburu.

Azpiatal honetan zehar bildutako dinamikek gatazkaren indarkeria maila adierazten dute, eta baita, zelan indarkeria horren hartzaile nagusiak umeak eta emakumeak izan ziren ere. Umeak indarkeriaren parte bilakatzera behartuak ziren eta horretarako haien familia kideen aurka aritzera behartuak ziren (Zack-Williams, 1999: 154). Emakumeak objektu sexual bilakatzearekin batera indarkeria ekintzak ere jasan zituzten: anputazioak, bahiketak eta abar. Ekintza horiek jarraipen handiena izan zuten bake eraikuntzan, hurrengo ataletan berreskuratuko dira.

Gatazkak 11 urte iraun bazituen ere, 1996an, bakerako lehenengo prozesu bat eman zen (Kaldor eta Vicent, 2006: 6). Prozesu horri esker, 1996an Abidjaneko Akordioa osatu zen. Izan ere, Akordioa aurrera atera zedin bete behar ziren konpromisuak bete ez zirenez, akordioa ez zen indarrean sartu. Hemen jada bake eraikuntza prozesuaren aurrekariak aurkitu ditzakegu. Hala ere, indarkeriak jarraitu zuenez, urte horretan nazioarteko erakundeak gatazkan sartu ziren, ECOMOG⁴, esaterako. Momentu horretan Fronte Iraultzaile Armatuaren Kontseiluaren Gobernu demokratikoa ezarri ondoren, Lomé Bake Akordioaren edukia inguruko negoziaketak hasi ziren. Akordioa 1999ko uztailaren 7an sinatu zen, eta RUFeko kideak, Gobernuaren kideekin batera, haien artean botere politikoa, ekonomikoa eta militarra banatutako zutela adostu zuten (Dupuy eta Binningsbø, 2008: 2).

Akordioa sinatu bazen ere, indarkeria ez zen gelditu. RUFak botere handia irabazi zuenez, gatazkarekin jarraitzeko behar zituzten baliabideak eskuratzeko bideei sarbidea erraztu zitzaion (Ibídem). Gatazkaren jarraipenerako bideak irabaztearekin batera, RUFeko kideek lortu zituzten Gobernuko postuak garrantzia txikikoak zirenez, akordioa betetzeko arrazoirik ez zuten. Horren ondorioz, Bake Akordioa ez zen eraginkorra izan hasieratik eta nazioarteko parte hartze handiagoa behar izan zuten, UNAMSILen sorreraren bidez, akordioa benetan indarrean sartu zedin. RUFa horren aurrean, talde horretako agenteen aurka aritu zen (Kaldor eta Vicent, 2006: 7). RUFak akordio honen bidez zilegitasun handia lortu zuen eta horrek gatazkarekin jarraitzeko bideak eskuratzeko aukera eman zion (Dupuy eta Binningsbø, 2008: 3). Ondorioz, indarkeriaren erabilera gelditzea zaildu zen. Horrekin batera, RUFak garrantzia gutxiko postuak baino ez zituelako eskuratu, akordioaren aurka aritu zen. Nazioarteko parte hartzea gero eta handiagoa zenez, RUFak nazioarteko aktoreen aurkako ekintzak aurrera eramane zituen, indar handiagoarekin erantzun zirenak (Kaldor eta Vicent, 2006: 7-8). 2000ko azaroaren 10ean, su etetea lortu

⁴ ECOMOG Afrika Mendebaldeko Estatu Komunitate Ekonomikoa izeneko nazioarteko erakundeak sortutako bakea mantentzeko taldea da (Mullins, 2023: 202). Hasieran, ezarritako sartzioak betearazteko bidali zuten Sierra Leonara, baina aurrerago RUFaren aurka aritu zen. ECOMOGk Sierra Leona utzi zuenean, bertako soldadu asko UNAMSILen aritu ziren.

zen eta 2002ko urtarrilaren 18an gerraren amaiera formala zehaztu zen. Horren ondoren, Sierra Leonako bake eraikuntza prozesua hasi zen.

Sierra Leonako gerra zibilak 11 urte iraun zituen indarkeria handiko gatazka izan zen; gatazkan 5 milioiko populazio batetik 50.000 pertsona hil ziren eta 500.000 errefuxiatu egon ziren eta 2 milioi barne mugimendu eman ziren (Varisco, 2018: 8). 2002 eta 2005 urteetan zehar bake eraikuntzarako ekintza ezberdinak aurrera eraman ziren, zeintzuek indarkeriaren amaiera ekarri bazuten ere, Sierra Leonako egoera latza gainditzea lortu ez zuten.

Sierra Leonako gerra zibila hasi aurretik, munduko bizi kalitaterik txarrenetarikoak zituen herrialdeetako bat zen, eta horrek talde iraultzaileen hedapena bultzatu zuen (Bellows eta Miguel, 2009: 1145). Egoera horretan literaturak hiru arrazoi nagusi azpimarratu ditu gatazkaren hasiera eta mantentzea argudiatzeko: estatuaren porrota, diamanteak eta politika erregionala. Aurreko arazoekin batera, Sierra Leonako armada oso ahula zela ere kontuan hartu behar da.

Sierra Leonako gobernuak diamanteekin aberastasun handiak lortu bazituen ere, ez zituen aberastasun horiek erabili zerbitzu publikoak eskaintzeko (Ibídem). Arazo gehienak kolonizazio garaian hasi ziren (Varisco, 2018: 8). Izan ere, ezberdintasun horiek independentzia garaitik aurrera handitu ziren. Hain zuzen, herrialdean aberastasunak egon arren, garapen ekonomikoa eta soziala ez zen bultzatu, eta egoera ekonomikoak korrupzioa, instituzio publikoen errorera eta legearen nagusitasunaren porrota bultzatu zituen. Demokratizazio prozesu bat sustatu zen aurrekoa aldatzeko, baina prozesu hori eman aurretik gerra zibila piztu zen. Herrialdean eraikitako instituzioak oso ahulak ziren gizartearen ongizatea sustatzea ez zutelako bilatzen (Asangna, 2017: 106). Gainera, *All People's Congress*eko gobernuak 1978 urtean alderdi anitzeko hauteskunderen debekua ezarri zuen, zeinak herritarren altxamenduak piztu zituen. Arrazoi horiek guztiek Sierra Leonak egoera oso latza bizi zuela adierazten dute, zeinak gatazka piztu zuen.

Sierra Leonako gerra zibila 11 urteko indarkeria handiko garaia izan zen (Varisco, 2018: 8). Gatazkaren dinamikak diamanteen inguruan eraiki ziren, hain zuzen, diamanteen kontrola lortzeko. Izan ere, kontrol hori zeukan alderdiak, indar militarra mantentzeko edo handitzeko gaitasuna zuen arma gehiago erosi ahal zituelako. Hala ere, arazo handiak ere bazekartzan indar militarra handitzeaz gain, laguntza politikoa eskaini zieten ere ordaindu behar zitzaielako. Diamanteak gerraren dinamikak azaltzeko kontuan hartu beharreko elementu nagusietako bat dira, horien bidez ordaindu ahal izan zirelako gatazkan behar ziren baliabideak.

Diamanteen kontrola lortzea gatazkaren arazoia izateaz gain, baliabide horrek gerrak jarrai zezan ere sustatu zuen. RUFaren altxamendurako arazoietako bat diamante mehatzen kontrola lortzea zen (Bellows eta Miguel, 2009: 1145). Gobernuak diamante mehatzetan herritarrak esklabotzan zituzten eta horien egoera ez zen hobetzen, nahiz eta diamanteak eskuratu (Asangna, 2017: 106-107). Egoera horrek gobernuarekiko haserrea sortu zuen estatu osoan zehar. Diamanteen kontrolak gatazka finantzatzeko beharrezkoak

ziren diru-sarrerak eskaintzen zituen eta, beraz, diamanteak salerosi ahal ziren bitartean gatazka mantendu zen. Diamanteek diru sarrera handiak zekartzaten eta armamentua erosteko erabili ziren. Armak normalean ezin dira bide arrunten bidez ordaindu eta diamanteen truke aldatzen ziren. Beraz, diamanteek gatazkaren luzatzean eragin handia izan zuten.

Arestian, gerraren hasiera aztertu denean, Liberiako gerra zibilaren eragina aipatu da, hau da, erregioak eragina izan zuen Sierra Leonan. Kanpoko eragin horrek desoreka handiak sortu zituen erregioan eta gatazkaren konplexutasuna handitu zuen. Liberiako presidentea zen Taylorrekin batera, Gaddafik eta Compaorék (Burkina Fasoko presidente izandakoa) ere gudariengain eragina izan zuten, gerraren aldekoak zirela adierazten zutelako (Asangna, 2017: 108). Gerra babestearekin batera, armak ematen zizkioten RUFari, eta Gaddaffiren ideiak bertan aplikatu zirenez, bere babes sutsua eman zion taldeari. Gainera, Taylorrek Sierra Leonan interesak zituen hiru arrazoiengatik: lehena, Sierra Leonako gobernuak haren aurkako taldeak laguntzen zituelako; bigarrena, ECOMOG taldearen kide zelako estatua; eta, hirugarrena, gatazkak sortarazitako desorekak diamanteak era ez zilegian eskuratzeko aukera eskaini ziolako. Horrela erregioak ere gatazka horretan interesak bazituela argi ikusten da.

Sierra Leonako gerra zibilaren atzean dauden egoera nagusiak, garai hartan Afrikan bizi ziren beste gatazketan ematen zirenen ezberdinak ziren (Bellows eta Miguel, 2009: 1146). Gatazka horretan arazo etnikoak ez ziren nabarrienak, eta hori argi ikusi daiteke biktimak talde guztietakoak zirelako. Ez RUFa, ez armada, ez ziren talde etniko zehatz baten aurka joan; horren ordez, RUFak argitaratutako manifestoan baliabideen erabilpen txarra eta erregimenaren administrazioa salatu zuen, eta horien aurka borrokatuko zirela adierazi zuten (Varisco, 2018: 9). Beraz, manifestoan adierazten zena, azpiatal honetan adierazitakoarekin bat dator.

RUFa ez zen gatazkan aritu zen talde armatu bakarra izan. Gatazkaren tarte batean bederatzi talde ere aritu ziren (Mullins, 2023: 201). Talde horietako sei Sierra Leonako Gobernuaren alde aritu ziren: Sierra Leonako Armada (SLA), ECOMOG, Komunitateko Defentsa Indarrak (CDF, haren siglak ingelesez), Hegoafrikako Executive Outcome mertxenarior taldea, Nazio Batuen UNAMSILa eta Adiskidetzaren eta Demokraziaren aldeko Liberiako Batuak. Talde errebelde nagusi RUFa izan zen eta horrekin batera Liberiako Fronte Patriotiko Nazionala aritu zen. Azkenik, RUFaren eta armadaren kide ohiek osatutako talde txikiak ere bazeuden. Atal honetan Sierra Leonako Auzitegi Bereziak epaitu zituen taldeak bakarrik aipatuko dira, horiek direlako lanean garatzen denaren eremuan garrantzitsuak direnak.

RUFa 1980ko aldera sortu zen taldeak *All People's Congress*eko gobernu kende nahi zuen (Ibídem). Gaddaffiren ideiak (estatu panafrikar indartsu baten sorreraren aldekoak) jarraitu eta Liberiako gerra zibilean aritu arren, horien ideia politikoak ez zeuden garatuak. Izan ere, nahiz eta Sierra Leonako herria askatu nahi zuela adierazi, haren aurka aritzen

ziren. Talde hori Liberiako presidentea zen Charles Taylorrek finantzatu eta entrenatu zuen.

CDFak gatazkan sortutako babeserako talde bereziak ziren, batez ere, komunitateak babestu nahi zituzten gatazkaren eraginik jasan ez zezaten (Varisco, 2018: 8-9). Talde horietan boluntarioak aritzen ziren eta armadaren babespean aritzen ziren RUFari aurre egiteko, eta Sierra Leonako lurraldearen inguruko ezagutza handia zeukanez, RUFaren aurkari handienak izan ziren.

Indar Armatuaren Batzar Iraultzailea (AFRC, bere siglak ingelesez), SLAko kide ohiek osatu zuten, gobernu demokratikoaren aurka joateko (Mullins, 2023: 201). Haiek 1997ko maiatzaren 25ean estatu kolpea eman ondoren gobernu eta armada bilakatu ziren. Taldea RUFarekin batera aritu zen, ECOMOG haien gobernua boteretik kendu zuen arte.

Sierra Leonaren gerra zibilak urte horietan zehar Afrikan eman ziren beste gatazka batzuetan gertatu zen moduan larritasun handiko ekintza asko eman ziren. Ekintza horiek gatazkan konplexutasun handiko egoerak eman zirela adierazten du, zeinak bake eraikuntza prozesuan konplexutasun handiei aurre egiteko neurriak behar zirela adierazten duen. Sierra Leonak zerbitzu publikoak eskaintzeko neurriak behar dituela argi ikusi daiteke, estatuaren jardueraren eraginkortasun faltak gatazka bultzatu zuen egoeretako bat izan zelako. Horrekin batera, gatazkan indarkeria eta kalte handiena bizi zuten emakumeak eta umeak zehazki lagundu behar zituen ekintzen beharra ere argi ikusten da. Horrekin batera, diamanteen ekoizpenaren inguruko neurrien beharra ere agerikoa da. Aldaketa horiek eremu instituzionalari erreferentzia egiten dioten arren, zerbitzu publikoak diseinatzean, emakumeen eta umeen beharrak erantzutean eta diamanteen sektorea arautzean tokiko gizarteak eskatzen duenaren araberrako diseinua beharrezkoa da.

3.2 Sierra Leonako bake eraikuntza prozesua

Behin Sierra Leonako gerra zibilean emandako egoera nagusiak aztertu direla, horren ondoren eman ziren bake eraikuntza ekintzak aztertuko dira. Ekintza horiek aztertzeko atala bi zatitan banatuko da. Alde batetik, esfera instituzionalean emandakoak aztertuko dira, eta ondoren, tokiko eta genero ikuspegia barneratua zuten ekintzak.

3.2.1 Ekintza eta dinamika instituzionalak

Sierra Leonako gerra zibila bukatu aurretik, Nazio Batuek (NB) zenbait bake eraikuntza ekintza aurrera eraman zituzten. Lehenik eta behin, NBen Segurtasun Kontseiluaren 1181(1998) Ebazpenaren ⁵ bidez, 1998ko urtarrilean Nazio Batuen Behaketa Misioa Sierra Leonan (UNOMSIL, bere siglak ingelesez) sortu zen. Misio horrek indarkeria

⁵ Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren 1181(1998) Ebazpena, establishment of the UN Observer Mission in Sierra Leone (UNOMSIL) 1998ko uztailearen 13koa.

kontrolatu eta segurtasuna mantendu behar zuten, baita desarmatze eta desmobilizazio bolondresa bultzatu eta kontrolatu ere.

UNOMSIL ez zen nahikoa izan gatazkari amaiera emateko eta horregatik 1999ko urriaren 22an NBko Segurtasun Kontseiluaren 1270(1999) Ebazpenaren⁶ bidez sortu zen Nazio Batuen Misioa Sierra Leonan (UNAMSIL, bere siglak ingelesez), zeinak Lomé Bake Akordioa betearazteko 6.000 militar arituko zirela adierazi zuen. Bake Akordioa betearaztearekin batera, hainbat funtzio bete zituen; besteak beste, desmobilizazioa eta desarmatzea laguntzea eta su etetearen jarraipena bermatzeko. Berriro ere, aurreko guztia ez zen nahikoa izan eta NB Segurtasun Kontseiluaren 1289(2000) Ebazpenean⁷ funtzio berriak ezarri zitzaizkion UNAMSILi eta soldadu gehiago bidaliko zitzaieela ere. Aurreko funtzioekin batera gobernu eraikuntzen babesa eta pertsona eta gauzen mugimendua bermatu behar zuten. Gainera, Sierra Leonako indar armatuak indartzen lagundu behar zuten eta horrekin batera haiekin lan egin.

Hala ere, 2000 urtean UNAMSILen eraginkortasuna zalantzan jarri zen Abidjaneko Akordioko su etetea betearaztea lortu ez zuelako. Momentu hartan, errebeldeek bake eraikitzaileak bahitu zituzten, operazioaren eraginkortasuna zalantzan jarri zuten, eta horren aurrean santzioak jarri ziren. Horrekin batera epe laburrean bakea sortzeko ekimenak aurrera eramane ziren; besteak beste, osasun eta hezkuntza zerbitzuak eskaintzea. Handik gutxira, NB Segurtasun Kontseiluaren 1346(2001) Ebazpenean⁸ UNAMSIL beste behin aldatu zen, soldadu gehiago bidaltzeko eta Lomé Bake Akordioaren betearazpena sustatzeko. Sustapen hori su etetearen ez betetzearen ondorio zen, giza eskubideen babesa indartu behar zelakoan. 2002an, UNAMSILen helburuetariko bat erdi beteta zegoen 75.000 gerlari desarmatzea lortu zelako (horien artean ume soldaduak). Izan ere, UNAMSILEk hiru lorpen handi izan zituen: hauteskunde demokratikoak ospatzea, sektore militarra eta polizia indartzea eta soldaduen birgizarteratzea.

UNAMSILEk Sierra Leonako berreraikuntzan garrantzia handia izan zuen: 500.000 errefuxiatu eta barne desplazatu haien etxetara bueltatu ziren, Gobernuaren autoritatea berreskuratu zen eta zerbitzu publikoak eskaini ziren. UNAMSIL arrakasta handiko kasua izan zen eta horrek bake eraikuntzarako operazioen eredu bilakatu zuen. Gainera, bakea mantentzeko diamanteen salerosketa arautzea lortu zen, diamanteen salerosketa ez-zilegia zailtzeko nahian. Bestelako operazioekin konparatuta kasu honetan tokiko langileak asko izan ziren, baina misioak epe luzeko helburuak betetzeko arazoak izan

⁶ Ibid 1270(1999) Ebazpena, establishment of the UN Mission in Sierra Leone, 1999ko urriaren 22koa.

⁷ Ibid 1289(2000) Ebazpena, extension of the mandate and expansion of the military component of the UN Mission in Sierra Leone (UNAMSIL), 2000ko otsailaren 7koa.

⁸ Ibid 1346(2001) Ebazpena, extension of the mandate of the UN Mission in Sierra Leone (UNAMSIL), 2001eko martxoaren 30ekoa.

zituen. Edonola ere, 2005 urtean UNAMSILen mandatua bukatu zen, bakea mantentzea lortu zuelako, hau da, misioaren helburu nagusia bete zuelako.

2008an bakea eraikitzeke misioa hasi zen: NBen Bulego Integratua Sierra Leonan (UNIPSIL, bere siglak ingelesez) sortu zen NB Segurtasun Kontseiluaren 1829(2008) Ebazpenarekin⁹. Hasiera batean lau hilabeterako mandatua baino ez zuen eta estatu demokratikoa eraikitzen lagunduko zuen. Hala ere, NB Segurtasun Kontseiluaren 1886(2009) Ebazpenak¹⁰ UNIPSILen mandatua luzatu zuen, eta tokiko talde bat osatu zen. Tokiko taldea UNIPSILekin batera aritu zen, bien arteko sinergiak osatzeko eta gatazka errepikatu ez zedin. Bere mandatua beste behin luzatu zen 2010eko irailaren 30era arte. UNIPSILen amaiera NB Segurtasun Kontseiluaren 2097(2013) Ebazpenean¹¹ adierazi zen, eta horrekin batera tokiko taldeak lanarekin jarraituko zuela eta egindako lanaren ebaluazioa egingo zela adierazi zen. UNIPSIL 2014ko martxoaren 14ra arte luzatu zen, momentu horretan Sierra Leonako gobernuak bakerako eta egonkortasunerako oinarriak eraiki zituelako.

Aurreko paragrafoetan azaldu diren ebazpenen bidez, Sierra Leonako gerra zibilaren amaieran, nazioarteko aktoreek demokrazia ezartzea, giza eskubideen babesa, legearen nagusitasuna, merkatu ekonomia, gizarte zibil sutsuaren eraikuntza eta estatu liberal segurua eta egonkorra ezartzea lortu nahi zuten. Horiei lotutako ekintzek bake liberalaren eraikuntza proiektu baten parte ziren, eta estatu eta ordena politiko liberala eraikitzea bideratzen ziren. Nahiz eta, aurrerago aztertuko denez, proiektu horrek bake iraunkorra ezartzeko arazoak izan zituen (Kormoh, 2016: 52). Hala ere, nazioarteko instituzioek prozesu hori eta Liberiako prozesua ere bake eraikuntza prozesu arrakastatsu moduan definitu dituzte.

Bake eraikuntza prozesua hasi zenean, Sierra Leonaren egoera ekonomikoa, politikoa eta soziala oso ahula zen. Giza Garapen Indizean oso atzean zegoen, gizarteak gatazkaren zauriei aurre egin behar zien eta azpiegitura publikoak suntsituak zeuden. Egoera horretan instituzioen eraikuntza lehenetsi zen, gizartean zeuden beharrak jorratu beharrean. Hori tokiko beharretara eta baldintzetara egokitzeko gaitasuna ez zutelako izan zen (Ibídem). Sierra Leonaren kasuan gatazkaren aurreko egoerak berdin mantendu ziren. Horrek politiken eta programen eta errealitatearen artean zegoen lotura eza adierazten du, bereziki handia zena gazteen kasuan aurrerago ikusiko denez (Bangura, 2016: 44). Hala ere, gizarteak indarkeriari aurre egin nahi zionez, bake eraikuntza proiektua sustatu zuen.

⁹ Ibid 1829(2008) Ebazpena, establishment of the UN Integrated Peacebuilding Office in Sierra Leone (UNIPSIL), 2008ko abustuaren 4koa.

¹⁰ Ibid 1886(2009) Ebazpena, extension of the mandate of the UN Integrated Peacebuilding Office in Sierra Leone (UNIPSIL), 2009ko irailaren 15koa.

¹¹ Ibid 2097(2013) Ebazpena, extension of the mandate of the UN Integrated Peacebuilding Office in Sierra Leone in Sierra Leone (UNIPSIL), 2013ko martxoaren 26koa.

Beraz, Sierra Leonaren kasuan instituzionalizazioa sustatu zen bereziki. Prozesu horrek zenbait abantaila ekarri zituen arren, ez zen lortu gatazkaren oinarrian zeuden zenbait arazo konpontzea. Gainera, instituzioak indartu baziren ere, tokiko kulturaren faltak instituzioen eraginkortasuna ere gutxitu zuen (Ibídem: 45). Hasiera batean, instituzionalizazio prozesuak biztanleriaren eta tokiko politikarien arteko komunikazioa hobetu zuenez, eragin positiboa izango zuela ematen zuen; hala ere, benetako aldaketarik eman zenik ezin izan da demostratu. Horren orde, erroan dauden arazoei aurre egiteko eta horiek konpontzeko, jarduera kolektiboa sustatu behar zen.

Proiektu horrekin eredu ekonomiko liberala ere eraiki zen, eta, besteak beste, jabetza pribatuaren eta jarduera ekonomiko pribatuaren nagusitasuna sustatu zuen (Goetze, 2014: 56). Izan ere, aurretik aipatu moduan, biztanleria pobrezian jarraitu zuen eta ez zuten zerbitzu publikoetarako sarbidea eskuratu (Kormoh, 2016: 52). Ordea, nazioartetik enpresa ugari hara joan ziren jarduera ekonomikoa aurrera eraman zezaten eta horretarako nazioarteko inbertsio zuzena erabili zuten. Inbertsio horiek herrialdeko ekonomia indartu bazuten ere, bakearen eraikuntza ez zuten sustatu. Gearoid Millarren (2015: 1712) hitzetan, benetan bakea eraikitzea sustatu nahi bada, inbertsio horiek emateko baldintzak aldatu eta bakea eraikitzeko egokiak diren baldintzak ezarri behar dira.

Sierra Leonako instituzioak indartu zirenean, bertako gobernantza kultura ez zen landu eta ondorioz, tokiko beharretara egokitzeko gaitasunik ez zuten izan (Bangura, 2016: 45). Hala ere, bake eraikuntza prozesuan, nazioartean gobernantzaren aldeko ekintzak indartu ziren segurtasun arauak eta nazioarteko instituzioen interesak hori lortzera bideratu zirelako. Horrek bakea eraikitzen lagundu zuen. Hala ere, aurretik zeuden jauntxo egiturak baztertu ziren (Kormoh, 2016: 52). Horrekin batera, gobernantza eredu hauek arazo handiago bat zuten: batzuen aberastasuna handitzen lagundu zuten (Goetze, 2014: 56).

Bestetik, eta arestian esan dugun moduan, bake eraikuntzaren prozesuan aurrera eraman ziren ekintza nagusiak desarmatzea eta desmobilizazioa izan ziren (Bangura, 2016: 42). Ekintza horiek orokorrean eraginkortasun handia izan bazuten ere, gerlarien %6,5 eta %9,4 ziren, hurrenez hurren, emakumeak eta adin txikikoak prozesu horietatik kanpo geratu ziren. Alde batetik, emakumeek estigma arazo handiei aurre egin behar zioten; eta, bestetik, gazteak prozesuan barneratuak izan ez zirenez, prozesuarekin ados ez ziren agertu eta segurtasunerako mehatxua bilakatu ziren (Kormoh, 2016: 53). Ondorioz, beste gatazka armatuetan parte hartzera joan ziren. Izan ere, prozesuan ez ziren gatazkaren erroko arazoak jorratu eta gazteen artean langabezia tasa handiak ematen jarraitu ziren, zeinak bestelako diru-sarrerak bilatzera behartu zituen; besteak beste, meatzaritzan aritzea.

Askotan, Sierra Leonak bake eraikuntza prozesua arrakastatsua izan zela esaten da, eta hori bertan aurrera eramandako erreforma instituzionalaren ondorio izan zela. Hala ere, azpiatal honetan adierazi denez, biztanleriak zituen beharrak ez zituen erantzun eta, ondorioz, zenbait ekintza ez ziren eraginkorrak izan (Bangura, 2016: 45). Hori gehien bat

aurreko prozesuetan emandako ekintzak berdin aplikatu nahi izan zirelako gertatu zen, bertako baldintzetara egokitu gabe (Kormoh, 2016: 42). Halaber, bake eraikuntzan biltzen diren ekintzak aldatu beharra argi ikusi da, benetan bake iraunkorra lortzeko (Millar, 2015: 1713). Prozesuak zituen hutsuneak biltzeko eta eliteek aurrera eramandako ekintzei aurre egiteko, zenbait komunitateek bestelako jarduerak aurrera eraman dituzte. Ekintza horiek izango dira hurrengo atalean zehar aztertuko direnak.

3.2.2 Tokiko ikuspegidun bakearen eraikuntzarako ekintzak

Sierra Leonako bake eraikuntza prozesuaren helburu nagusiak instituzio indartsuak eraikitzea, erreforma politiko-ekonomikoak egitea eta segurtasun sektorearen indartzea ziren (Karbo, 2012: 101). Hala ere, bakea eraikitzeko aurreko aldaketak ez ziren nahikoa izan, eta gatazkaren oinarrian dauden egitura tradizionalak ere aldatu behar ziren. Aurrekoa lortzeko Sierra Leonaren kasuan tokiko dinamikak identifikatu ziren tokiko beharrei erantzuteko. Tokiko bakea lortzeko gizarteari justizia eman, haien ordezkariak bermatu eta egindakoaren inguruan kontuak eman behar ziren. Izan ere, bake eraikuntza prozesua aztertzeko aurretik aipatu diren erreforma horietatik haratago begiratu behar da eta jarduera horiek tokiko ikuspuntutik aztertu.

Sierra Leonan gizarte zibila bost eratan aritu zen bereziki: kidetza profesionalean oinarritutako erakundeetan, fedean oinarritutako erakunde nazionalistetan, hedapen nazionaleko erakunde sekularretan, koalizioetan eta tokiko erakundeetan (Kanyako, 2016: 170-173). Garrantzi handikoak izan ziren emakume taldeak, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatu nahi zutenak hezkuntzan, politikan eta ekonomian. Dena dela, tokiko erakundeek garrantzi handia izan zuten, bake eraikuntzarako jarduera deszentralizatuak aurrera eraman zituztelako (Koroma, 2012: 30). Jarduera horiek garrantzia handia izan bazuten ere, eremu formalek kanpo geratu ziren, eremu formalean tokiko ordezkariak tokiko eliteak zirelako (Pemunta, 2012: 201). Eliteak nazioarteko erakundeekin batera aritu zirenez, beste ekimen horiei funts gutxi eman zitzaizkien eta marjinalak izan ziren. Hala ere, zenbait, administrazioko langileek eskumen hori haien onurarako erabili zuten eta babes falta handia zenez, ez zuten haien helburua bete.

Sierra Leonako bake eraikuntzan merkatuaren liberalizazioa izan zen hartutakolehenengo neurrietako bat eta erreforma horren ondorioz, lurra pribatizatu zen, inbertsioak lortzera bideratutako jarduerak aurrera eraman ziren eta lanbideak formalizatuziren (Millar, 2016: 571). Dena dela, ekintza horiek ez zuten gatazkaren oinarrian zeuden arazoak konpontzea lortu. Izan ere, aurrekoak erreforma liberalek gatazkari aurre egitekoneurriak beti berdinak izan behar direla adierazten du eta beraz, benetako eraginkortasunaduten ekintzak ez ditu definitzen (Pemunta, 2012: 203). Tokiko ikuspuntua barneratu behar da, arazoei benetako erantzuna ematen dioten ekintzak aurrera eramateko eta Sierra Leonak nazioartetik zetozen baldintzen arabera diseinatu behar izan zuen haren programa. Ekintzak helburu hori betetzera bideratu ziren, tokiko ikuspegia duten jarduerak aurrera eramatean eta prozesuak izan zituen hutsuneak betetzearen ordezkari (Millar, 2016: 575). Sierra Leonan nekazaritza eredu propioak zituzten, zeintzuek familia batzuek lurraren jabetza zuten eta beste batzuei errendatzen zizkieten errenta txiki baten truk. Nahiz eta

patroi atzeratuak izan, klientelismoan eta kazikismoan oinarrituak, egitura horiek disparekotasun gutxi sortzen dituzte eta inork irabazi handirik ez izatea bermatzen dute. Aurreko hori, ordea, ez zuten egitura liberalek lortu.

Gobernuak arazoak izan zituen haien ekintzen eraginkortasuna bermatzeko ikuspegi oso zentralizatua zutelako eta tokiko aktoreak barneratu ez zituztelako (Karbo, 2012: 10). Gizarte zibila indartu behar da agentzia sustatzeko eta hori ez zuen lortu. Sierra Leonako kasuan, autoritate zentralen eta tokiko autoritateen (jauntxoak) eginkizunak ezartzeko arazoak egon ziren. Horren ondorioz, osagarriak izan behar ziren bi aktore hauek aurkakoak izan ziren (Koroma, 2012: 31). Jauntxoen erregimenek tokiko ikuspegiaren barneratzea lortuko zuten, baina eredu horiek gizarteko talde batzuk baztertzen zituzten. Bazterketa horri aurre egin behar zitzaion, baina jauntxoak barneratzea garrantzitsua zen bake iraunkorra lortzeko.

Bestalde, gazteen bazterketa handia izan zen gehien bat arrazoi kultural eta ekonomikoengatik, baina gazteak gizartearen gehiengoa zirenez, aurrekoak tokiko gizartearen ordezkariak asko mugatu zuen (Ibidem: 33). Ahalik eta pertsona gehienen parte hartzea sustatzeko instituzioen hibridazioa eman zen hainbat eremutan, hibridazioak autoritate ezberdinen arteko koordinazioa ahalbidetuko zuela pentsatzen zelako. Ordezkaritza politikoak beste arazo bat izan zuen, hain zuzen, gatazkan militarrek izandakoak botere politiko handia eskuratu baitzuten. Horren oinarrian militarrei hori baimentzen ez bazitzaien, benetako bakea lortuko ez zela zioen ideia zegoen. Hori horrela izan arren, politikaren militarizazio handia eman zen eta, ondorioz, gobernuaren zilegitasuna gutxitu zen.

Tokiko ikuspegia duen bake eraikuntza lortzeko, gizarte zibila indartu behar da, aurretik adierazi denez. Hala ere, gizarte zibila oso heterogeneoa dela kontuan izan behar da eta kide bakoitzaren ordezkariak bermatu ere (Kanyako, 2016: 175). Sierra Leonan hori arazotsua izan zen, GKEak ordezkariak handia izan zutelako eta, ondorioz, gizarte zibila kanpoan geratu zen. Horrekin batera, jarduera ekonomikoan aldaketak beharrezkoak ziren eta tokiko garapen ekonomikoa sustatu behar zen, merkatuaren garapenaren ordezkariak. Horrek lanbide gehiago sortuko zituen, tokiko azpiegiturak hobetuko zituen eta giza garapena sustatuko luke. Beraz, bake eraikuntzak Sierra Leonan tokiko ikuspegi falta zuen, nahiz eta tokiko ikuspegia zuten ekintzak aurrera eramane ziren.

Emakume eta gizonek bake eraikuntzan eragin ezberdina izan dezaketela bake eraikuntzan jada aztertu da, baina genero bakoitzaren eragina ez da zehatz mehatz aztertu. Heidi Hudsonen (2009: 317) arabera, emakumeek bake iraunkorra eraikitzen onura handiak ekarri dituzte. Hori azaltzeko Rwandaren eta Cote d'Ivoiren kasuak aldaratzen ditu eta lehenengoan arrakasta handiagoa izan zuela adierazi zuen emakumeak ez zirelako baztertu. Horrek emakumearen barneratzea bake iraunkorra eraikitzeko balio duela adierazten du eta horregatik hauek barneratu ziren Sierra Leonako kasuan. Aurrera eramandako jarduera instituzional guztietan genero ikuspegia barneratu zuten, nahiz eta hasieratik hori horrela ez izan (Abdullah eta Fofana-Ibrahim, 2010: 264). Izan ere,

emakumearen barneratzea formala baino ez zen izan, baliabide gutxi bideratu zirelako jarduera horietara.

Sierra Leonan 1325 Ebazpenak zenbait onura ekarri zien emakumeei, baina horien egoera bakarrik puntu bateraino baino ez zen hobetu. Izan ere, Ebazpenaren aplikazioaren azterketa egiten denean, herrialdeko eremu bakoitzean ondorio oso ezberdinak izan zituela ikusi daiteke, eta, beraz, ezin daiteke ebazpena positiboa edo negatiboa izan zenik adierazi. Ebazpenarekin batera, Sierra Leonako gobernuak genero ikuspegia ezartzeko ekintza ezberdinak ezarri zituen, baina benetako eragina izan zuten ezin da onartu (Ibídem: 265). Ekintza horiek eremu formalera mugatu ziren. Emakumearen bazterketa lurraldearen kultura patriarkalaren ondorio zen, zeinak emakumeak eremu formalera sartzeari ez zuen utzi (Ladum eta Haaken, 2017: 354). Aurreko jardueren eraginkortasun falta hori argia da emakumeen barneratzea mugatua izan delako (Abdullah eta Fofana-Ibrahim, 2010: 263).

Bake iraunkorra eraiki dadin ez da bakarrik emakumeen parte hartzea bermatu behar, horrekin batera, emakumeek esfera formalek kanpo aurrera eramandako ekintzak ere aztertu behar dira, horrela bakarrik lortu daitekeelako genero ikuspegiaren txertaketa aztertu. Emakumeek ikuspegi ezberdin bat gehitu zioten prozesuari Sierra Leonaren kasuan, ume gerlarien, hezkuntzaren eta osasunaren egoera kontuan hartzen zutelako (Ladum eta Haaken, 2017: 354). Gatazkan zehar ere eremu instituzionalek kanpo hainbat ekintza aurrera eramane zituzten. Hasteko, emakumeak gerran zehar talde ezberdinak osatu zituzten gerraren ondorioei aurre egiteko. Talde horiek emakumearen ordezkartza politikoa eskatu zuten eta hauteskondeen emaitzen errespetua baita ere. Lobby jardura horiekin batera, mugimendu handiak antolatzeke gaitasuna izan zuten, horien bidez bakea eskatzeko.

Ikuspegi instituzionalek emakumeak talde homogeneo moduan hartu zituztenez, benetako eraginkortasunik ez zuten lortu, aurreko paragrafoetan adierazi denez, emakumeak talde ezberdinetan aritzen zirelako (Martin, 2021a: 467). Ez hori bakarrik, programa diseinatu zenean, emakumeen parte hartzea oso mugatu izan zenez, emakumeek bake eraikuntzan izan zuten papera ez zen aztertu prozesua diseinatu aurretik. Beraz, heterogeneotasuna kontuan ez hartzearekin batera, prozesu arrakastatsua diseinatzeko arazoak izan zituzten. Aurreko prozesuetan, emakumeek egindako ekintzen azterketa garrantzitsua da, emakumeen agentzia sustatzen eta bake iraunkorra lortzeko programak diseinatzen lagundu dezakeelako (Olaitan eta Isike, 2019: 150).

Azpiatal honetan, Sierra Leonan tokiko ikuspegia txertatzeko saiakerak egon zirela ikusi arren, horiek oso eraginkortasun mugatua izan zuten. Tokiko ikuspegia txertatuko luketen hainbat jardura ez zirelako prozesu formalean onartu, eta, horren ordezkari, kutsu liberal nabaria zuten jarduerak lehenetsi ziren. Bazterketa hori emakumeek sustatutako jardueretan handiagoa izan zela ikusi da, zeintzuek tokiko kutsu handiagoa zuten. Aurreko gutzia kontuan hartuta, tokiko ikuspegiaren barneratzea akademiaren eremura mugatu dela dirudi, eremu praktikoan ekintza horien bazterketa handia izan zelako.

4. Sierra Leonako justizia eremuko bake eraikuntza

Sierra Leonako bake eraikuntza prozesuaren justizia eremuan bi organo nagusi eraiki ziren, gerra zibilean gertatutako jorrazeko eta horien inguruan justizia egiteko. Alde batetik, Sierra Leonarako Auzitegi Berezia sortu zen, zeinak gerran zehar eman ziren ekintza nagusiak epaituko zituen. Bestetik, Sierra Leonako Egiaren eta Adiskidetzaren Batzordea zegoen, zeinak gerran emandako gertakizunen inguruko testigantzak bilduko zituen. Atal honetan bi organo horien azterketa egingo da, baita bien arteko harremana zein izan zen aztertu ere.

Sierra Leonako Auzitegi Berezia (SCSL, bere siglak ingelesez) NBen Segurtasun Kontseiluaren 1315(2000) Ebazpenak sortu zuen, Sierra Leonako Gobernuak eskatuta (Grover, 2010: 70). NBen eta Sierra Leonako Gobernuaren arteko adostasunarekin osatu zen, 2002ko urtarrilaren 16an eta 2009 urtera arte luzatu zen. Dena den, arazoak izan zituen abian jartzeko, beharrezkoak ziren azpiegiturak ez zeudelako prest eta NBekin harreman zuzenik ez zuelako.

Bere eskumenari dagokionez, oso mugatua izan zen 1996ko azaroaren 30etik aurrera emandako ekintzak baino ez zituelako epaituko; gainera, gizateriaren aurkako krimenak, nazioarteko legedi humanitarioaren bortxaketa eta Sierra Leonaren legearen arabera krimen garrantzitsuak epaitzera mugatu zen. Horren ondorioz, ekintza asko bere eskumenetik kanpo geratu ziren. Epaitu ziren pertsonak nahiko ezezagunak ziren eta horregatik gizartea inplikatzeko ez zen lortu (Anders, 2015: 149). Aurrekoarekin batera epaituko zirenen artean lau epaitzea ez zen lortu: Foday Sankoh eta Samuel Hinga Norman zaintzan hil ziren, Sam Buckarie Liberian hil zen eta Johnny Paul Koroma ez zuten harrapatu. SCSLk hainbat berrikuntza ekarri zituen, besteak beste, 15-18 urte bitarteko umeak epaitzeko aukera. Hala ere, hauek ez ziren epaituak izan egindakoa egitera behartuak izan zirela ulertu zelako.

Aurrekoarekin batera, Lomé Bake Akordioaren ondorioz, ekintza asko amnistiaren barruan sartu ziren, eta, horregatik, nazioarteko zuzenbideko krimenak bakarrik epaitu ziren (Grover, 2010: 73). Amnistiak behe mailako gudari asko barne hartu zituen eta, beraz, ekintza asko kanpoan geratu ziren. Egoera horren aurrean, aurrerago ikertuko den Egiaren eta Adiskidetzaren Batzordea osatu zen.

Nazioarteko auzitegiak egoera berezietan sortzen dira, hau da, sistema judizial nazionalak oso ahulak, ustelak edo politizatuak direnean, eta epaiketak haren kabuz aurrera eraman ezin dituzenean edo bakea oraindik lortu ez denean. Sierra Leonaren kasuan barne sistema judiziala indartzea ere bilatzen zuen (Girelli, 2017a: 177). Horretarako auzitegi hibridoak eraiki dira, tokiko jabetza sustatzeko eta tokiko gizartera hurbiltzeko. Aitzitik, horrek ez du zuzenean zilegitasuna bermatzen. Izan ere, zilegitasuna lortzeko tokian eragin positiboa izan behar dute. Sierra Leonako sistema indartzeko nazioarteko sistemarekin aritu ziren tokiko langileak, biztanleriarengain eragin positiboa lortzeko. Langile nazionalak tokiko kultura, historia eta egiturak ezagutzen zituzten eta nazioarteko

langileek neutraltasuna eta objektibotasuna bermatu zuten. Gainera, biztanleriak parte hartu zuenez, tokiko jabetza ere lortu zen.

SCSLak epaiketa gutxi aurrera eramán zituen, hain zuzen, 9 pertsona bakarrik epaitu zituen (Anders, 2015: 149). Epaitutakoen artean 3 pertsona RUFekoak ziren: Issa Sesay, Morris Kullon eta Augustine Gbao, 2004ko uztailetik 2009ko otsailera arte epaituak eta, hurrenez hurren, 52, 40 eta 25 urteko espetxe zigorra jasan zuten. AFRCko kideak Alex Tamba Brima, Brima Bazzy Kamara eta Santigie Borbor Kanu, 2005eko martxotik 2007ko ekainera arte epaituak eta 50, 45 eta 50 urteko espetxe zigorra jaso zuten, hurrenez hurren. Azkenik, Sam Hinga Norman, Moinina Fofana eta Allieu Kondewana CDFeko kideak ere epaituak izan ziren, 2004ko ekainetik 2007ko abuztura arte. Norman 2007an hil zen, baina beste biak 15 eta 20 urteko espetxe zigorra jaso zuten. Epaituak hainbat ume gerglariak erabiltzeagatik zigortuak izan ziren (Oosterveid, 2010: 81). Umeak zibilen aurkako indarkeriarako, bake eraikitzaileak bahitzeko, bizkarzain moduan aritzeko, patruila armatuan aritzeko, militarrek kaltetzeko, helburu militarrek babesteko eta espioitzarako erabili zituzten.

Sierra Leonarako Auzitegi Bereziak genero ikuspegia barneratzea ere lortu zuen eta lehenengo aldiz esklabotza sexuala eta ezkontza behartua gizadiaren aurkako krimen moduan zigortu ziren (Girelli, 2017a: 178). Kasu askotan, delitu hauek ez ziren era egokian epaitu, baina Auzitegi Bereziaren Apelazio Auzitegian akats horiek konpondu ziren. Genero ikuspegiaren barneratzea oso garrantzitsua izan zen etorkizuneko instituzioak horren arabera diseinatuko zirelako. Adibidez, auzitegi horrek lehenengo aldiz baiezkoa aztertu zuen esklabotza sexuarean eta behartutako ezkontzan eta baiezko hori deuseza zela adierazi zuen, ingurua aurkakoa eta hertsatzailea zelako (Oosterveld, 2010: 81).

Bestalde, SCSL berrikuntza handiak ekarri zituen nazioarteko arauetan amnistiaren inguruan, ume gudarien erabileraren inguruan eta behartutako ezkontzaren inguruan (Rodman, 2015: 50). Auzitegiak bakea eraikitze nahikoa ez zen izan, eta gobernuak bestelako ekintzak martxan jarri zituen (Ibidem: 53; Girelli, 2017a: 178). Nazioarteko ekimen horrek estatuarentzako abiapuntu berri bat ezarri bazuten ere, barne mailan justiziaren eremuak oraindik arazoak izaten jarraitu zuen (Anders, 2015: 145).

SCSLaren kanpo geratzen ziren ekintzen erantzukizuna jorratzeko beste organo bat osatu zen Sierra Leonan eta hori Sierra Leonako Egiaren eta Adiskidetzaren Batzordea izan zen. Egiaren eta Adiskidetzaren Batzordeak (TRC, bere siglak ingelesez) gatazka ondorengo bake eraikuntza prozesuetan gero eta ohikoak dira, horiek bakea eta demokrazia ezartzen laguntzen dutelako ustea zabaldu delako.

Sierra Leonako TCRA Lomé Bake Akordioan ezarri zen, gatazkan parte hartu zutenei amnistia ematen zitzaizen dokumentu berean (Benavides et al., 2018: 128). Gatazkan giza eskubideen aurkako ekintzak ugariak izan zirenez, nazioarteak, NBak bereziki, ekintza horiek jorratzeko organoren bat osatzea eskatu zuen. Testuinguruak organo horren osara hein handi batean baldintzatu zuen, gatazkaren bitartean osatu zelako, bai nazioarteko

erakundeek, bai tokiko gizarteak indarkeria bukatzea nahi zutenean. Hala ere, aurretik emandako batzordeetatik zenbait irakaspén kontuan hartu zituzten organoaren eraketan (Dougherty, 2004: 91). Esaterako, organoaren prestaketara bideratutako hiru hilabete ez ziren organoaren mandatuan barneratu, horrek bere eginbeharrak betetzeko denbora handiagoa eman zion. Lomé Bake Akordioaren XXVI. artikuluan ¹² Batzordeak zein funtzio bete behar zituen biltzen da. Horiek lau izan ziren: inpunitateari aurre egitea, indarkeriari amaiera eman, giza eskubideen aurkako ekintzen egileek eta biktimek gatazka garaian bizitakoa kontatzeko lekua izatea eta gatazkaren inguruko informazioa eskuratzea.

Aurretik bildutako xedea lortzeko hiru helburu ezarri ziren, Batzordearen Estatutuaren III. zatiko 6(1) Atalean ¹³. Lehenengo helburua gatazkan zehar giza eskubideen eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren bortxaketak biltzen dituen dokumentu inpartzial bat osatzea zen. Bigarrena, herrialdean bizi zen inpunitateari aurre egitea zen. Azkena, gatazkaren oinarrian zeuden arrazoiak jorratzea zen, indarkeriaren berpiztea ekiditeko. Aurrekoa lortzeko, biktimen beharrak asetzeko eta adiskidetzat sustatzeko neurriak proposatu behar zituen. Biktimen eremuan, garrantzi handia zuten abusu sexualen biktimen eta adin txikikoen bizipenak (Benavides et al., 2018: 129). Helburu horiek bete zitezkeen organo independentea zen, eta beharrezko langileak kontratatuzko gaitasuna zuen. Gainera, zenbait botere eman zitzaizkion; esterako, lekukoaren adierazpenak behartu ahal zituen, eta hori betearazteko kartzela zigorra ere ezarri zezakeen. Hala ere, botere horiek erabiltzeak egiaren bilketa zaildu zezaketen. Organoak urte bat eta erdiko mandatuak zuten, baina epe hori luzatu zen.

Organoaren sorrera bultzatzen GKEk eta aktibistek garrantzia handia izan bazuten ere, gizarteak ez zuen organo horren aldeko jarrerarik erakutsi (Shaw, 2005: 4). Batzordearen mandatuak NBek idatzi zuten eta Sierra Leonako Parlamentuak 2000 urtean onartu zuen (Menzel, 2020a: 597). Dena dela, Batzordearen lana ez zen 2002 urteraino hasi, indarkeria handitu zelako eta desarmatze ekintzak ez zirelako behar bezain azkar eman. Abian jarri zenean, aurretik aritutako beste TRCetan gertatu zen bezala nazioarteko eta tokiko elementuak barneratu ziren (Dougherty, 2004: 42). Hala ere, aurretik aipatutako

¹² "... Truth and Reconciliation Commission shall be established to address impunity, break the cycle of violence, provide a forum for both the victims and perpetrators of human rights violations to tell their story, get a clear picture of the past in order to facilitate genuine healing and reconciliation." (Lomé Bake Akordioa, 1999: 14).

¹³ "The object for which the Commission is established is to create an important historical record of violations and abuses of human rights and international humanitarian law related to the armed conflict in Sierra Leone from the beginning of the conflict in 1991 to the signing of the Lomé Peace Agreement; to address impunity, to respond to the needs of the victims, to promote healing and reconciliation and to prevent a repetition of the violations and abuses suffered." (TRC, 2000: 41)

tokiko aktibisten eta instituzioen parte hartzea oso mugatua izan zen eta NBetako langileak izan ziren organo horren jarduera definitu zutenak (Menzel, 2020a: 599).

TRCaren jarduera atal ezberdinetan banatu zen, hain zuzen, adierazpen bilketa, audientzia publikoak eta txostenaren idaztea (Ibídem: 597). Lehenengo fasean gertatutakoa biltzeko 75 langile aritu ziren Sierra Leona osoan zehar, eta, 10.000 adierazpen bildu ziren, datu-base batean barneratu zirenak, giza eskubideen bortxaketak zenbatu eta sailkatzeko (Benavides et al., 2018: 129). Fase hau 2003ko apirilaren 14an hasi zen eta urte bereko abuztuaren 6an bukatu zen (Dougherty, 2004: 46). Bigarren fasean, 5 hilabete iraun zituenaren kasuan, 450 pertsonak parte hartu zuten (Benavides et al., 2018: 129). Batzordea aste bat eman zuen herrialdeko distritu bakoitzean; lau egunetan audientzia publikoak ospatzen zituen eta azken egunean audientzia itxiak ospatzen ziren (Dougherty, 2004: 46). Denbora oso mugatua zenez, ekintza esanguratsuenak baino ez ziren joratu. Fasearekin bukatzeko, Adiskidetzeta Ekitaldi Nazionala ospatu zen. Abusu sexualak jasan zituzten emakumeek audientzia itxia ospatzeko aukera bazuten ere, askok era publikoan aritu ziren, haiek bizitako estigma eta ekintzaren egilea nor zen ezagutarazi nahi zutelako (Benavides et al., 2018: 129). Horri lotuta, aipatuak izan ziren pertsonak leporatutakoari erantzuteko aukera izan zuten. Gainera, adin txikiak era indibidualean aritu ziren haien bizipen guztiak biltzen zirela bermatzeko, baina hori kritikatu izan zen haien traumak berpiztu zituelako. Azken, fasea txostenaren idaztea izan zen.

TRCak 10.000 adierazpen eta beste 450 lekukoren bizipenak bildu zituen (Dougherty, 2004: 47). Ondorioz, txostenak gertatutakoa zehaztasun handiz biltzea lortu zuen eta baita oinarrian zeuden arazoak identifikatzea ere (Benavides et al., 2018: 129-130). Hori guztia 2004 urtean argitaratu zen txosten luze batean bildu zen, zeinak hiru atal zituen: lehenengoan, Batzordearen mandatua eta metodologia azaltzen ziren; bigarrean, ondorioak, aurkikuntza nagusiak, gomendioak eta biktimen zerrenda bildu ziren; eta azken atalean, aurrekari historikoak, gatazkaren izaera, aktore bakoitzaren papera eta ondorio larrienak jasan zituzten taldeak zehaztasun handiz joratu ziren.

Ondorio positiboak eman baziren ere, TRCak zenbait arazori aurre egin behar izan zien. Batzordearen gardentasun eta zilegitasun falta leporatu zitzaizkion haren sorreratik Gobernuari oso lotuta agertu zelako (Dougherty, 2004: 42). Batzordearen politizazioak haren eraginkortasuna mugatu zezakeelako agertu zen arazo hori (Shaw, 2005: 5). Hala ere, txostenak Gobernuak gatazka ekarri zuten arazoei erantzun ez zielako, horiek mantendu zirela adierazten zuen. Horrekin batera, Gobernuak RUFeko kideak kartzelaratuak mantendu zituela epaiketa gabe ere leporatu zion (Ibídem; Anders, 2015: 141). Beraz, Gobernuarekiko estutasuna ez zen hain arazotsua izan. Lomé Bake Akordioak amnistia eman zuenez, errebeldeek parte hartzeko arrazoirik ez zuten, eta, horren ondorioz, haien parte hartzea mugatu zen (MacKenzie eta Sesay, 2012: 156). Horrekin batera, gizartearen gehiengoak ahaztearen eta barkatzearen alde zegoenez, ez zuen organoaren aurrean aritu nahi (Shaw, 2005: 4). Arazoari aurre egiteko, sentsibilizazio kanpainak aurrera eramane ziren, eta parte hartzearen truke sariak emango zirela ere esan zen; hala ere, azken atalean aztertuko denez, hori ez zen bete.

Izaera horretako batzordeen epe luzeko ondorioen inguruan zalantzak daude, kasu batzuetan adiskidetzaren sustatu duten moduan, tentsioak handitu ahal dituztelako eta erregimenak abusuekin jarraitzea ahalbidetu dezaketelako. Gatazka gainditu zedin, tokiko izaera zuela ziurtatu zuten, jende gehiagoren parte hartzea lortu zutena (Mackenzie eta Sesay, 2012: 157). Aurretik aipatutako sentsibilizazio kanpainek parte hartzea sustatu zuten; ondorioz, biktima eta egile gehiagok lortu zituzten adiskidetzaren onurak. Momentuz, Sierra Leonan ez da horrelako gatazka handirik piztu eta ondorio positiboak izan dituela pentsa genezake.

Beraz, Sierra Leonaren bake eraikuntzan justiziaren eremuan bi organo nagusi zeuden: SCSLa eta TRCa. Bi erakunde horiek batera aritu ziren eta horregatik, bien arteko harremanak aztertu behar dira, horiek haien jarduera mugatu zuten edo ez ikusteko. Printzipioz, bi organo horiek osagarriak ziren eta baten jarduerak, besteari osatu beharko luke (TRC, 2004: 374). Izan ere, biek jarduera osagarriak aurrera eramatearekin batera, elkarlotuta dauden funtzioak ere aurrera eraman zituzten. Arazo nagusiak bien denbora eskumena tarte batean partekatzen zutelako eman zen, hau da, biek 1996 urtetik aurrera gertatutakoa aztertu zutelako (Trantsiziozko Justiziarentzako Nazioarteko Zentroa, 2004: 5). Bien eskumenak aztertzen direnean, zenbait ekintzetan berezita zeudela aipatu behar da, eta horrek zenbait ekintza jorratzea erraztu zuen (TRC, 2004: 373). Hori adin txikiko subjektuen kasuan eman zen, SCSLek 15-18 urte bitarteko pertsonak epaitu ahal zituen arren, hori ez zuelako egin. Erabaki horren atzean TRCak ekintza horiek jorratzeko gaitasun handiagoa izango zuelako ideia zegoen.

TRCak haren azken txostenean organo batek eta besteak zuen babesa oso ezberdina zela adierazi zuen eta horrek bata eta besteak zituzten baliabideetan eragina izan zuela baita ere (Anders, 2015: 140). Izan ere, horrek bien arteko tentsioa eta lehiakortasuna handitu zuen. SCSLak babes handiagoa izan zuenez, bai NBen partetik, bai Sierra Leonako Gobernuaren partetik, organoaren prozesuak eraginkortasun handiagoa eta erraztasun handiagoak izan zituen (TRC, 2004: 375). Lehenengo ezberdintasuna bakoitzari eskainitako funtsetan aurkitzen da, SCSLari 56 milioi dolar eman zizkieten eta TRCari 4 milioi baino ez (Anders, 2015: 140). Bigarrenik, bien arteko harremanen zehaztasun falta daukagu, hau da, ez da inon ezartzen bien arteko harremana nolakoa izan behar den eta horrek arazo handiak ekarri zituen.

Izan ere, SCSLaren Estatutuaren 8.2 artikuluan¹⁴ SCSLak auzitegi nazionalen gaineko eskumena ezartzen zuen. Horren arabera, Auzitegi Bereziak Batzordearen gaineko eskumena izango luke, baina batzordekideek horri aurre egin zioten eta ez zuten hori onartu. Izan ere, TRCa organo nazionala da eta aurrekoaren ondorioz, SCSLa haren

¹⁴ “The Special Court shall have primacy over the national courts of Sierra Leone. At any stage of the procedure, the Special Court may formally request a national court to defer to its competence in accordance with the present Statute and the Rules of the Procedure and Evidence” (SCSL Estatute, 2002: 4)

gaintik egongo zen. Horren aurrean, auzitegi ez zela adierazi zen, eta horregatik, SCSLa ez zuela eskumenik haren gainean.

Aurretik aipatu moduan, bi organoek denbora eskumen bera zeukaten, eta horregatik, biek ekintza bera aztertzea posible zen. Zehaztasun falta horrek ez zuen arazorik sortu 2003 urtera arte, urte horretan, Batzordeak Auzitegi Bereziaren kontrolpean zeuden lau espetxeraturekin hitz egitea eskatu zuen (Trantsiziozko Justiziarentzako Nazioarteko Zentroa, 2004: 5). Lau horiek Batzordearen azken txostenean agertzen zirenez, leporatutakori erantzuteko aukera eman nahi zitzairen. Auzitegi Bereziak ez zituen adierazpen publikoak baimendu, segurtasun nazionala arriskuan jarri zezaketelako, eta horren ordez, adierazpen horiek grabatuko zirela esan zuen. Izan ere, espetxeratuen adierazpen horien erabilera politikoa egingo zutela espetxeratuek argudiatu zuten aurrekoa oinarritzeko.

Kontrako egoera ez zen eman, hau da, Auzitegi Bereziak ez zuen eskatu TRCaren babespean zeuden lekukoen adierazpenik. Izan ere, gatazkan hainbat ekintza aurrera eramane zituzten pertsonak TRCaren aurrean aritzeko beldur ziren, haien esandakoa Auzitegira helduko zelakoan (Shaw, 2005: 4). Horregatik, kasu askotan konfidentzialtasuna eskatzen zuten, zeinak Batzordearen zeregina mugatu zezakeen (Trantsiziozko Justiziarentzako Nazioarteko Zentroa, 2004: 5). Aurrekoaren ondorioz, TRCak testigantza gutxi lortu zituen (Shaw, 2005: 4-5). Gerlarien testigantza faltarekin batera, biktima askok ez zuten Batzordean parte hartu, errepresalien beldurrez.

Trantsiziozko justiziaren eremuan bi organo horiek lan handia egin zuten giza eskubideen babesa sustatzen, baina tokiko kultura edo tradizioaren isla gutxi aztertzen dira. Nazioarteko baloreak eta jarduerak nagusitzen direla ikusi daiteke eta tokiko ikuspegiaren txertaketa urria izan zela ere antzeman daiteke. SCSLak nazioarteko zuzenbidea publikoaren arabera izan zenez, tokiko eragin gutxi onartu zituen, baina TRCak horretarako bide gehiago zituenez, haren jardueran hori txertatzea lortu zuen edo ez aztertu nahi da hurrengo atalean.

5. Egiaren eta Adiskidetzaren Batzordearen tokiko ikuspegiaren txertaketa

Aurreko ataletan tokiko ikuspegia zer den eta Sierra Leonako gerra zibila eta horren ondorengo bake eraikuntza prozesua gainetik azaldu dira. Azken atal honetan, Sierra Leonako Egiaren eta Adiskidetzaren Batzordearen eremuan tokiko ikuspegiaren txertaketa aztertuko da eta horretarako aurretik aipatutako autore ezberdinen hitzak erabiliko dira, hau da, autore ezberdinek tokiko ikuspegia nola definitu duten arabera, hori txertatzea lortu den edo ez aztertuko da.

5.1 Egiaren eta Adiskidetzaren Batzordea, tokiko ahotsen bozgoragailu

Sierra Leonako Egiaren eta Adiskidetzaren Batzordearen eremuan tokiko ikuspegia nola txertatu zen ikusteko egingo den lehenengo azterketa tokiko biztanleriaren parte hartzearen ingurukoa izango da, eta gatazkan kalte gehiena sufritu zutenen egoeraren azterketa zehaztasun handiagoz aztertuko da. Izan ere, Eliza Randazzoren hitzetan (2016: 1353), isilduak izan diren pertsonen ahotsa entzutea baita tokiko ikuspegiaren txertaketa, testuinguru honetan, emakumeak eta ume eta gazteak. Bi talde horien egoera gatazka aurretik ere bazterketa handia zekarren, gizarte hartan estatusa lurraren jabetzaren, ezkontzaren eta “gaztea izatetik” graduatzearen arabera definitzen baita (Mahony eta Sooka, 2015: 50-51).

Sierra Leonako gerra zibilean umeei kalte handiak jasan zituzten, indarkeria handia jasatearekin batera hezkuntza urte asko, familiaren laguntza eta haien bizimodua izandakoa galdu zutelako (Parmar, 2010: 375). Umeei batera, 18 eta 25 urte bitarteko gazteak ere barneratu behar dira, azken horiek ere gatazka aurretik zuten babes galdu zutelako, eta, ondorioz, gizartetik baztertuak geratu ziren. Beraz, talde hori gatazkan biktima garrantzitsu izan zen, baina horrekin batera, gudari moduan ere aritu ziren (Souris, 2017: 316). Beraz, biktima izateaz gain, biktimario ere izan ziren. Batzordeak argi adierazi zuen umeen eta gazteen bi izaera horiek kontuan hartu behar zituela.

Emakumeek ere indarkeria handia jasan zuten gerra zibilean eta Batzordeak hori era orokorrean baino ezin izan zuen jorratu, organoak oinarrian zituen printzipioen ondorioz (Unobe, 2022: 432-433). Izan ere, printzipio neoliberal indibidualistak zeuden oinarrian eta horrek genero indarkeria zehaztasunez tratatzea oztopatu zuen. Gainera, printzipio horiek esfera pribatuan emandako indarkeria jorratzea ere zaildu zuten, Batzordearen jardueratik kanpo geratu zelako. Hala ere, zenbait erakundek indarkeria hori jorratzeko hezkuntza programak aurrera eramane zituzten (Andrews, 2016: 214). Eta edonola ere, aurrerago aztertuko denez, Batzordearen jardueran genero ikuspegia barneratzea lortu zuten.

Batzordearen jarduera aztertuko denean ikusiko denez, organoaren osaeran nazioarteko agenteek garrantzi handia izan zuten. Diseinua nazioarteko aktoreen esku usteak tokiko tradizioaren barneratzea oso mugatua izatea ekarri zuen (Svärd, 2010: 43). Ondorioz, tokiko gizartearen parte hartzea oso mugatua izan zen. Aurrekoa egia izanda ere, barkamen ospakizunak eman ziren Batzordearen eremuan, tokiko tradizioaren parte zirenak (Kelsall, 2005: 388-389). Ospakizun horietan erasotzaileak barkamena eskatzen zuten eta bertan bizi zen giroaren ondorioz, biktimak hori onartu behar zuten, eta ekintza honek adiskidetzarako lehenengo baldintzak prestatzen zituen. Ospakizun horiek barnebidu zitezten, jauntxoak eta erlijio liderrak garrantzitsuak izan ziren, beharrezko elementu kulturalak, ohitura eta balioak txertatu zituztelako (Mahony eta Sooka, 2015: 45-47).

Aurrekoa egia izan bazen ere, Batzordearen saioetan nazioarteko presentzia handia zen eta tokiko biztanleak kanpoan geratu ohi ziren (Shaw, 2007: 199). Horrek tokiko agentzia zaildu egin zuen, tokiko parte hartzea adierazpenak egitera mugatu zelako. Nazioarteko presentzia handia Batzordearen jardueraren ondorio zen. Organoa herrialdearen probintzia bakoitzera zihoan eta han Batzordearen aurrean arituko ziren pertsonak aukeratzen ziren (Millar, 2011: 519). Aukeratutakoak, probintzia hiriburura zihoazen eta bertan eskola batean edo udaletxean aritzen ziren. Adierazpena familia kide batekin edo aholkulari batekin egiten zuten, baina kasu askotan nazioartekoak ziren batzordekideen eta froga jasotzaileen aurrean aritzen ziren. Gainera, Sierra Leonako biztanleek Batzordearen jarduera era egokian ulertzen ez zuten, ez ziren saio horietara bertaratzten, nazioarteko presentzia handia azaltzen duena.

Batzordearen jarduera laguntzeko, organo horren inguruko informazioa komunikabideen bidez transmititu zen (Ajetunmobi, 2019: 414). Izan ere, Batzordeak egunero egiten zuena komunikatzen zen. Horri esker, Batzordeak 10.000 adierazpen aldera bildu zituen, biztanleriak gertatutakoa kontatzeko nahi handia zuela adierazten duena. Adierazpenak identitate ezberdinak zituzten agenteek egin zituzten; hau da, biktimak, erasotzaileak eta lekukoak aritu ziren Batzordearen aurrean, adierazpenen edukia oso zabala izatea bermatu zuena. Hala ere, eremu batzuetan adierazpenak egiten zituzten pertsonak babesteko arazoak izan zituzten, babes hori adierazpenak era pribatuan egitera mugatzen zelako (William eta Opdam, 2017: 1292). Babes horren falta kasu askotan berbiktimizazioa zekarren, zeinak talde zaurgarrien egoera kaltetu zuen.

Emakumeen egoera bereziki zaurgarria zenez, Batzordeak horiek babestu nahi zituzten, baina emakumeek ez zuten babes horretan konfiantzarik, haien parte hartzea gutxitu zuena (Andrews, 2016: 214). Emakume eta neska ahalik eta gehien aritu zitezenean, horien konfiantza bermatuko zuen klima osatzeko neurriak ezarri ziren. Azkenean, adierazpenen %36a emakumeek egin zituzten (Martin, 2021a: 461). Adierazpen horien edukia orokorregia zen askotan, emakumeek gatazkan bizitakoa berpiztu nahi ez zutelako. Adibidez, indarkeria sexualaren inguruko adierazpenak urriak izan ziren, emakume askok egoera horiek publikoki jorratzea adiskidetzat oztopatu zezakeela pentsatzen zutelako (Graybill, 2011: 106). Nolanahi ere, adierazpen horiek emakumeei haien egoerak ezagutarazteko aukera bermatu zien.

Nazio Batuek genero ikuspegia barneratzeko proposamenak egin zituzten, hori eremu askotan nola egin azaldu zuten (Sharland, 2021: 106-107). Batzordeak gatazka gainditzeko gomendioak eman behar zituenez, ikuspuntu hori txertatu behar zuen. Hori lortzeko bidea emakumeen eta nesken adierazpenak biltzea zen, haien beharrak identifikatu ahal izateko (Menzel, 2020b: 317-318). Era horretan, Sierra Leonako Batzordeak genero ikuspegia txertatzen mota honetako lehenengo organoa izan zen, eta emakumeen adierazpenak batzearekin batera, bestelako jarduerekin ere lortu egin zen (Saskin eta Ackerman, 2019: 495-496). Izan ere, aurreko batzordeek trantsiziozko justiziaren ikuspegi lineala zeukaten oinarri, zeinak emakumeentzako leku berezia

diseinatzea oztopatzen zuen. Sierra Leonaren kasuan hori gainditu zen eta genero ikuspegia txertatzea lortu zuten.

Umeen kasuan antzeko egoera eman zen, horiek trantsiziozko justiziaren eremuan zuten estatus bereziaren ondorioz (Parmar, 2010: 391). Umeen egoera oso berezia zen, haien beharrak oso handiak zirelako, eta gatazkaren ondorioz, babesgabezia agerian zeudelako. Gainera, Batzordeak egoera horiek tratatzeko mandatu berezi bat zuen, hau da, mandatu horrek umeen babesa eta haien giza eskubideen bultzada zuen helburu, trantsiziozko organoetan lehenengo aldiz eman zena (Cook eta Heykoop, 2010: 189).

Ume eta gazteen parte hartzea haien giza eskubideen babeserako ezinbestekoa denez, hori sustatu behar zen. Hala ere, haien egoera berezia zenez, baldintza bereziak diseinatu ziren, babes handiagoa izan zezaten. Hori dela eta, umeen adierazpenak beti era pribatuan egin zituzten Sierra Leonan eta inoiz ezin ziren bakarrik aritu; izan ere, umekin aritzeko prestatuak zeuden pertsonak egon behar ziren (Schabas, 2006: 32). Neurri horien bidez, haien adierazpenei berme handiagoak ezarri zitzaizkien.

Genero ikuspegiaren txertaketak eta umeen babesak Batzordearen funtzio soziala adierazten dute, baina horiek bakearen alde eta erantzukizunaren eremuan egindako lanean ere antzeman daitezke (Friedman, 2015: 62). Izan ere, ikuspegi horren ondorioz, gizartearen parte hartzea handiagoa izan zen (Ibidem, 2017a: 88). Horrek, Sierra Leonako biztanleriak gatazkan pairatutakoa errepikatzea nahi ez zuela adierazten du. Gainera, Batzordeak tokiko gizartearen parte hartzea sustatzeko lanean arrakastatsua izan zela ere erakusten du (Ajetunmobi, 2019: 420). Horri esker, gizartean zeuden behar asko eta komunitatearen barruan bizi ziren egoerak ezagutu ahal izan zituen Batzordeak horien araberako gomendioak emateko (Friedman, 2015: 62).

Batzordearen aurrean aritu ziren pertsonen gatazka gainditzeko zer egin behar zen galdetzen zitzairenean, proposamen asko egiten zituzten (Schabas, 2006: 32; Martin, 2021a: 461). Era horretan hezkuntza, osasun eta nekazaritza eremuan aldaketak beharrezkoak zirela ikusi zen (Friedman, 2015: 59), eta hainbat kasutan behar horiek asetzeko bideak ere adierazi zituzten (Ibidem; Schabas, 2006: 59).

Bereziki garrantzitsuak izan ziren indarkeria sexualaren eremuan adierazitako beharrak (Andrews, 2016: 214). Esaterako, emakumeek lege berrien beharra adierazi zuten, laguntza eta babesa bermatu zitzairen. Behar horiek Batzordearen Azken Txosteneko gomendioen atalean bildu ziren. Hala ere, beharrak adierazteak emakumearen kasuan kostu handiak ekarri zituen (Graybill, 2011: 110-111). Batzordearen aurrean indarkeria sexuala salatzen zuten emakumeek haien komunitatera bueltatzen zirenean estigma handiari aurre egin behar zioten eta horri aurre egiteko beharra gomendioetan ere bildu zen, adibidez, emakumeen egoera kontuan hartzen zuen sistema legala eta judiziala beharrezkoa zela. Emakumeen aurkako indarkeriarekin batera, emakume eta gizonen arteko disparekotasun handiak ere jorratu behar zirela esaten zuten gomendioek. Gomendio horietan emakumeen beharrak identifikatzeko lan handia egin zuen Batzordeak genero ikuspegiaren txertaketa handia izan zela adierazten duena.

Orain arte biktimen inguruan aritu gara, baina horiekin batera, erasotzaileak eta lekukoak ere aritu ziren. Lekukoek aurretik aztertutako adierazpen egoera berdina bizi zuten, baina erasotzaileen egoera berezia izan zen. Gatazkan gudari moduan aritu zirenak gizartearen zati handi bat zirenez, beren egoera ere kontuan hartu behar zen. Erasotzaileak bertan aritzean, egin zutenaren zergatiak eta egoerak adierazi ahal izan zituzten (Ajetunmobi, 2019: 415), zeinak haien komunitatera bueltatzeko prozesua lagundu zuen, gainerako populazioak ulertu ahal izan zituztelako (Friedman, 2015: 63). Prozesu horretan laguntza handikoak izan ziren aurretik aipatutako barkamen ospakizunak (Alie, 2008: 131). Erasotzaileen aurkako errepresaliak eman ahal ziren arren, Batzordean adierazpenak egin zituzten (Shaw, 2007: 194).

Umeen kasuan argi ikusi zen biktima izateaz gain, erasotzaile edo gudari ere izan zirela, eta, horregatik, Batzordeak bi izaera horiek kontuan hartu behar zituen (Souris, 2017: 316). Ume eta gazteak gudari izan zirenez, haien komunitatean bertan kalteak sortu ahal izan zituzten, eta, ondorioz, komunitateko kideek horiek lagundu nahi ez izatea gertatzen zen (McQueen, 2019: 124). Hala, ume eta gazteen birgizarteratzea geldotu zen. Horren aurrean, umeen adierazpenak zabaldu ziren haien egoera ezagutarazteko, eta, era berean, gudari izaera gainditzeko proiektuen eta neurrien eraginkortasuna bermatu nahi zen. Emakumeen kasuan egoera horiek ez ziren jorratu, eta, ondorioz, emakume gerlariek ez zuten prozesu hori bizitzeko aukera izan (Cullen, 2020: 124). Beraz, emakume gerlarien birgizarteratzea prozesu oso zaila izan zen.

5.2 Batzordearen ondorioak gizartearen ikuspuntutik

Tokiko ikuspegiaren txertaketa ematen denean, gizartearen oinarrian dauden beharrak ezagutu ahal dira, eta horrela, horiek erantzun ahalko dira gizartearen egoera hobetzeko (Brigg eta George, 2020: 411). Aurreko azpiatalean gatazkan kalte handiena jasan zuten pertsonak entzun zituztela ikusi da, eta honakoan, horretaz gain, tokiko beharrak erantzun ziren edo ez ikusi nahi da tokiko ikuspegiaren txertaketaren maila ezartzeko. Alde batetik, populazioaren behar materialak bete ziren edo ez aztertuko da, eta, bestetik, Batzordearen sorreran eskatzen zen adiskidetzatza lortu zen edo ez.

Aurretik aztertu denez, adierazpen kantitate handia bildu ahal izan zuen Batzordeak eta horrela giza eskubideen bortxaketa nagusiak ezagutu (Cahill-Ripley, 2014: 204-205). Hala, biztanleen behar nagusiak eta giza eskubideen bortxaketa nagusiak ezagutu ziren. Egoera horiei erantzuna emateko ordainsariak eman ziren, baina horiek ez ziren nahiko izan (Amstrong eta Ntegeye, 2006: 15-16), eta Batzordeak ordainsariaren kantitatea handitzeko gaitasuna ez zuen izan (Shaw, 2007: 203). Gomendioek behar askori aurre egiteko bideak biltzen bazituzten ere, erantzuna oso mugatu izan zen.

Identifikatu ziren beharren artean, besteak beste, etxebizitzak eskaintzea, hezkuntza eta heziketa sistemak indartzea, osasun sistema hobetzea eta nekazaritzaren garapenerako laguntzak zeuden (Friedman, 2015: 59). Behar material horiekin batera, bestelako behar sinbolikoak ere bete behar zirela ikusi zen. Partehartzaileen gehiengoak Batzordeak haien beharrak erantzuteko gaitasuna zuela uste zuelako parte hartu izan zuen (Kennedy, 2018:

346). Behar horiei aurre egiteko funts handiak behar ziren, baina emandakoak ez ziren nahikoa izan (Svärd, 2010: 43).

Azken batean, Batzordeak tokiko beharren identifikazioa baino ez zuen egin behar eta Gobernuaren esku zegoen gomendioen betearazpena. Organoaren funtzioa, beraz, gomendioak egitea baino ez zen. Gomendioak betearazteko mandatua ez zuelako gertatu zen aurrekoa (Amstrong eta Ntegeye, 2006: 15-16). Mandatu falta horrek Batzordearen jarduera gelditu zuen eta han sortutako dinamikak ere oztopatu zituen; horren ondorioz, gizarteak organoekiko zituzten espektatiba asko ez ziren bete (Friedman, 2017b: 108). Nolanahi ere, zenbait espektatiba bete ziren; haien artean, gizartea haren beharrak ezagutarazteko zuen espektatiba bete egin zen (Ajetunmobi, 2019: 427); batez ere, emakumeen eta umeen kasuan (Cahill-Ripley, 2014: 205).

Aurreko azpiatalean jada ikusi da Sierra Leonako Batzordeak genero indarkeriaren eremuko beharrak identifikatu zituela, eta indarkeria hori aurre egiteko bide bat ezartzea lortu zuela, zigor zuzenbidearen esferatik kanpo (Park, 2006: 333). Izan ere, behar horiei aurre egiteko proiektuei lehentasuna eman zieten, besteak beste, instituzioak indartu eta emakumeei bideratutako hezkuntza programak diseinatu (Valji, 2012: 10). Hala ere, emakumeen aurkako indarkeria mantendu egin zen, gizonak emakumeek zuten paper berrira egokitzeke izan zituzten arazoan ondorioz (Unobe, 2022: 433). Gainera, martxan ipinitako proiektuak ez ziren nahikoa izan emakumeen behar guztiak erantzuteko (Menzel, 2020b: 318).

Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko arau sistema patriarkala aldatzeko neurriak hartzeari ekin zen (Park, 2006: 335). Horrekin batera, ohituretan ere eragina izatea bilatu zuten (Oosterveld, 2015: 131-132). Zentsu horretan 2009 urtetik aurrera hiru lege nagusi onartu ziren: Ohiturazko Ezkontzaren Onarpena eta Dibortzio Legea, Aktiboen Itzulketaren Legea eta Etxebizitza Barruko Indarkeria Legea. Aldaketa legal horiek handiak izan baziren ere, ez ziren nahikoa izan haien beharrei erantzuteko, emakumeek Batzordeak nazioarteko erakundeekin zuen harremanagatik, nazioarteko erakundeen laguntza sareetara sarbidea izango zutela pentsatzen zuten (Kennedy, 2018: 346). Izan ere, Batzordeak laguntza hori bermatzeko gaitasunik ez zuen.

Bestalde, Batzordeak umeen beharrak identifikatzeko gaitasuna izan zuen arren, behar horiek erantzuteko gaitasuna ez zuen izan (Parmar, 2010: 392). Horrek umeek eta gazteek zituzten espektatibak apurtzea ekarri zuen (Shaw, 2004: 318-320), eta, horientzako Batzordeak ez zuen haren funtzioa bete (Cook eta Heykoop, 2010: 183). Gazte eta ume gerlariek zituzten behar batzuei erantzuna emateko desarmatze, desmobilizazio eta birgizarteratze politikak ezarri baziren ere, horiek ez ziren nahikoa izan (Parmar, 2010: 376). Hala, umeak eta gazteak gizartetik baztertuak jarraitu zuten. Emakumeen kasuan gertatzen zen bezala, ume eta gazteek Batzordea birgizarteratzeko bidea zela ere pentsatzen zuten eta hori ez zitzairen bete, nahiz eta horretarako lehenengo pausoak bertan eman ziren.

Umeek kasu askotan haren bizitzaren zati handi bat indarkeria handiko egoeretan eman zuten, eta, horregatik, haien beharrak ez erantzuteak egoera hori mantenduko luke eta indarkeria erabiltzen jarraituko lukete (McQueen, 2019: 125). Izan ere, biziraupenerako bide bereziak bilatu behar izan zituzten, kasu askotan meatzaritzari lotuak egongo dira, non haien giza eskubideen babesa bermatuta ez dagoen (Parmar, 2010: 376).

Gizarteak umeen birgizarteratzea adiskidetzarako beharrezko baldintza zela adierazi zuen, indarkeria jasateaz gain, haien garapen prozesua eten baitzen (Friedman, 2017a: 89). Umeen ahotsa entzutea lortu bazen ere, haien beharrei erantzun mugatua eman zitzaien eta horien birgizarteratzea ez zen lortu (Cahill-Ripley, 2014: 204-205).

Emakumeek eta gazteek Batzordeak haien parte hartzearen truke emango zituen ordainsariak ez zituela eman adierazi zuten (Shaw, 2007: 198). Organoaren aurrean aritzeagatik ordainsari txiki bat emango zitzaizela zabaldu zen, baina azkenik Batzordeak nahikoa funtsarik ez zituelako ez zen diru hori eman. Alde batetik, biztanleriak Batzordearekiko zuen espektatiba bat ez zen bete era horretan, aurretik aipatutako ez betetzeetara gehitu behar dena. Bestetik, biztanleriaren parte hartzearen atzean zegoen arrazoien artean, ordainsari hori zegoela adierazten du. Ordainsari hori ez jasotzeak eragin bereziki negatiboa izan zuen gazteriaren artean, pobrezia oso zabaldua zegoen gatazkaren ondorioz eta diru kantitate txiki horrek egoera hori leuntzen lagundu zezaketelako (Cook eta Heykoop, 2010: 180-181).

Batzordeak biztanleriaren beharrak erantzuteko gaitasuna izan ez zuen, baina, arestian esanenez, hori ez zen haren helburua. Batzordeak biztanleriaren beharrak identifikatu behar zituen, eta, horrekin batera sendaketa prozesu bat lagundu behar zuen. Batzordearen sustatzaileak egia sendaketarako bidea zela transmititzen saiatu ziren, baina gizarteak ez zuen mezu hori jaso (Kennedy, 2018: 345). Biztanleriak ez zuen egia adiskidetzarako bide moduan ikusten, haien behar materialak erantzuteko bidea baino (Ibídem: 316). Behar horiei erantzuteko gaitasuna izan ez zuenez, biztanleriaren espektatibak ez zituen bete, eta, ondorioz, adiskidetzaren prozesua oztopatu zuen.

Adituen aburuz, adiskidetzaren prozesua sustatzeko behar horiei erantzuna eman behar zien, bereziki biktimen kasuan (Park, 2006: 333). Biktimen egoera hobetu ez zen heinean, disparekotasun estrukturalak mantendu ziren, zeinak gatazka gainditu dela adierazten duen bakea ez lortzea ekarri zuen. Gearoid Millarrek (2011: 528) egoera hori azaltzeko figura oso egokia erabiltzen du, hain zuzen, etxe batena. Autore horren arabera, etxe bat eraikitzea ez da nahikoa, etxe hori eguneroko bizitzan aurrera eramaten diren ekintzak aurrera eramaten ahal direla bermatu behar du. Adiskidetzaren eta bakea, beraz, eguneroko bizitzarako beharrezkoak diren osagaiak bermatzearen bidez lortzen dira.

Batzordeak hiru adiskidetzaren mota sustatu nahi zituen, egiaren kontakizunaren bidez (Friedman, 2015: 64). Lehenengoa, indibiduala da, biktimaren eta erasotzailearen artekoa. Bigarrena, komunitate mailakoa da, zeina erasotzaileen eta komunitatearen artean ematen den. Hirugarrena, nazionala da eta horrek nazioaren berreraikitzea du helburu. Aurreko adiskidetzarekin batera, Joseph Humper Batzordearen presidentek intradiskidetzaren ere

eman behar zela adierazi zuen, hau da, gudari ohien barne barkamena (Ibidem, 2017a: 98). Gudari ohiek haien burua ere barkatu behar zuten gainerako adiskidetzak posible izan zedin. Adiskidetzak lortzeko gatazkan aritu ziren agenteen parte hartzea beharrezkoa zen, eta parte hartze hori eman egin zen, aurreko atalean aztertu denez (Mahony eta Sooka, 2015: 48). Hala ere, gudarien birgizarteratzea osoa izan ezenez, adiskidetzak proposatu lortu zenik ezin da onartu (Friedman, 2015: 64).

Tokiko tradizioaren parte ziren barkamen ospakizunak adiskidetzak indibidualak sustatu zuten lehendabizi (Kelsall, 2005: 388-389). Kasu horietan erasotzaileak egindakoa onartzen zuten, eta biktimek, tokiko liderraren laguntzarekin, hura barkatzen zuten. Ekintza horrek gainerako adiskidetzak sustatzen zuen, hau da, komunitateko adiskidetzak eta adiskidetzak nazionalerako oinarri izan zen. Batzordearen arabera, adiskidetzak indibidualak adiskidetzak nazionalak eman zedin beharrezkoa zen (Friedman, 2017a: 97). Izan ere, azken adiskidetzak horrek denbora luze beharko luke eta momentuko belaunaldiak gainditzen ditu.

Batzordeak trantsiziorako justiziaren eremuan aurrerakuntza handiak ekarri zituen, horien artean, giza eskubideen bortxaketak jorratzea zeuden; gizarteak adierazten zituen beharren bilketa (Mahony eta Sooka, 2015: 51), edo inpunitatearen amaiera sustatu (Millar, 2013: 1999). Era horretan, mota horietan ekintzak ez errepikatzea bultzatzen da. Sierra Leonan eskala handiko indarkeria errepikatu ez dadin, helburu hori bete dela onartu daiteke, baina, ordea, adiskidetzak osoa ez da lortu (Mahony eta Sooka, 2015: 46-47). Alde batetik, gazteriaren menpekotasuna eta aurreko bazterketa mantendu zelako. Bestetik, eliteak gatazkan izandako papera joratu ezenez, haiek aurrera eramane zituzten krimenak ez zirelako Batzordean ukitu, inpunitatearen aztarna dena. Egiturazko arazoei erantzuna eman ez zitzaizela adierazten du aurrekoak. Gainera, Batzordearen eremuan parte hartzaileak haien rola arabera taldeetan aritzen zirenez, agente desberdinen arteko dinamika sortzea oztopatu zuen (Friedman, 2017a: 99).

5.3 Batzordearen azterketa instituzionala

Atal honetan, Batzordearen jardura instituzionalaren azterketa izango da, Gearoid Millarrek (2014: 505) instituzioen hibridazioaren inguruko azterketan oinarrituta. Autore horren arabera, hibridazioa lau motatakoa izan daiteke: instituzionala, praktikoa, erituala eta kontzeptuala. Lehenik, hibridazio instituzionala nazioarteko eragin handiena duen instituzioei erreferentzia egiten die, nazioarteko agenteek diseinua eta plangintza egiten dutelako eta tokiko elementuak eskasak direlako. Bigarrenik, hibridazio praktikoa nazioarteko agenteek zein egoera edo elementu onartuko diren eta zeintzuk ez erabakiko dute, baina tokiko agenteen eskuetan utziko da prozesuaren diseinua. Hirugarrenik, hibridazio eritualetan tokiko erritoei garrantzi handia daukaten eta kanpotik datozen elementuak oso gutxi dira. Azkenik, hibridazio kontzeptuala daukagu, zeinak eguneroko jardura oinarri duen, hau da, hibridazioa edonon eta edonorengain eman daiteke, beraz, ezin daiteke alde aurretik planeatu. Atal honetan Batzordea aztertu nahi da aurreko zein hibridazioa mota den ikusteko.

Azterketa honekin hasteko, Batzordearen sorrera prozesua aztertuko da nazioarteko eragina zein izan zen ikusteko. Batzordearen sorrera 1999ko Lomé Bake Akordioan ezarri zen, eta Sierra Leonako Gobernuaren eta RUFeko kideen artean (Hollis, 2015: 23). AFRCko kideen parte hartzea oso mugatua izan zen, adostutakoa aurrera eramatea asko zaildu zuena, bi alde nagusien interesak baino ez zituen biltzen. Gainera, RUFek eragin hain handia izateak, gizarte zibilaren erresistentzia sustatu zuen (Amstrong eta Ntegeye, 2006: 6). Izan ere, gizarte zibilak ez zuen RUFeko kideek hainbeste onura izatea nahi, eta, horregatik, Akordioak gizartearen babes mugatua izan zuen.

Akordioaren helburu nagusia bakea bultzatzea zen, baina horrekin batera gatazkan gertutako ekintzengatiko inpunitatearekin bukatu nahi zuen. Izan ere, Batzordea (eta Auzitegia) azken helburu hori betetzeko osatu zen, Nazio Batuen eta Afrikako Batasunaren laguntzarekin. Organo horren osaera eskaera nazionalaren ondorio izan zen, baina nazioarteko erakunde bultzadarik gabe organo horren sorrera ez zen lortuko (Friedman, 2015: 57). Eremu nazionalan organo hori eskatu zuten erakundeen artean garrantzia handia izan zuen Erljioarteko Kontseiluak. Edonola ere, tokiko erakundeen, parte hartzea Batzordearen osaera prozesuan oso mugatua izan zen, horien parte hartzea oso txikia izan zelako (Ibidem, 2017a: 88).

Nazioarteko erakundeek, ordea, garrantzi handia izan zuten Batzordearen jardura aurrera eramaten. Nazio Batuak organoaren jarduerarako beharrezkoak ziren funtsak lortu zituen, bere jardueraren sustatzaile nagusia zelako. *Amnesty International* Nazioarteko GKEak ere organo horren aldeko lan handia egin zuen, nahiz eta Batzordearen jardueran parte hartze zuzenik ez izan. Sierra Leonako Gobernuak jardura horiek aurrera eramateko nahikoa funts ez zituenez, beharrezkoak ziren baliabideak eskuratzeko arazo handiak izan zituen (Schabas, 2006: 39). Aurretik azaldu izanenez, tokiko biztanleriak organo horren beharra ez zuen adierazi, tokiko bideen erabiltzearen aldekoak baitziren, eta horrek tokiko agentzia murriztu zuen.

Lomé Bake Akordioaren arabera, Sierra Leonako Batzordeak Hegoafrikako ereduarekin bat egiten zuen, egiaren bilaketaren aldeko jardura baino, egiaren kontaketa sustapena bultzatzen baitzuen (Kennedy, 2018: 345). Dena den, tokiko tradizioa aztertzen, egiaren kontaketa publikoa ez dela gatazka gainditzeko bidea ikusi daiteke, eta horrek tokiko agentzia hein handi batean mugatu zuen. Horrela, gizartearen parte hartzea sustatzeko biztanleak mota horretako jardueretan entrenatu behar izan zituzten; Sierra Leonako Batzordeak Hegoafrikan hasitako tradizioarekin jarraitu zuen, eta, horregatik, gatazkaren kontakizun nazional komun bat osatzera bideratu zen haren jardura (Millar, 2011: 521). Kontakizun komunaren eraikuntzak, zigorrak ezartzeak baino onura handiagoak ditu gatazka gainditzeko prozesuak sustatzen. Batzordeak biktimen egoera biltzen zuen kontakizunaren bidez, gatazkaren gainditze osoa lortuko zuela pentsatzen zen.

Sierra Leonako Egiaren eta Adiskidetzaren Batzordean, nazioarteko elementuak ere asko izan ziren, hau da, nazioarteko eragina handia izan zen organo horretan (Schabas, 2006:

23). Era berean, nazioarteko organoen ordezkaritza handia izan zen; NBen Idazkari Nagusiaren Sierra Leonako ordezkaria eta Giza Eskubideen Goi Mailako Batzordekidea, esaterako bertan aritu ziren, eta hiru batzordekide aukeratu zituzten.

Nazioarteko elementuak asko izan ziren arren, tokiko elementuak ere ugariak izan zirela esan behar da. Rosalind Shaw (2007: 206-207) autorearen arabera, Batzordeak Hegoafrikako Egiaren Batzordearen eremuan sortu zen tradizio berriarekin jarraitu bazuen ere, tokiko elementuak txertatzeko gaitasuna izan zuen. Hain zuzen, instrumentu berri bat sortzeko gaitasuna izan zuela adierazten du Shawek. Beraz, Batzordearen sorreran, nazioarteko elementuek garrantzi handia izan zutela ikusi daiteke, baina tokiko aktoreek, Gobernuak bereziki, prozesuaren diseinuan eragin nabarmena ere izan zuten.

Batzordearen jardueraren eremuan hibridazioaren adierazle handi bat batzordekideak izan ziren. Batzordekideak nazionalak eta nazioartekoak izan behar ziren, eta baita Sierra Leonako gizarteko talde guztien adierazle ere, Lomé Bake Akordioaren XXVI. artikuluari¹⁵ jarraituz (Mahony eta Sooka, 2015: 38-40). Nazioarteko eta tokiko agenteen arteko eztabaidak handiak izan ziren batzordekideen aukeraketan eta horren adibide da presidentearen aukeraketa. Nazioarteko agenteek George Biguzzi apaiza aukeratu nahi zuten presidente, baina Sierra Leonako Gobernuak Joseph Humper (azkenean Presidente izan zena) gotzainaren alde egin zuen. Presidente hori Gobernuarekin lotura oso estua zuen eta aukeraketa horrek tokiko autoritateek erabakiak hartzeko zuten askatasuna adierazten du (Friedman, 2015: 84).

Hala ere, oro har, tokiko populazioak inolako erabakitzeke aukerarik ez zuen izan. Liberiaren kasua aztertzean, ordea, tokiko agentzia handiagoa izan zela ikusi daiteke, eta, Liberiako Batzordean aritutako pertsona guztiak aukeratu aurretik, biztanleriari galdetu zioten horiekiko zuen iritzia, eta horren arabera izan zen azken erabakia (Amstrong eta Ntegeye, 2006: 13). Gainera, tokiko agentzia sustatzeko, Anne Menzelen (2020: 318) arabera, horrelako ekintzak ez dira nahikoa, eta biztanleriaren parte hartzea baino, bestelako neurriak ere hartu behar dira.

Azkenean, alde batetik, batzordekide nazionalak honakoak izan ziren: Joseph Humper, presidentea; Laura Marcus-Jones, Auzitegi Gorenaren epailea izandakoa; John Kamara, Njala University Collegeko zuzendaria; eta, Sylvanus Torto, Sierra Leonako Unibertsitateko irakaslea izandakoa (Friedman, 2017a: 88). Nahiz eta tokikoak izan, ez

¹⁵ “3. Membership of the Commission shall be drawn from a cross-section of Sierra Leonean society with the participation and some technical support of the International Community. This Commission shall be established within 90 days after the signing of the present Agreement and shall, not later than 12 months after the commencement of its work, submit its report to the Government for immediate implementation of its recommendations.” (Lomé Bake Akordioa, 1999: 16-17)

ziren oso ezagunak, eta presidentearen papera oso kritikatu izan zen Gobernuarekin zituen loturen ondorioz, eta Gobernuaren aldeko jarduera bultzatzen zuelako

Eta, bestetik, nazioarteko batzordekideak hiru izan ziren: Yasmin Sooka, Hegoafrikako Batzordean aritutakoa; Ajaaratou Satang Jow, Gambiako hezkuntza ministro ohia; eta Williams Schabas, Irlandako Unibertsitate Nazionaleko Giza Eskubideen Irlandar Zentroko zuzendaria (Friedman, 2017a: 85). Berrero ere, ez ziren oso ezagunak eta, gainera, ezagunak egin zitezten beharrezkoa zen presentzia ere ez zen eman. Batzordekideak ezezagunak izatea, gizartearen parte hartzea ere zaildu zuen. Gainera, haiei zegozkien funtzioak baino gehiago bete behar zituztenez, zailtasun handiak izan zituzten haien jarduera aurrera eramateko.

Batzordekideen lana genero ikuspegi handia izan zuen. Emakumeen presentzia handiarekin batera, emakume horiek bake eraikuntzaren eremuan ezagutza handia zutelako; baita emakumearen aurkako indarkeriaren inguruko ezagutza ere (Unobe, 2022: 431). Horrek genero ikuspegia txertatzen lagundu zuen, batez ere, Yasmin Sooka batzordekidearen kasuan, mota horretako organoetan jada aritua zenez, organoak izan zitzakeen arazoak aurreikusteko gaitasuna zuelako.

Genero ikuspegia txertatzeko gaitasun handia izan zuten, giza eskubideen inguruko hezkuntza funtzio handia bete zuten. Izan ere, gatazkan giza eskubideen bortxaketa larriak gertatu ziren eta horregatik, lan handia egin zuten batzordekideek gizartean giza eskubideen inguruko ezagutza hedatzen. Horrek bake eraikuntzaren eremuan ezagutza handia zeukatela adierazten du (Ajetunmobi, 2019: 426-427). Gainera, giza eskubideen bortxaketak epaitzeko funtzioa Sierra Leonarako Auzitegi Bereziak zuenez, Batzordeak giza eskubideen bortxaketa horiei aurre egiteko beharrezkoak ziren neurriak proposatu zituen.

Tokiko ikuspuntuaren txertaketa osoa izan dadin, Millarren (2014: 505) arabera, hibridazioa eguneroko bizitzan eman behar da. Hain zuzen, Sierra Leonako kasuan, nazioarteko ekimenak eguneroko bizitzan txertatu behar ziren, hau da, Batzordearen eragina eguneroko jardueran isla izan behar zuen. Aurreko guztiak, Batzordea hibridazio praktikoaren adibide dela adierazten du. Eguneroko bizitzan eragina izateko gaitasuna ez zuen izan eta nazioarteko agenteek haren jarduera kontrolatzeko gaitasun handia izan zuten. Tokiko ordezkariak presentzia handia izan bazuten ere, eragin hori nazioartearen kontrolpean zegoela argi ikusten da.

Bestalde, Batzordeak gazteriaren birgizarteratzea eta komunitate barneko barkamena lortu ez zuenez, tokiko ekimen pribatuak ere sortu ziren helburu horrekin, haien artean garrantzitsuenetakoa Fambul Tok izan zen (Langer, 2017: 195-196). Fambul Tok gobernuz kanpoko erakundea 2007an sortu zen eta Sierra Leonako Egiaren eta Adiskidetzaren Batzordea heldu ez zen herrietan adiskidetza eta justizia lantzeko; izan ere, Batzordea heldu ez zen 10 probintzietan aritu da adiskidetza sustatzen, gehien bat, Kailahun, Koinadugun eta Pujehun probintzietan (Friedman, 2017a: 102). Fambul Tok “familia elkarrizketa” esan nahi du, eta tokiko tradizioaren oinarritutako adiskidetza

elementuak ditu oinarri, hain zuzen, biktima eta erasotzailea aurrez aurre ipini, sute baten inguruan, egiaren kontaketa barkamena eta adiskidetzak sustatzen duen prozesua batean, eta horrekin, biktimen duintasuna berreskuratzeko (Bøås eta Tom, 2016: 151).

Fambul Tok erakundeak hainbat hilabete ematen ditu herri bakoitzean, Batzordeak edo instituzio ofizialek konpondu ez zituzten egoerak jorratzen (Girelli, 2017b: 238). Adiskidetzak sustatzeaz gain, tokiko beharrei erantzuna emateko proiektuak sortzen dituzte, eta komunitateko kideei taldeak osatzea proposatzen diete garapena sustatzeko ekintzak aurrera eramanez ditzaten (Martin, 2021b: 390). Ekintza horien artean daude gatazkak konpontzeko bide alternatiboak ezartzea, biztanleriaren egoerak eztabaidatzeko eta ezagunak egiteko helburua duten irratiko programen osaketa, gazteentzako futbol txapelketen antolaketa eta komunitate baserrien osaketa.

Ekintza horiek birgizarteratzea lagundu dute, agentzia indibiduala agentzia kolektiboaren eremuan kokatzen dutelako. Erakunde horretan nazioarteko eragina oso mugatua da, eta, ondorioz, adiskidetzak laguntzen du. Hala ere, izaera hibridoa badu, tokiko tradizioarekin batera, kanpoko estandarrekin bat ere egiten dutelako (Girelli, 2017b: 239). Nazioarteko eragina handia izan ez bada ere, tokiko biztanleriaren agentzian eragina izan du (Bøås eta Tom, 2016: 152), eta baita tokiko bake eraikuntza sustatu ere (Martin, 2021b: 391).

Fambul Tok erakundeak tokiko kaltearen ordainketa bilatzen du, baina haren benetako eragina oraindik ez da ezagutzen (Friedman, 2015: 70). Hala ere, erakundeak gizartearen hierarkiak apurtu dituzte eta emakumeen parte hartzea sustatu duenez, gizartearen emantzipazioan Batzordeak baino eragin handiagoa izan dezake. Gainera, belaunaldi arteko eta komunitate barneko adiskidetzak sustatu du, tokiko biztanleriaren agentziaren bidez (Ibidem, 2017b, 119-121). Hala ere, garrantzi handiko zenbait gai ez dira jorratu, indarkeria sexuala, esaterako.

Laura Martin (2021b: 398) autoreak, ordea, Fambul Tok ez dela guztiz tokikoa izan adierazi du. Haren arabera, momentuaren arabera gizarteak dituen eskaerak erantzuteko eta bertan aurkitzen diren beharrak identifikatzeko gaitasuna izan behar du tokiko ikuspegia duen ekimen batek. Gizarteak etengabe aldatzen dira eta aldatzea horien aurrean aritu behar dira momentu oro tokiko ikuspegia txertatu nahi duten ekimenek. Hala ere, bai Martinek, bai bestelako autoreek tokiko eta behetik gorako ikuspegiaren barneratzearen aldeko ekimen garrantzitsuenetarikoa bat dela onartu dute (Girelli, 2017b: 239).

5.4 Nazioartekoaren eta nazionalaren arteko frikzioak

Hibridazioak esan nahi du instrumentu hibridoek nazioarteko eta tokikoaren arteko ulermen bitarra gaindituko dela (Mac Ginty, 2010: 397). Izan ere, hibridazioak nazioarteko elementuak barneratzea ahalbidetzen du, tokiko interesak edo jarduerak errespetatzen direlarik, beraz, bi agente horiek batera arituko direla esan nahi du. Gauzak horrela, eta tokiko ikuspuntuaren txertaketaren analisiarekin bukatzeko, bi dimentsio

horiek norabide berean aritu diren edo ez aztertuko da, hain zuzen ere, bien arteko frikzioak aztertuko dira.

Izan ere, bi eremu horien arteko antzekotasunak edo ezberdintasunak aztertzeko, bake eraikuntzaren eremuan garapen handia izan duen kontzeptua erabili da: frikzioa. Justiziaren ulermena oso ezberdina da gizartearen arabera, eta, horregatik, leku bakoitzean hori nola ulertzen den aztertu behar da. Afrikar gatazka ondorengo prozesu batzuetan erantzukizunaren aldeko jarduerak aurrera eraman beharrean, bestelako izaera duten jarduerak aurrera eraman dira eta horiek kasu askotan nazioarteko estandarrekin bat ez dute egin. Horiei frikzio deritze, Sierra Leonan, esaterako, aurretik azaldutako Hegoafrikaren Egiaren Batzordearen ondoriozko berrikuntzak justiziaren ikuspuntuan ere aldatu dute (Millar, 2011: 521-522).

Esan dugun moduan, Sierra Leonako Egiaren eta Adiskidetzaren Batzordearen sorreran nazioarteko eragina egon zen, eta horrek tokiko egoera txertatzeko ezagutza nahikoa zuten inguruan zalantzak ekarri zituen (Svärd, 2010: 43). Ezagutza horren faltak tokiko tradizioa ezin txertatzea ekarri ahal zuen eta, ondorioz, benetako adiskidetzak oztopatu. Ondorio nagusia izan zitekeen erasotzaileak berriro gizartearen parte izatea ez lortzea. Tradizioa ezin txertatzea Batzordearen jarduerak aztertzen denean ikusi daiteke, hori eremu kosmopolitetan eraikitako paradigmatan oinarritzen delako (Kennedy, 2018: 346-347). Praktika horiek tokiko kultura paradigma globaletara egokitzeko bidea ireki zuen, nahiz eta aurretik aipatu moduan, hori ez izan tokiko gizartearen nahia. Tokiko ordezkariak aritu ziren Batzordean, baina bertako tradizioa txertatzeko aukera ez zuten izan (Alie, 2008: 131). Hala ere, hiletak, memorialak eta antzeko egoerak tokiko tradizioaren arabera ospatzea lortu zen.

Sierra Leonako gizarteak bakea lortzeko egiaren kontakizuna ez zuen nahi, horren ordez, barkatu eta ahaztu jarreraren alde egiten zuen; izan ere, populazioak barkamena eta ahaztearen bidez gerran gertatutakoa ez adierazteari erreferentzia egiten zioten (Kennedy, 2018: 345-346). Eta populazioak eskatzen zuen bidea beste bat zen arren, Batzordeak egiaren kontakizuna inposatu zuen. Hala ere, komunitateen eremuan, gerlari ohiei gerran gertatutakoa ahaztera behartzen zituzten, gerran gertatutakoa ahazteak eta oroitzapen horiek ez adieraztea gatazka gainditzeko benetako bidea zelakoan. Horren ondorioz, Batzordean aritu ziren pertsonak egintzen kontakizunera mugatu ziren eta bakarrik haien beharren inguruan galdetzerakoan, benetako hitz egiteko nahia adierazten zuten (Kelsall, 2005: 370-371). Batzordean ari zirenek ez zuten Batzordean haien nahigabeak adierazteko lekua ikusi, eta horrek adiskidetzak sortzeko bere gaitasuna mugatu zuen. Gizarteak “barkamena eta ahaztea” ikuspegiaren alde egin zuen eta aurrera begiratzearen eta garapen ekonomikoaren beharra adierazi zuten. Hala ere, Batzordearen jarduerak RUFek aurrera eramandako ekintzetan sakondu zuen eta ez zuen gizarteak eskatzen zuena bete (Friedman, 2017a: 105).

Batzordearen jardueraren inguruan beste frikzio bat aurkitu dezakegu, akademiaren ikuspuntua gizartearenarekin konparatzen denean (Ibídem, 2017b: 110-111). Gizarteak

Batzordeak egindakoarekin ados zegoen, gizartearen beharrak erantzuteko beharrezko neurriak hartuko zituelakoan. Akademiak ez zuen jarduera hori nahiko zenik onartu, legearen nagusitasuna sustatu behar zuela pentsatzen zuelako. Batzordeak teorikoki, aurretik aipatu moduan, erreparazioa bilatzen zuen, hau da, gatazkan emandako indarkeriaren aurreko ordainketa bultzatu behar zuen (Millar, 2011: 528-529). Edonola ere, aurrekoa ez zen bete biztanleriak azalarazitako beharrak jaso zituen arren, horiek erantzuteko gaitasuna izan ez zuelako.

Aurretik aztertu denez, egiaren eremuan ere frikzioak egon ziren gizartearen eta Batzordearen artean (Kennedy, 2018: 345-346). Batzordeak egia sendatzeko bidea zela ulertzen zuen bitartean, gizartea ez zegoen ados. Nahiz eta onura horiek komunikatzen saiatu, gizarteak nazioaren berreraikuntzarako ahaztea zela bidea pentsatzen jarraitu zuen. Egiaren kontakizuna komunikatzen saiatu ziren arren, gizarteak hori ez zuen era egokian jaso (Millar, 2011: 519).

Orain arte aztertu diren frikzioak Batzordearen jarduerari erreferentzia egiten diote, baina Batzordearen eremuan nazioarteko agenteen eta tokiko autoritateen artean eman zen frikzio handiena amnistiaren ingurukoa izan zen. Hori Gobernuaren erabaki baten ondorio izan zen, baina nazioarteak ez zuen onartu, eta, horregatik, bultzatu zituzten Batzordea eta Sierra Leonarako Auzitegi Berezia.

Lomé Bake Akordioaren IX. artikulua¹⁶ amnistia ezarri zuen, gerran aritu ziren pertsona guztientzako. Izan ere, amnistiarik onartu ez balitz, RUFeko kideak zirenek ez zuten inolako akordiorik sinatuko eta horrek bakerako bidea are gehiago zailduko luke (MacKenzie eta Sesay, 2012: 156). Horren aurka agertu zen hasieratik Nazio Batuen Erakundea, eta, horregatik, ekintza larrienak aurrera eramane zituzten pertsonak epaitzeko beste erakunde bat sortu zuen (Hollis, 2015: 23). Bertako erakunde zibilak ere horren aurka agertu ziren, gehien bat, GKE n bidez.

Nazioarteko agenteek ekintza bortitzenak epaitzeko beharra zegoelako sortu zuten Sierra Leonarako Auzitegi Berezia (Ibídem: 20-21). Organo zigortzaile horrekin batera,

¹⁶ “1. In order to bring lasting peace to Sierra Leone, the Government of Sierra Leone shall take appropriate legal steps to grant Corporal Foday Sankoh absolute and free pardon. 2. After the signing of the present Agreement, the Government of Sierra Leone shall also grant absolute and free pardon and reprieve to all combatants and collaborators in respect of anything done by them in pursuit of their objectives, up to the time of the signing of the present Agreement. 3. To consolidate the peace and promote the cause of national reconciliation, the Government of Sierra Leone shall ensure that no official or judicial action is taken against any member of the RUF, ex-AFRC, ex-SLA or CDF in respect of anything done by them in pursuit of their objectives as members of those organizations, since March 1991, up to the time of the signing of the present Agreement. In addition, legislative and other measures necessary to guarantee immunity to former combatants, exiles and other persons, currently outside the country for reasons related to the armed conflict shall be adopted ensuring the full exercise of their civil and political rights with a view to their reintegration within a framework of full legality.” (Lomé Bake Akordioa, 1999: 9)

Batzordea ere osatu egin zen, gatazkan emandako bestelako ekintzak jorratzeko eta horien inpunitatearekin bukatzeko.

Artikulua zehaztasunez aztertzen denean, amnistia gudariak zituzten helburuen arabera zehaztuko zela ikusi daiteke (MacKenzie eta Sesay, 2012: 151). Hala ere, bake eraikuntza prozesuarekin hastean, helburuak ez ziren kontuan hartu eta ekintza guztiak barneratu ziren amnistiaren mandatuan. Gainera, Sierra Leonako biztanleriaren gehiengoak amnistia eskeintzen zuen Bake Akordioaren alde agertu zen. Haien arabera gatazkaren ondorioak ez jorratzea bakea ekarriko zuen eta horiek jorratzea, aldiz, indarkeriaren buelta ekar zezakeen.

Aurreko ataletan aipatu denez, pertsona asko Batzordearen aurrean ez zuten parte hartu erasotzaileak haien aurka joateko beldurra zeukatelako. Beraz, amnistiak babesa eskaintzen zien, ez zutelako inor salatu behar. Interesgarria da puntu horretan Sierra Leonako amnistia, Hegoafrikako amnistiarekin konparatzea. Sierra Leonan era zuzenean eskaini zuen amnistia, eta Hegoafrikan, aldiz, Egiaren Batzordean parte hartzea eskatzen zuen amnistia emateko (Ibídem: 157). Horregatik, amnistiak ez zuen parte hartzea sustatzea lortu. Errebeldeek eta gudariak ez zuten Batzordean parte hartzeko onurarik eta biktima eta lekukoen esku utzi zen hein handi batean Batzordearen aurrean gatazkan gertatutakoa adieraztea.

Beraz, amnistiak tokiko ikuspegia hoberen ordezkatzeko instrumentua zen. Gatazkari aurre egitea ahalbidetzeaz gain, gatazkan gertatutakoa ahaztea ere ahalbidetzen zuelako, populazioak nahi zuen moduan. Nazioarteko erakundeek hori ez zuten onartu eta haien printzipioen arabekoak diren jarduerak bultzatu zituzten, tokiko nahia kontuan hartu gabe. Gainera, Batzordearen jarduera hein handi batean kaltetu zen, biktimak eta lekukoak behartu zirelako haien bizipenak aurkeztera. Erasotzaileek, ordea, Batzordearenaurrean aritzeko hobaririk ez zuten, haien parte hartzea lortzea zaila izan zen.

5.5 Batzordearen ondorioak eta haien garapena

Batzordeak, lana bukatzerakoan, hainbat gomendio proposatu zituen, eta horiek parte hartzaileek adierazitakoa erantzuten zuten. Hala ere, benetako erreformarik ez zuen lortu. Izan ere, gomendio egokienak eman ahal izateko, Batzordeak ahalik eta adierazpen gehien eta talde gehien ordezkarien partetik lortu nahi zituen, bertan bizi ziren egoera ahalik eta gehien ezagutzeko (Kelsall, 2005: 368).

Batzordearen Azken Txostenak gizarteak eskatzen zituen aldaketa guztiak bildu zituen. Horiek aurrera eramanez, Sierra Leonan benetako aldaketak gertatuko ziren eta giza eskubideen aldeko babesa handituko zen (Alie, 2008: 131). Erreforma horiek ez ziren lortu hurrengo arrazoi hauengatik: Sierra Leona herrialde oso pobrea zenez, politikak aurrera eramateko zailtasunak zituen; ebola gaixotasunak sortutako kalteak, herrialdeak edozein motatako egoerari aurre egiteko zuen zaurgarritasuna erakutsi zuen; Batzordearen azken txostenaren komunikazioa oso urria izan zen; eta Batzordearen jarduera kanpotartzat hartu zen, zeinak bere jardueraren jarraipena murriztu zuen (Langer,

2017: 197). Politikak aurrera eramatea lortu ez bazen ere, Batzordeak biztanleriak zituen beharrak ezagutarazten lagundu zuen, eta, ondorioz, behar horiek erantzuteko beharrezkoak ziren eskubideen aldeko lana sustatu zuen (Friedman, 2017b: 126).

Batzordearen jardueran emakumeek parte hartze handia izan zuten, esaterako, adierazpenak biltzen lan egiten zutenen artean %40a emakumeak ziren (Unobe, 2022: 432). Emakumeen presentzia handi horrek genero ikuspegia txertatu zuen Batzordearen jardueran, eta, era horretan, emakumeen aurkako indarkeria jorratu ahal izan zen. Horri esker, emakumeen aldeko lege erreformak aurrera eramane ziren. Era horretan, aldaketa sozial handiak eman ziren, nahiz eta oraindik lan handia egiteke emakumeen eskubideen babesaren eremuan Sierra Leonan.

Batzordeak zuen funtzio bakarra gomendioak ematea zen eta bere gomendioak aurrera eramateko eskumenik ez zuen, ezta horretarako funtsik ere (Amstrong eta Ntegeye, 2006: 17). Gobernuak betearazi behar zituen gomendio horiek eta Gobernuak hori egiteko nahia ez du erakutsi. Ondorioz, benetako ordainik ez da lortu eta gatazkan emandako kalteak ezin izan dira konpondu. Hori politikariek eta gizarteak orokorrean, gomendio horiek biltzen zituen dokumentuaren jarraipenik egin ez zutelako gertatu zen.

Gainera, gatazka gainditzeko biztanleriak zituen behar ekonomikoak erantzun behar ziren aurrera egiten jarraitu ahal izateko (Millar, 2011: 529). Behar materialak erantzuten ez diren bitartean, gatazka osorik gainditu denik ezingo da esan. Sierra Leona herrialde pobrea izaten jarraitzen du eta pobrezia egoerak hainbat pertsona gatazkan parte hartzera bultzatu zituen, egoera honi aurre egin behar zaio gatazka berri bat piztu ez dadin.

Populazioak proposamenak egiten zituen, gatazkaren ondorioei aurre egiteko bideak eta horiek aurrera eramaten lan egiteko prest zegoela ikusi daiteke. Biztanleriaren parte hartzea aztertzen denean, horiek haien beharrei aurre egiteko beharrezkoak ziren neurriak argi zituztela ikusi daiteke, besteak beste, pobrezia gutxitzea, langabeziari aurre egitea eta garapena sustatzea (Ibídem: 529).

Gobernuak neurri horiek ezartzeko Ekimen Sozialerako Batzorde Nazionala (NaCSA) sortu zuen (Mahony eta Sooka, 2015: 48-49). Instituzio horrek beharrak zituzten 27.992 pertsona identifikatu zituen eta horiei laguntza eman zien 2009 urtetik, 2014 urtera arte. Urte horretan NaCSA funtsik gabe geratu zen eta ezin izan zuen laguntza ematen jarraitu. Izan ere, laguntza horiek Gobernuak biktimen zenbait eskubide onartu zituelako eman zen. Giza eskubideen bortxaketak eman zirela onartzean, horiei aurre egiteko neurrien beharra ere adierazi zuen (Cahill-Ripley, 2014: 204-205). Laguntza giza eskubideen bortxaketaren ondorioei aurre egiten lagundu nahi bazuen ere, hori baino, garapen ekonomikoa sustatu nahi zuen (Amstrong eta Ntegeye, 2006: 16). Hala ere, biktimen egoeraren hobekuntza txikia izan zen, eta, egoera ez hobetzearekin batera, eremu batzuetan biztanleriaren artean zeuden disparekotasunak handitu ziren (Friedman, 2017b: 109).

Zentsu horretan, Tim Kelsallen (2005: 371) arabera, eta arestian esan denez, gatazkan biktima izandakoek organoa erreparazioarako bidea baino, gatazkan bizitakoari aurre egiteko beharrezkoak zituzten baliabideak eskuratzeko bidea zirela uste zuten. Horren ondorioz, gizarteak Batzordearekiko zituzten espektatibak, Batzordearen funtzioarekin bat ez zetozen.

6. Ondorioak

Herrialde batek aurrera egiteko eta bere populazioan dauden beharrei erantzuna emateko gaitasuna izan dezan, bakea beharrezko baldintza bat da. Baina herrialdeek ez dute edozelako bake eraiki behar, baizik eta denbora luzean zehar mantenduko den bakea. Hori lan honetan ikusi denez, tokiko eta genero ikuspegia duten bake eraikuntza prozesuen bidez baino ezin daiteke egin. Izan ere, bi ikuspegi horiek dira, gizarteak dituen beharrak ezagutzeko gaitasun handiena duten bideak. Horrenbestez, bi ikuspegi horiek nola eman diren aztertu da lan honetan, Sierra Leonaren kasuan eta hango Egiaren eta Adiskidetzaren Batzordean, zehazki.

Sierra Leonako gerra zibilak ondorio oso latzak utzi zituen, bertan emandako ekintza asko indarkeria eta bortizkeria handikoak izan zirelako. Halaber, populazioaren gehiengoak gatazkaren ondorioak jasan zituen, bai zuzenean, bai zeharka. Gainera, bertan aritu ziren pertsona askok rol bat baino gehiago bete zuten (hala nola, biktima eta biktimario), rol horiek guztiak kontuan hartzeko gaitasuna zuten neurriak hartu behar ziren. Aurreko guztiak Sierra Leonako bake eraikuntza prozesua konplexutasun handikoa izan zela adierazten du. Konplexutasun horiek indarkeriaren amaieran ere nabariak izan ziren, su etete eta bake akordioen sustatzaileak izan ziren taldeak zilegitasun urrikoak izan zirelako, eta ekintza horietaz ere baliatu ziren gatazkarekin aurrera egiteko.

Izan ere, nazioarteko agenteen parte hartzea eman zen arte ez zen posible su etete hori adostea. Behin indarkeria gelditzea lortu zela, Nazio Batuek hainbat ekintza aurrera eramane zituzten Sierra Leonan, bake eraikuntza prozesuarekin hasteko. Aitzitik, horiek zehaztasunez aztertzen direnean, lehen atalean kritikatu den bake liberalak eskatzen dituen baldintzak betetzera bideratu direla ikusi daiteke. Horrek prozesuak izan zituen hutsuneak nabariak izan zirela adierazten du. Izan ere, hauteskunde demokratikoen ospatzea eta desarmatzea eta desmobilizazioa izan ziren ekintza horien helburu nagusiak. Hala ere, helburu horiek ez ziren tokiko gizarteak adierazitako beharrak asetzeko bide egokia, haien beharrak estatu eraikuntzaren eremutik kanpo zeudelako eta eguneroko bizitzan zeuden beharrei erreferentzia egiten ziotelako. Izan ere, gizarteak aurrera eramandako ekintzak aztertzen direnean, horiek umeen egoera hobetzera eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunei aurre egitera bideratzen zirela ikusi daiteke.

Sierra Leonan, beste hainbat gatazka ondoko bake eraikuntza prozesuetan gertatu den moduan, nazioarteko jarduerak ez dituzte tokikoen beharrak erantzuteko bideak eraiki eta horrek horien zilegitasuna zalantzan jartzen du. Edonola ere, prozesu horiek arrakastatsuak izan direla errepikatzen da eta hori indarkeria berririk piztu ez delako eman

da. Arrakasta hori ez zen bakarrik NBek aurrera eramandako ekintzei esker lortu, horrekin batera gizarte zibilak ere aurrera eraman zituen ekintzak ere horretan eragin handia izan zuten; emakumeen egoera hobetzeko legeen kasua, esaterako, NBen ekitea baino, gizarte zibilak eskatutako neurria izan zen. Gainera, ikuspegi kritikotik aztertzen badira nazioarteko prozesuaren ondorioak, bertan emandako arrakasta bakarra gatazka armatua gelditzearena izan dela ikusi daiteke.

Lanaren azken zatian argi ikusi da zelan tokiko gizarteak adierazitako beharrak erantzutea ez zutela lortu ez Egiaren eta Adiskidetzaren Batzordeak, ezta Gobernuak ere. Izan ere, lanaren lehenengo atalean azertu denez, emakumeen bake kontzeptuak indarkeria falta baino elementu gehiago barneratzen ditu eta, beraz, indarkeria falta bera bakea lortzeko nahikoa ez da. Hori kontuan hartuta, bake iraunkorra eraikitzea ez da lortu Sierra Leonan. Sierra Leonako gizarteak ume eta gazteen egoera hobetu behar zela adierazi zuen bakea lortzeko eta, horiek laguntzeko bideak ezarri ez zirenez, meatzaritzara jo behar izan zuten, non haien giza eskubideen errespetua ez den bermatzen. Hori lanean jorratu den egoera bat baino ez da, baina Sierra Leonan momentuan bizi den egoera aztertzen denean, gizartearen beste eskaera batzuk ez direla erantzun ere ikusi genezake.

Lanean ez dira gizarteak eskatzen zituen beharrak zehatz mehatz azertu, ezta gobernuak emandako erantzunak sakontasunez ere ez, lanaren helburua Batzordeak izandako tokiko ikuspegia aztertzea zelako. Hala ere, Batzordeak Gobernuarekin batera gizarteak adierazitako beharrei erantzuna ez emateak, organo horrek tokiko gizartearekin aritzeko zituen mugak agerian uzten ditu, eta, ondorioz, tokiko ikuspegia ez zuela era egokian barneratu. Horren aurrean, organoak bere jarduerarekin hasi aurretik tokiko autoritateekin batera jardun dezakeela bermatu behar du, eta baita hori sustatzeko beharrezkoak diren neurriak hartu behar ditu.

Lanaren bosgarren puntuan zehaztasunez azertu da egoera hori, eta nola nahiz eta zenbait egoerari erantzuteko gaitasuna izan, gehienetan tokiko ikuspegia txertatzeko gaitasuna ez zuela izan. Batzordeak lan oso zintzoa egin zuen tokiko gizarteak zituen beharrak identifikatzeko, emakumeen eta ume eta gazteen kasuan bereziki, baina eremu horretatik kanpo oso tokiko elementu gutxi barneratu zituen. Aurretik esan bezala, Batzordeak Gobernu behar horiek betetzera behartzeko gaitasunik ez zuen izan, eta organoak berak prometatutako hainbat gauza betetzeko gai ere ez zen izan. Era berean, gizarteak bere jarduera ez zuen ez ulertu ezta jarraitu, hutsune oso handia izan zena; laburbilduz, Batzordeak bere jarduera zein zen ez zuen era egokian komunikatu eta hori gizarteak egokiak ez ziren espektatibak izatea ekarri zuen.

Bertan, lanean sortutako zalantza bat agertzen da. Batzordea bere lana gizarteari komunikatzeko gaitasuna izan ez bazuen, eta horrek espektatiba okerrak sortzea ekarri badu, tokiko ikuspegia egoki txertatu ez duela esan nahi du? Nire ustez, erantzuna baiezkoa da; izan ere, Batzordeak gizartearekin era egokian komunikatzeko gaitasunik izan ez badu, bertako gizartearen barneratzea lortu ez duela adierazten du. Gizartearen

beharrei erantzuten Gobernuaren funtzioa zen, ordea, Batzordearen funtzioa zela pentsatzen zuen gizarteak eta hori ahultasun nabaria da.

Batzordeak beharrak erantzuteko gaitasuna eza ez zen tokiko ikuspegiaren txertaketa eskasaren adierazle bakarra. Egoera horri nazioarteak bere sorreran eta jardueran izandako eragin handia gehitu behar zaio. Hasteko, nazioarteko -batez ere, Nazio Batuen-funtsarekiko menpekotasuna izan zutelako. Gero, batzordekideak aztertu zirenean, tokiko autoritateek horiek aukeratzeko gaitasun handia izan zuten: tokiko eliteek aukeratu zuten nor arituko zen bertan. Izan ere, Gobernuak bere kabuz erabaki zituen batzordekideak eta ez zituen kontuan hartu gizartearen interesak erabaki hori hartzerako orduan, tokiko ikuspegiaren aurkakoa dena.

Are gehiago, tokiko ikuspegiaren barneratzea lortzen lagundu ahal zuten jarduera batzuk Batzordeak oztopatu zituen. Izan ere, oro har, gizartea gatazkan gertatutakoa ahaztearen alde agertu zen, Batzordeak, ordea, garai horretan gertatutakoa gogoraraztera behartu zituen, nazioarteko komunitateak horrela egitearen alde zegoelako. Gainera, ahazteko gaitasuna zuen neurria bat, amnistia, nazioarteko eraginaren ondorioz, baztertu zen. Egiaren kontakizunaren aldeko jarduerak aztertzen direnean, horiek emakumeen eta ume eta gazteen berbiktimizazioa ekarri zutelako aztertu da, haien nahien aurka aritu behar izan zirelako organo horren aurrean. Lanean zehar autore askok hori positibotzat hartu izan duten arren, ez dut uste hori egokia denik. Halaber, gatazkan aritutako borrokalariak haien egoera kontatzeko eta populazioak haiek ulertzeko aukera izan zuten arren, biktimek gertatutakoa ahazteko aukera ez zuten eta emakume eta nesken kasuan, bereziki, horren ondorioz, bazterkeria handia bizi zuten. Beraz, nahiz eta Batzordea borrokalari ohien egoera jorrazteko organo egokia izan, biktimeen egoera zaugarria larriagotu zituen, haien nahien aurka aritzera behartu dituztelako.

Lanean esfera publikoko ekintzak aztertu dira gehien bat, baina esfera pribatuan eman den jarduera bat ere jorratu da, Fambul Tok, hain zuzen. Esfera publikotik kanpo emandako jarduerak Sierra Leonako bake eraikuntza prozesuaren arrakastak ulertzen lagundu dezake, eta nahiz eta hori lan honetan egin ez den azterketa bat da. Eremu hori aztertzeak Sierra Leonan gertatutakoa hobeto ulertzeko lagundu zezakeen eta baita laneanegin den azterketa osatzen lagundu ere. Gobernu Kanpoko Erakunde horrek Batzordearen jarduerak izandako hutsuneak betetzeko helburua zuen, tokiko ikuspegia txertatzeko ahalmen handiagoa izan duela ikusi ahal izan da, batez ere, tokiko tradizioanarritutako elementu gehiago barneratu dituelako. Edonola ere, erakunde horren ondorioak oraindik ez dira argiak, eta horrek Batzordeak izan dituen hutsuneak betetzeko gaitasuna izan duen edo ez esatea zaildu egiten du.

Aurreko paragrafoetan bildutakoa kontuan hartuta, lanarekin hasi aurretik nituen usteak zapuztu dira. Mota honetako batzordeak tokiko ikuspegia barneratzeko eta gizartearen beharrei erantzuna emateko instrumentuak zirelakoan, horiek sakontasunez aztertzen direnean, hori ez dela beti betetzen ikusi dut. Horrek bestelako instrumentuen eraikuntza beharrezkoa dela pentsarazten dit. Izan ere, Sierra Leonako bake eraikuntza prozesuan

tokiko ikuspegiaren eta genero ikuspegiaren txertaketa oso mugatua izan dela ikusi da eta horrek bake iraunkor bat eraikitzea ez du ahalbidetu. Izan ere, prozesuaren ondorioak aztertzen direnean, bake iraunkorrerako beharrezkoak diren hainbat baldintza ez direla bete argi ikusten da. Are gehiago, tokiko eta genero ikuspegia txertatuta zeukaten zenbait jarduerak mota horretako bakea eraiki ahal bazuten ere, horiek prozesutik kanpo geratu zirela ikusi da. Hortaz, zalantza honako hau da: Sierra Leonako bake eraikuntza prozesuak ekintza horiek barne hartu izan balitu, zein puntutaraino bake iraunkor bat eraikitzeko gaitasuna izango zuen, eta prozesuaren ondorio positiboagoak lortzeko ere.

7. Bibliografía

Liburuak, kapituluak eta artikuluak

- Abdullah, Hussaina J. eta Fofana-Ibrahim, Aisha (2010) “ The Meaning and Practice of Women’s Empowerment in Post-conflict Sierra Leone”. *Development* 53(2), 259-266. orr.
- Ajetunmobi, Abdulsalam Olatubosun (2011) A study of the Mechanisms of Effects of Sierra Leone’s Truth and Reconciliation Commission on Democratic Governance [Doktorego Tesia, Ann Arbor]. Ann Arbor University Repositories.
- Alie, Joe A. D. (2005) “Reconciliation and Traditional Justice : Tradition-based practices of the Kpaa Mende in Sierra Leone” in Luc Huyse eta Mark Salter (Ed.) *Traditional Justice and Reconciliation after violent conflict. Learning from African Experiences.* International IDEA, Stockholm, 123-196. orr.
- Amstrong, Andrea eta Ntegeye, Gloria (2006) “The devil is in the details: The challenges of transitional justice in recent African peace agreements”. *African Human Rights Law Journal* 6(1), 1-25. orr.
- Anders, Gerhard (2015) “Transitional Justice, States of Emergency and Business as Usual in Sierra Leone” in Gerhard Anders eta Olaf Zenker (Ed.) *Transition and Justice: Negotiating the Terms of New Beginning in Africa*, Wiley Blackwell, Sussex, 135-152. orr.
- Andrews, Penelope (2016) “Justice, Reconciliation and the Masculinist Way: What Role for Women in Truth and Reconciliation Commissions?”. *New York Law School Review* 60, 199-224. orr.
- Asangna, Clotilde (2017) “An examination of the Sierra Leone war”. *African Journal of Political Science and International Relations* 11(5), 103-111. orr.
- Bangura, Ibrahim (2016) “We can’t eat peace: Youth, sustainable livelihoods and the peacebuilding process in Sierra Leone”. *Journal of peacebuilding & development* 11(2), 37-50. orr.
- Bellows, John eta Miguel, Edward (2009) “War and local collective action in Sierra Leone”. *Journal of Public Economics* 93, 1144-1157. orr.
- Benavides, Farid; Mateos Martin, Oscar eta Camps Febrer, Blanca (2018) “Límites y desafíos de la Justicia Transicional en las nuevas transiciones: un análisis crítico a partir de los casos de Sierra Leona, Marruecos y Colombia”. *Relaciones Internacionales* 38, 121-145. orr.
- Bendaña, Alejandro (2005). “From peacebuilding to state building: one step forward and two steps back?” *Development* 48(3), 5-15. orr.
- Bøås, Morten eta Tom, Patrick (2016) “ International Interventions and Local Agency in Peacebuilding in Sierra Leona” in Oliver P. Richmond eta Sandra Pogodda (Ed.) *Post-liberal Peace Transitions. Between Peace Formation and State Formation.* Edinburgh University Press, Edinburgh, 143-159. orr.
- Brigg, Morgan eta George, Nicole (2020). “Emplacing the spatial turn in peace and conflict studies”. *Cooperation and conflict* 55(4), 409-420. orr.

- Bulduk, Ceren; Onyesoh, Joy eta Achakpa, Mimidoo (2022) “Exploring gendered understanding of peace in Delta State in Elisabeth Prügl, Rachel Kunz, Mimidoo Achakpa, Henri Myrntinen, Joy Onyesoh, Arifah Rahmawati, Christelle Rigual eta Wning Udasmoro (Ed.) *Gender in peacebuilding*. Brill Nijhoff, Leiden eta Boston, 45-64. orr.
- Cahill-Ripley, Amanda (2014) “Foregrounding socio-economic rights in transitional justice: realising justice for violations of economic and social rights”. *Netherlands Quarterly of Human Rights* 32(2), 183-213. orr.
- Chandler, David (2022). “Critique and the coloniality of being: rethinking development discourses of encounter”. *Law and critique* 33, 337-354. orr.
- Cohen, Dara Kay (2013) “Female combatants and the perpetration of violence. *War-time Rape in the Sierra Leone Civil War*”. *World Politics* 65(3), 383-415. orr.
- Cook, Philip eta Heykoop, Cheryl (2010) “Child participation in the Sierra Leonean Truth and Reconciliation Commission” in Sharanjeet Parmar, Mindy Jane Roseman, Saudimini Siegrist eta Theo Jowa (Ed.) *Children and Transitional Justice. Truth-telling, Accountability and Reconciliation*. Harvard University Press, Cambridge, 159-191. orr.
- Cullen, Laura C. (2020) “Female Combatants and the Post-Conflict Process in Sierra Leone”. *Journal of International Women’s Studies* 21(2), 114-125. orr.
- Dougherty, Beth K. (2004) “Searching for answers: Sierra Leone’s Truth & Reconciliation Commission”. *African Studies Quarterly* 8(1), 39-56. or.
- Dupuy, Kendra eta Binninsbø, Helga Malmin (2008) “Buying Peace with Diamonds? Power-sharing Agreements in Sierra Leone”. *CSCW Policy Brief 7/2008*.
- Felix da Costa, Diana eta Karlsrud, John (2012) “Contextualising liberal peace for local circumstances: unmiss and local peacebuilding in South Sudan”. *Journal of peacebuilding and development* 7(2), 53-66. orr.
- Friedman, Rebekka (2015) “Restorative Justice in Sierra Leone: Promises and Limitation” in Kirsten Ainley, Rebekka Friedman eta Chris Mahony (Ed.) *Evaluating Transitional Justice. Accountability and Peacebuilding in Post-Conflict Sierra Leone*. Palgrave Macmillan, New York, 55-76. orr.
- Friedman, Rebekka (2017a) “Underdevelopment, Peace-Building and Marginalization. The Establishment of a Restorative Agenda in Sierra Leone” in Rebekka Friedman (Ed.) *Competing Memories. Truth and Reconciliation in Sierra Leone and Peru*. Cambridge University Press, Cambridge, 74-105. orr.
- Friedman, Rebekka (2017b) “Localism and Pragmatic Solidarity in Sierra Leone” in Rebekka Friedman (Ed.) *Competing Memories. Truth and Reconciliation in Sierra Leone and Peru*. Cambridge University Press, Cambridge, 106-127. orr.
- George, Nicole (2018a) “Liberal-local peacebuilding in Solomon Islands and Bougainville: advancing a gender-just peace?”. *International Affairs* 94(6), 1329-1348. orr.
- George, Nicole (2018b) “Hibridity and regulatory authority in Fiji: vernacular perspectives on gender and security” in Joanne Wallis, Lia Kent, Miranda Forsyth,

- Sinclair Dinnen eta Srinjoy Bose (ed.) *Hybridity on the ground in peacebuilding and development: critical conversation*. The Australian National University Press, Australia, 253-269. orr.
- Girelli, Giada (2017a). "They hybrid experiment: assessing the special court for Sierra Leone" in Giada Girelli (Ed.) *Understanding transitional justice. A struggle for peace, reconciliation and rebuilding*. Palgrave Macmillan, Cham, 171-194. orr.
- Girelli, Giada (2017b). "Adopting the Perspective: The Role of Bottom-Up Initiatives" in Giada Girelli (Ed.) *Understanding transitional justice. A struggle for peace, reconciliation and rebuilding*. Palgrave Macmillan, Cham, 229-251. orr.
- Goetze, Catherine (2014) "Statebuilding in a Vacuum: Sierra Leone and the Missing International Political Economy of Civil Wars" in Jacob Mundy and Daniel Bertrand Monk (Ed.) *The Post-Conflict Environment: Investigation and Critique*. The University of Michigan Press, Michigan, 25-67. orr.
- Graybill, Lyn S. (2011) "Partial Justice and Reconciliation for Sierra Leone women but reparations and reform remain elusive". *Research in Social Movements, Conflicts and Change* 32, 101-120. orr.
- Grover, Sonja C. (2010) "The Special Court of Sierra Leone" in Sonja C. Grover (Ed.) *Prosecuting International Crimes and Human Rights Abuses Committed Against Children. Leading International Court Cases*, Springer, Berlin, 69-78. orr.
- Heathershaw, John (2013). "Towards better theories of peacebuilding: beyond the liberal peace debate". *Peacebuilding* 1(2), 275-282. orr.
- Hollis, Brenda J. (2015) "Evaluating the Legacy of the Special Court for Sierra Leone" in Kirsten Ainley, Rebekka Friedman eta Chris Mahony (Ed.) *Evaluating Transitional Justice. Accountability and Peacebuilding in Post-Conflict Sierra Leone*. Palgrave Macmillan, Hampshire, 19-34. orr.
- Hudson, Heidi (2009) "Peacebuilding Through a Gender Lens and the Challenges of Implementation in Rwanda and Côte d'Ivoire". *Security Studies* 18(2), 287-318. orr.
- Jackson, Paul eta Albrecht, Peter (2018). "Power, politics and hybridity" in Joanne Wallis, Lia Kent, Miranda Forsyth, Sinclair Dinnen eta Srinjoy Bose (ed.) *Hybridity on the ground in peacebuilding and development: critical conversation*. The Australian National University Press, Australia, 37-49. orr.
- Johnson, Kristin eta Hutchison, Marc L. (2012). "Hybridity, political order and legitimacy: examples from Nigeria". *Journal of peacebuilding and development* 7(2), 37-52. orr.
- Kaldor, Mary eta Vincent, James (2006) "Evaluation of UNDP assistance to conflict-affected countries. Case Study Sierra Leone". United Nations Development Programme Evaluation Office.
- Kanyako, Vandy (2016) "Civil Society and Democratized Peace in Postwar Sierra Leone" in Marda Mustapha eta Joseph J. Bangura (Ed.) *Democratization and human security in postwar Sierra Leone*. Palgrave MacMillan, Hampshire, 163-176. orr.
- Karbo, Tony (2012) "Localising Peacebuilding in Sierra Leone: What does it mean?". *ACCORD*, Issue 3, 1-13. orr.

- Kelsall, Tim (2005) "Truth, Lies, Ritual: Preliminary, Reflections in the Truth and Reconciliation Commission in Sierra Leone". *Human Rights Quarterly* 27(2), 361-391. orr.
- Kennedy, Rosanne (2018) "Reparative transnationalism: The friction and fiction of remembering in Sierra Leone". *Memory Studies* 11(3), 342-354. orr.
- Kochanski, Adam (2020). "The "local turn" in transitional justice: curb of enthusiasm". *International studies review* 22, 26-50. orr.
- Kormoh, Joseph Lansana (2016) "Chieftaincy Reform and Liberal Peace-Building in Sierra Leone" in Marda Mustapha eta Joseph J. Bangura (Ed.) *Democratization and human security in postwar Sierra Leone*. Palgrave Macmillan, Hampshire, 37-58. orr.
- Koroma, Paul (2012) "Decentralisation and peacebuilding in Sierra Leone". *ACCORD*, Issue 23, 30-33. orr.
- Ladum, Ariel M. eta Haaken, Janice (2017) "Women's Perspectives on War and Peace in Sierra Leone". *Journal of Peac Psychology* 23(4), 353-362. orr.
- Langer, Johannes (2017) "Are Truth Commissions Just Hot-Air Ballons? A reality Check on the Impact of Truth Commission Recommendations". *Desafios* 29(1), 177-210. orr.
- Leonardsson, Hanna eta Rudd, Gustav (2015). The "local turn" in peacebuilding: a literature review of effective and emancipatory local peacebuilding. *Third World Quarterly* 36(5), 825-839. or.
- Mac Ginty, Roger (2010). "Hybrid peace: the interaction between top-down and bottom-up peace". *Security Dialogue* 41(4), 391-412. orr.
- Mac Ginty, Roger eta Richmond, Oliver P. (2013). "The local turn in peace building: a critical agenda for peace". *Third World Quarterly* 34(5), 763-783. orr.
- MacKenzie, Megan eta Sesay, Mohamed (2012) "No Amnesty from/for the International: The Production and Promotion of TRCs as an International Norm in Sierra Leone". *International Studies Perspectives* 13, 146-163. orr.
- Mahony eta Sooka, Yasmin (2015) "The Truth about the Truth: Insider Reflections on the Sierra Leonean Truth and Reconciliation Commission" in Kirsten Ainley, Rebekka Friedman eta Chris Mahony (Ed.) *Evaluating Transitional Justice. Accountability and Peacebuilding in Post-Conflict Sierra Leone*. Palgrave Macmillan, New York, 129-151. orr.
- Martin, Laura S. (2021a) "(En)gendering post-conflict agency: Women's experiences of the "local" in Sierra Leone". *Cooperation and Conflict* 56(4), 454-471. orr.
- Martin, Laura S. (2021b) "Deconstructing the local in peacebuilding practice: representations and realities of Fambul Tok in Sierra Leone". *Third World Quarterly* 42(2), 385-401. orr.
- Mbabazi, Veneranda; Naiga, Resty eta Helen, Nkabala Nambalirwa (2020) "Towards gendered peacebuilding processes for sustainable peace". *Jadavpur Journal of International Relations* 24(2), 133-151. orr.

- McNamee, Terence (2021) "Such a long journey: peacebuilding after genocide in Rwanda" in Terence McNamee eta Monde Muyangwa (Ed.) *The state of peacebuilding in Africa: lessons learned for policymakers and practitioners*. Palgrave Macmillan, Cham, 379-395. orr.
- McQueen, Ally (2019) "Falling Through the Gap: the Culpability of Child Soldiers Under International Criminal Law". *Notre Dame Laww Review Onlice* 94(2), 100-127. orr.
- Menzel, Anne (2020a) "The perils of recognising local agency: a situational concept of agency and the case of victims of sexual violence and the Sierra Leone Truth and Reconciliation Commission (TRC)". *Journal of International Relations and Development* 23(3), 584-606. orr.
- Menzel, Anne (2020b) "The pressures of getting it right: Expertise and victim's voices in the work of the Sierra Leone Truth and Reconciliation Commission (TRC)". *International Journal of Transitional Justice* 14, 300-319. orr.
- Millar, Gearoid (2011) "Local Evaluations of Justice through Truth-Telling in Sierra Leone: Postwar Needs and Transitional Justice". *Human Rights Review* 12, 515-535. orr.
- Millar, Gearoid (2013) "Expectations and Experiences of Peacebuilding in Sierra Leone: Parallel Peacebuilding Processes and Compound Friction". *International Peacekeeping* 20(2), 189-203. orr.
- Millar, Gearoid (2014) "Disaggregating hybridity: Why Hybrid institutions do not produce predictable experiences of peace". *Journal of Peace Research* 31(4), 501-514. orr.
- Millar, Gearoid (2015) "Investigating in peace: foreign direct investment as economic restoration in Sierra Leone?". *Third World Quarterly* 36(9), 1700-1716. orr.
- Millar, Gearoid (2016) "Local experiences of liberal peace: Marketization and emergent conflict dynamics in Sierra Leone". *Journal of Peace Research* 53(4), 569-581. orr.
- Mueller-Hirth, Natascha (2019) "Women's experiences of peacebuilding in violence-affected communities in Kenya". *Third World Quarterly* 40(1), 163-179. orr.
- Mullins, Christopher W. (2023) "Variations in War Crimes During the Sierra Leone Civil War". *International Criminal Justice Review* 33(2), 197-217. orr.
- Nazio Batuak (1992) "An agenda for peace. Preventive diplomacy, peacemaking and peacekeeping. Report of the Secretary-General pursuant to the statement adopted by the Summit Meeting of the Security Council on 21 January 1992". Hemen eskuragarri: <https://digitallibrary.un.org/record/144858?ln=es> (Azkenik ikusia 2023ko apirilaren 3an)
- Newman, Edward (2010) "Peacebuilding as security "failing" and conflict-prone states". *Journal of intervention and state building* 4(3), 305-322. orr.
- Newman, Edward; Paris, Roland eta Richmond, Oliver P. (2009) "Introduction" in Edward Newman, Roland Paris eta Oliver P. Richmond (Ed.) *New perspectives on liberal peacebuilding*. United Nations University, New York, 3-25. orr.

- O'Reilly, Maria (2018). "Contextualising gendered agency in war and peace: gender justice and women's activism in historical perspective" in Maria O'Reilly (Ed.) *Gendered agency in war and peace: gender justice and women's activism in post-conflict Bosnia-Herzegovina*. Palgrave Macmillan, London, 35-62. orr.
- Olaitan, Zainab eta Isike, Christopher (2019) "The role of the African Union in Fostering Women's Representation in Formal Peacebuilding: A Case Study of Sierra Leone". *Journal of African Union Studies* 8(2), 135-154. orr.
- Oosterveld, Valerie (2010) "Special Court for Sierra Leone – international criminal law – attacking personnel involved in a peacekeeping mission – recruitment and use of child soldiers – sexual slavery – forced marriage". *The American Journal of International Law* 104(1), 73-81. orr.
- Oosterveld, Valerie (2015) "Sexual and Gender-Based Violence in Post-Conflict Sierra Leone: The Contribution of Transitional Justice Mechanisms to Domestic Law Reform" in Kirsten Ainley, Rebekka Friedman eta Chris Mahony (Ed.) *Evaluating Transitional Justice. Accountability and Peacebuilding in Post-Conflict Sierra Leone*. Palgrave Macmillan, New York, 129-151. orr.
- Paffenholz, Thania (2015). "Unpacking the local turn in peacebuilding: a critical assessment towards an agenda for future research". *Third world quarterly* 36(5), 857-874. orr.
- Paffenholz, Thania; Ross, Nick; Dixon, Steven; Schluchter, Anna-Lena; eta True, Jacqui (2016). "Making women count – Not just counting women: assessing women's inclusion and influence on peace negotiations". *Inclusive Peace & Transition Initiative (The Graduate Institute of International and Development Studies) eta UN Women*, Geneva.
- Paris, Roland (2010) "Saving liberal peacebuilding". *Review of international studies* 36, 337-365. orr.
- Park, Augustine S. J. (2006) "Other Inhumane Acts: Forced Mariage, Girl Soldiers and the Special Court for Sierra Leone". *Social and Legal Studies* 15(3), 315-337. orr.
- Parmar, Sharanjeet (2010) "Realizing economic justice for children: The role of Transitional Justice in Post-Conflict Societies" in Sharanjeet Parmar, Mindy Jane Roseman, Saudimini Siegrist eta Theo Jowa (Ed.) *Children and Transitional Justice. Truth-telling, Accountability and Reconciliation*. Harvard University Press, Cambridge, 365-401. orr.
- Pemunta, Ngambouk Vitalis (2012) "Neoliberal peace and the development deficit in post-conflict Sierra Leone". *International Journal of Development Issues* 11(3), 192-207. orr.
- Philipsen, Lise (2022). "Three locals of peace: a typology of local capacities for peace". *Third World Quarterly* 43(8), 1932-1949. orr.
- Pierson, Claire (2019) "Gendering peace in northern ireland: the role of United Nations Security Council resolution 1325 on women, peace and security". *Capital & Class* 43(1), 57-71. orr.

- Pogodda, Sandra (2020). "Revolutions and the liberal peace: peacebuilding as counterrevolutionary practice?". *Cooperation and conflict* 55(3), 347-364. orr.
- Popplewell, Rowan (2019). "Civil society, hybridity and peacebuilding in Burundi: questioning authenticity". *Third World Quarterly* 40(1), 129-146. orr.
- Prügl, Elisabeth; Kunz, Rahel; Achakpa, Mimidao; Myrntinen, Henri; Onyesoh, Joy; Rahmawati, Arifah; Rigual, Christelle; eta Udasmoro, Wening (2021) "Introduction: local peacebuilding through a gender lens" in Elisabeth Prügl, Rahel Kunz, Mimidao Achakpa, Henri Myrntinen, Joy Onyesoh, Arifah Rahmawati, Christelle Rigual eta Wening Udasmoro (ed.) *Gender in peacebuilding*. Brill Nijhoff, Leiden and Boston, 1-23. orr.
- Randazzo, Elisa (2016). The paradoxes of the "everyday": scrutinising the local turn in peace building. *Third World Quarterly* 37(8), 1351-1370. orr.
- Richards, Paul (1996) "Insurgency in Sierra Leone" in Richards, Paul (Ed.) *Fighting for the Rain Forest. War, Youth & Resources in Sierra Leone*. Heinemann, New Hampshire, 1-33. orr.
- Richmond, Oliver P. (2012) "Beyond local ownership in the architecture of international peacebuilding". *Ethnopolitics* 11(4), 354-375. orr.
- Richmond, Oliver P. (2022). "What is an emancipatory peace?". *Journal of International Political Theory* 18(2), 124-147. orr.
- Rodman, Kenneth A. (2015) "Intervention and the "Justice Cascade": Lessons from the Special Court for Sierra Leone on prosecution and Civil War". *Human Right Rev* 16, 39-58. orr.
- Rodríguez Iglesias, Ana Isabel eta Rosen, Noah (2022). "Local participation at stake: between emancipatory goals and co-option strategies. the case of territorially focused development programs in Colombia". *Colombia Internacional* 109, 89-114. orr.
- Sabaratnam, Meera (2013). "Avatars of eurocentrism in the critique of the liberal peace". *Security Dialogue* 44(3), 259-278. orr.
- Sarkin, Jeremy eta Ackermann, Sarah (2019) "Understanding the extent to which truth commissions are gender sensitive and promote women's issues: comparing and contrasting these truth commission roles in South Africa, Guatemala, Peru, Sierra Leone and Liberia". *Georgetown Journal of International Law* 50, 463-516. orr.
- Schabas, William A. (2006) "The Sierra Leone Truth and Reconciliation Commission" in Naomi Roht-Arriaza eta Javier Meriezcurrera (Ed.) *Transitional Justice in the Twenty-First Century. Beyond Truth versus Justice*. Cambridge University Press, Cambridge, 21-42. orr.
- Sharland, Lisa (2021) "Sustaining the Women, Peace and Security Agenda: The Role of the UN Peacekeeping in Africa" in Terence McNamee eta Monde Muyangwa (Ed.) *The State of Peacebuilding in Africa: lessons learned for policymakers and practitioners*. Palgrave Macmillan, Cham, 103-121. orr.

- Shaw, Rosalind (2005) "Rethinking truth and reconciliation commissions. Lessons from Sierra Leone". *Estatu Batuetako Bake Institutoa* 130. txosten berezia, 2005eko otsaila.
- Shaw, Rosalind (2007) "Memory Frictions: Localizing the Truth and Reconciliation Commission in Sierra Leone". *The International Journal of Transitional Justice* 1, 183-207. orr.
- Souris, Renée Nicole (2017) "Child Soldiering on Trial: an interdisciplinary analysis of responsibility in the Lord's Resistance Army". *International Journal of Law in Context* 13(3), 316-335. orr.
- Svärd, Proscovia (2010) "The international community and post-war reconciliation in Africa: A case study of the Sierra Leone Truth and Reconciliation Commission". *African Journal of Conflict Resolution* 10(1), 35-62. orr.
- Swaine, Aisling; Spearing, Michelle; Murphy, Maureen; eta Contreras-Urbina, Manuel (2019). "Exploring the intersection of violence against women and girls with post-conflict statebuilding and peace-building processes: a new analytical framework". *Journal of Peacebuilding and Development* 14(1), 3-21. orr.
- Trantidis, Aris (2022) "Fallacies of democratic state-building". *International Studies Review* 24(4), 1-20. orr.
- Trantsiziozko Justiziarentzako Nazioarteko Zentroa (2004) "The Special Court for Sierra Leone: The first eighteen months" Case study series, 2004ko martxoa.
- Tryggestad, Torunn L. (2009) "Trick or treat? The UN and implementation of Security Council Resolution 1325 on women, peace and security". *Global Governance* 15, 539-557 orr.
- Unobe, E. Christabel (2022) "Justice Mirage? Sierra Leone's Truth and Reconciliation Commission and Local Women's Experiences". *Peace and Conflict: Journal of Peace Psychology* 28(4), 429-436. orr.
- Valji, Nahla (2012) "A window of opportunity: Making Transitional Justice Work for Women". *UN Women*, 2nd Edition.
- Van Leeuwen, Mathijs; Nindorera, Joseph; Nzweve, Jean-Louis Kambale eta Corbijn, Corita (2020). "The "local turn" and notions of conflict and peacebuilding – reflections on local peace committees in Burundi and Eastern Dr Congo". *Peacebuilding* 8(3), 279-299. orr.
- Varisco, Andrea E. (2018) "Introduction" in Andrea E. Varisco (Ed.) *Research in Security Reform Policy: the case of Sierra Leone*. Palgrave Macmillan, Londres, 1-34. orr.
- Visoka, Gëzim (2012). "The levels of hybridisation practices in post-conflict Kosovo". *Journal of Peacebuilding and Development* 7(2), 23-36. orr.
- William, Sarah eta Opdam, Jasmine (2017) "The unrealised potential for transformative reparations for sexual and gender-based violence in Sierra Leone". *The International Journal of Human Rights* 21(9), 1281-1301. orr.
- Zack-Williams, Alfred B. (1999) "Sierra Leone: The political economy of civil war, 1991—98". *Third World Quarterly* 20(1), 143-162. orr.

Zack-Williams, Tunde (2013) “When Children Become Killers: Child Soldiers in the Civil War in Sierra Leone” in Chandi Fernando eta Michel Ferrari (Ed.) Handbook of Resilience in Children of War”. Springer, New York, 83-94. orr.

Sierra Leonako testu juridikoak

Lomé Bake Akordioa, 1999ko uztailaren 7koa.

Sierra Leonako Egiaren eta Adiskidetzaren Batzordea (2004) “The TRC and the Special Court for Sierra Leone”. *Azken Txostena* 3(6), 363-430. orr.

Sierra Leonako Egiaren eta Adiskidetzaren Batzordearen Estatua, 2000ko urtarrilekoa.

Sierra Leonarako Auzitegi Bereziaren Estatua, 2002ko urtarrilaren 16koa.

Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren ebazpenak

1181(1998) Ebazpena, establishment of the UN Observer Mission in Sierra Leone (UNOMSIL), 1998ko uztailaren 13koa.

1270(1999) Ebazpena, establishment of the UN Mission in Sierra Leone (UNAMSIL), 1999ko urriaren 22koa.

1289(2000) Ebazpena, extension of the mandate and expansion of the military component of the UN Mission in Sierra Leone (UNAMSIL), 2000ko otsailaren 7koa.

1325(2000) Ebazpena, *women and peace and security*, 2000ko urriaren 31koa.

1346(2001) Ebazpena, extension of the mandate of the UN Mission in Sierra Leone (UNAMSIL), 2001eko martxoaren 30ekoa.

1829(2008) Ebazpena, establishment of the UN Integrated Peacebuilding Office in Sierra Leone (UNIPSIL), 2008ko abustuaren 4koa.

1886(2009) Ebazpena, extension of the mandate of the UN Integrated Peacebuilding Office in Sierra Leone (UNIPSIL), 2009ko irailaren 15ekoa.

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



hegoa

INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE DESARROLLO Y COOPERACIÓN INTERNACIONAL
NAZIOARTERKO LANIKIDETZA ETA GARAPENARI BURUZKO IKASKETA INSTITUTUA